Guk dakigula, lan bakar batek ere ez du aztertu erabiltzaile multzo bat (nriadura fisikorik izan edo ez) bere gailurik gogokoarenarekin (teklatua, trackball, joystick edo sagua) elkarreraginean, eta zehaztutako bi atazetako edozeinetan gerta litekeen edozein patroi problematiko ikertzeko saiakera egin: ataza mekanikoa edo ahalegin kognitiboren bat eskatzen duen ataza mekaniko eta kognitiboa. Hau garrantzitsua da, izan ere, aldez aurretik ezezagunak diren arazoak antzemateko bide ematen du prozedura honek, eta hori da hain zuen ere kapitulu honetan azalduko duguna.

5.2. Esperimentuetarako erabilitako plataforma-ren deskribapena: RemoTest

RemoTest plataformak (Valencia et al. 2015) beharrezkoak diren funtzionalitateak ematen ditu ikertzaileei webgunean oinarritutako erabiltzaile-esperimentuak definitzen laguntzeko, urruneko/bertako saio esperimentalak kudeatu eta bildutako interakzio-datuak aztertzea. Plataforma honek esperimentu sorta zabala onartzen du. Plataformaren arkitektura arkitektura hibridoko eredu batean datza, zenbait funtzio bezeroaren aldeko modulu batean eta beste batzuk zerbitzariaren aldeko modulu batzuetan dituena. 5.1. Irudiak RemoTest plataformaren arkitektura orokorra eta haren lau moduluen arteko elkarrekintza erakusten ditu (Arrue et al. 2018):



5.1. Irudia: RemoTest plataformaren deskribapena (Arrue et al. 2018).

5.3. ESPERIMENTUAK ERABILTZAILEEKIN

- *Experimenter Module (EXm)*: modulu honek ikertzaileei laguntza ematen die esperimentua definitzeko prozesuan zehar, eta XML fitxategi batean biltegiratzen du, esperimentuak deskribatzeko sortutako hiztegi espezifikoan oinarrituta. Hiztegi hau behar bezain osatua da elementu nagusiak zehazteko, hala nola helburuak, aurkeztuko diren estimuluak, atazen denbora-mugak, parte-hartzaileek osatu beharreko galdetegiak eta abar.
- *Coordinator Module (COM)*: modulu honek saio esperimental pertsonalizatuak sortzen ditu parte-hartzaile bakoitzarentzat, EXm moduluau sortutako XML fitxategiko informazioa erabiliz.
- *Participant Module (PAm)*: modulu honek COM moduluak transferitutako saio esperimentalak erabiltzen ditu, eta horrek parte-hartzaileei beren interakzio-datuak bistaratzeko eta biltegiratzeko aukera ematen die.
- *Results Viewer Module (RVm)*: modulu honek esperimentuetan bildutako elkarrekintza datuak antolatu eta aurkezten ditu.

Nahiz eta RVm moduluak datu batzuk prozesatu eta ikustarazten dituen, kapitulu honetan proposatutako sistema eraikitzeko zuzenean elkarrekintza unitatearekin lan egin da, hau da, PAm moduluak bildutako elkarrekintza gertae-rekin: kurtsore mugimenduak, tekla sakaketak, leihoko korritzeak, klikak etab.

5.3. Esperimentuak erabiltzaileekin

Lan honetarako datu iturburu izan den estudioan hamabost norbanakok hartu zuten parte eta bost taldetan banatu ziren. Hauek bost taldetan sailkatu ziren nabigatzean apuntatzeko eta klikatzeko ekintzak burutzeko erabilitako sarreragailuaren arabera: ekintzetan apuntatzeko eta klik egiteko erabilitako sarreragailuan oinarrituta: hatzez sakatzen zuten bi teklatu erabiltzaile (HatzezTeklatu), buru-adarrez sakatzen zuten bi teklatu erabiltzaile (AdarrezTeklatu), trackball bat erabiltzaile bat (Trackball), lau joystick erabiltzaile (Joystick) eta sei sagu erabiltzaile (Sagua).


Lehen lau taldeetako norbanako guztiak (HatzezTeklatu, AdarrezTeklatu, Trackball eta Joystick) narriadura motorea zuten parte-hartzaileak ziren eta gehienek ordenagailua egunero erabiltzen zazpi urtetik gorako esperientzia zuten. Aldiz, azken norbanakoentzako taldeak (Sagua) ageriko behar berezirik ez zuten erabiltzaileak bakarrik biltzen zituen eta hauek ere, saguarekin ordenagailua egunero erabiltzen zazpi urtetik gorako esperientzia zuten.

Erabilitako makinari dagokionez, 64 biteko Windows 7 bertsioa martxan zuen Dell Precision M6700 eramangarri bera erabili zen saio guztietaurako. Erabiltzaileei ataza-estimuluak aurkezteko 16:10 proportziodun zabalera zuen LCD monitore gehigarri bat erabili zen, bere diagonalaren luzera 24 hazbete zelarik eta bistaratze bereizmena 1920x1200 pxeletara finkatu zelarik. Makina honetan Mozilla Firefox nabigatzailea erabili zen, eta bertan, kurtsorearentzat alegiazko laguntzak implementatuak zitzuten gehigarria instalatu ziren.


5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA

Estudioa hasi aurrelik parte-hartzaileei euren kurtsorea doitza gomendatuitzaien hartara adierazle honen mugimendu-portaera euren beharretara egoki zezaten. Atazak egikaritzeko narriadurak zituzten norbanakoek euren sarreragailu pertsonalak erabili zituzten. Behar berezirik ez zuten parte-hartzaile guztiek (Sagua) USB sagu optiko bera erabili zuten (Dell M-UVDEL1).

Esperimenturako bi webgune ezberdin aukeratu ziren ataza-estimulu gisa: behar bereziko pertsonei zuzendutako informazioa eskaintzen duen Discapnet webgunea (ikus 5.2. Irudia), <http://www.discapnet.com/>, eta instituzio batzen webgunea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunea hain zuzen (ikus 5.3. Irudia), <http://www.gipuzkoa.eus/>.



5.2. Irudia: Discapnet webgunearen hasierako orria: <http://www.discapnet.com>




5.3. Irudia: Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunearen hasierako orria: <http://www.gipuzkoa.eus/>

Hirugarren webgune bat ere erabili zen parte-hartzaileek kurtsore berriaren alegiazko areagotzeak erabiltzen ikas zezaten. Horretarako, Bidasoa-Txingudi

5.4. ATAZEN EZ AUGARRIAK

badiari buruzko informazioa duen Bidasoa Turismo webgunea erabili zen (ikus 5.4. Irudia), <http://www.bidasoaturismo.com>. Hiru webguneek ziurtatzen zuten irisgarriak izateko WCAG 1.0 gidalerroak betetzen zituztela maila batean ala bestean: Discapnetek AA mailan, Gipuzkoak A mailan eta Bidasoak A mailan.



5.4. Irudia: Bidasoa Turismo webgunearen hasierako orria: <http://www.bidasoaturismo.com>

5.4. Atazen ezaugarrriak

Erabiltzaileek bi ataza mota burutu zitzuzten:

- **MiniAtaza:** MiniAtaza bakotza, nabarmendutako helburu batean klik egitean zetzan. Helburu bakotza klikatu ondoren, kurtsoaren posizioa pantailaren erdialdean birkokatzen zen. Ataza mota hauek ez dute fase kognitiborik behar, non, eskatutako informazioan pentsatu eta webgu- nean bilatzea beharrezkoa den. Hortaz, ataza hauek, ataza mekanikoak ere deiturikoak, erabiltzaileen motor-trebetasunak baino ez dituzte neur- tzen. Nabigazio errazak eta laburrak izateko diseinatuta daude, eta oso interesgarriak dira erabiltzailearen nahita egindako nabigazioa aztertzeko.
- **BilaketaAtaza:** Ataza bakotza webgune zehatz bat bilatzean zetzan, be- re izenburua jaso ondoren. Webgunetik helmugako webguneetara iristeko bi eta lau urrats artean eman behar ziren. Ataza hauek, ataza kognitiboak ere deituak, fase kognitibo bat eskatzen dute, non erabiltzaileak denbora behar duen pentsatzeko eta eskatutako informazioa bilatzeko. Erabiltzai- leak nahita egindako nabigazioa helburua identifikatzen duenean hasten da.

Guztira, erabiltzaile bakotzak 156 ataza egin zituen (bi webgunetan egin- dako 144 MiniAtaza eta 12 BilaketaAtaza), eta horien elkarrekintzari buruzko informazioa erabiltzen ari zen gailua detektatzeko erabili zen lehenik, eta, on- doren, nabigazio-arazo posibleak detektatzeko.


5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA

5.5. Ezaugarrien erauzketa

Erabiltzaileen eta webgunearen arteko elkarrekintza RemoTest plataformarekin bildu zen, eta etiketatutako datu multzo bat bihurtu zen, gainbegiratutako sailkapen-ingurune batean erabiltzeko. Suposatu genuen erabiltzaile bakoitzak antzeko elkarrekintza burutu zuela egindako esperimentuetan zehar bisitatutako web orri bakoitzean, eta elkarrekintza nolabait erabiltzaileak zerabilen gailu motaren araberakoa zela. Beraz, erabilitako gailua datu multzoaren adibideak etiketatzeko erabili zen, bost klaseko datu multzoa sortuz: HatzezTeklatu, AdarrezTeklatu, Trackball, Joystick eta Sagu.

Detekzio automatikoko sistema bat eraikitzeko asmoz, lehenik gailuetarako eta gero arazoetarako, irisgarritasun-adituekin batera 25 ezaugarri erauztea adostu genuen. Hala ere, adituen iradokizunetan oinarrituta, gailuak detektatzeko (G) eta arazoak detektatzeko (A) erabilitako ezaugarriak desberdinak izan ziren: 19 ezaugarri erabili ziren gailuak detektatzeko (DB_1) eta 11 ezaugarri arazoak detektatzeko (DB_{2M} eta DB_{2B}), 5.1. Taulan agertzen direnak G eta A gisa markatuta, hurrenez hurren, Erabilera zutabeen.

5.5. Irudian erakusten den bezala, bisitatutako orri bakoitzeko ezaugarriak erauzteko, espazioa zortzi koadrantetan zatitu genuen (1-8) horretarako ardatz horizontal (H_i), bertikal (B_i) eta diagonalak (D_i) erabiliz. Ondoren, kurtso-rearen mugimenduen norabidea kalkulatu genuen, zehaztutako koadranteen eta ardatzen barruan.



5.5. Irudia: Espazioaren banaketa zenbait ezaugarri erauzteko: ardatz horizontalak (H_i), bertikalak (B_i) eta diagonalak (D_i) eta zortzi koadrante (1-8).

5.5. EZAUGARRIEN ERAUZKETA

Id	Ezaugaria	Er.	L_m	Unit.	Azalpena
1	GertaeraK	G	1	#	Gertaera kop. (klik...).
2	TeklaBerK	G	1	#	Sakatutako tekla berezi kop. (letra...).
3	GurpilKop	G	1	#	Gurpila erabilera kop.
4	HBMugiK	G	1	#	Ardatz horizontal edo bertikalekin lerrokatutako mugimendu kop.
5	DMugiK	G	1	#	Ardatz diagonalekin lerrokatutako mugimendu kop.
6	GeldMed	G	1	<i>ms</i>	Kurtsore mugimendu gabeko denbora tarteen mediana (geldiunea).
7	AbMed	G	1	<i>px/s</i>	Kurtsore mugimenduen abiaduren mediana.
8	AzelMed	G	1	<i>px/s²</i>	Kurtsore azelerazioen mediana.
9	TeklaK	G	2	#	Sakatutako tekla kop.
10	KurDis	G	2	<i>px</i>	Sagquarekin egindako distantzia totala.
11	KurDisOpR	G/A	2	<i>ratio</i>	KurDis eta distantzia optimoaren arteko ratioa.
12	KoAldBoR	G/A	2	<i>ratio</i>	KoAldBoK / KoAldK
13	KlikK	G/A	3	#	Klik kop.
14	KorritzeK	G	3	#	Eginiko leihoko korritze kop.
15	HBDMugiR	G	3	<i>ratio</i>	(HMugK + DMugK) / (HMugK + DMugK + EzHBDMugiK).
16	KoAldK	G/A	3	#	Mugimenduen norabidean egindako koadrante (ko.) aldaketa kop.
17	KoAldBoK	G	3	#	Mugimenduen norabidean egindako ko. aldaketa bortitz kop. (≥ 2 ko.)
18	EzHBDMugiK	G	3	#	H B edo D ardatzekin ez lerrokatutako mugimendu kop.
19	IgaroDenb	G/A	3	<i>ms</i>	Orri batean igarotako denbora.
20	KlikDis	A		<i>px</i>	Klik batean (sakatu/askatu) egindako bataz besteko distantzia.
21	KlikDenb	A		<i>ms</i>	Klik baten (sakatu/askatu) bataz besteko iraupena.
22	DKurEremu	A		<i>px</i>	Kurtsoreak zeharkatu eremuaren diagonalaren luzera.
23	GainAzelMed	A		<i>px/s³</i>	Kurtsoarearen mugimenduen gainazelezioen mediana.
24	GuruK	A		#	Kurtsoreak eremu klikagarri baten mugak gurutzatutako aldi kop.
25	GeldK	A		#	Geldirik egondako tarte kop.

5.1. Taula: Bisitatutako orri bakotzerako erauzitako 25 ezaugarrien deskribapena, 19 gailuak detektatzeko eta 11 arazoak detektatzeko.

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA

5.5.1. Gailuak detektatzeko ezaugarrien erauzketa

Sortutako datu-basearen sarrera bakoitzak erabiltzaile batek bisitatutako web-orri bakoitzean egindako elkarrekintzaren laburpen bat du. Elkarrekintza hori laburbiltzeko, web-irisgarritasun adituek gailuen (G) detekziorako garrantzitsutzat jotzen zituzten 19 ezaugarri erauzi genituen, eta beraien laguntzarekin, ezaugarriei hiru lehentasun-maila (L_m) esleitu genizkien, erabilgarritasunaren arabera: 1-altua (zortzi ezaugarri), 2-ertaina (lau ezaugarri), 3-baxua (zazpi ezaugarri).

5.1. Taulan erauzitako 19 ezaugarriak (G gisa markatuta Er., erabilera, zutabean) eta haien lehentasun-mailak (L_m) laburbiltzen dira. Taulan azaltzen diren ezaugarri-unitateen laburdurak honako hauek dira: pixelak (px) distantziatarako; segundoak (s) eta milisegundoak (ms) denboretarako; eta agerpen kopuruak (#) kontatzeko.

5.5.2. Arazoak detektatzeko ezaugarrien erauzketa

Irisgarritasun-adituen gomendioei jarraituz, azkenean 11 ezaugarri erabili ziren arazoak (A) detektatzeko. Ezaugarri horiek 5.1. Taulan agertzen dira, erabilera (Er.) zutabean A gisa markatuta. Iku daitekeenez, ezaugarri horietako bost gailua (G) detektatzeko ere erabili ziren G/A gisa markatuta 5.1. Taulako erabilera zutabean (Er.): klik kopurua (KlikK), mugimenduen norabidean egindako koadrante aldaketa kopurua (KoAldK), mugimenduen norabidean egindako koadrante aldaketa kopuruaren eta koadrante aldaketa bortitzenten kopuruaren arteko ratioa (KoAldBoR/KoAldK), KurDis ezaugarriaren eta kurtsorearen hasierako posizioa eta helburuaren arteko distantziaren arteko ratioa (KurDisOpR), eta orri batean igarotako denbora (IgaroDenb).

Erregistro-prozesuan zehar interakzio-datuak akats edo gorabeherak izan ditzakete, ezohiko edo ezinezkoak diren nabigazio-portaerak eraginez. Portaera horien eragina murrizteko eta seinale leunago bat lortzeko, Butterworth (Proakis et al. 1992) iragazkia behe-paseko iragazki gisa konfiguratuta aplikatu zitzaien honako ezaugarri hauei: kurtsorearen abiadura (AbMed), kurtsorearen azelerazioa (AzelMed), kurtsorearen gainazelerazioa edo azelerazio aldaketa (GainAzelMed). Aldagai nominalen kasuan, Metodo Higikor Simple batean oinarritutako leunketa erabili zen 11 elementuko azpimultzoa erabiliz (urreko bost elementuak, uneko elementua eta ondorengo bost elementuak).

5.2. Taulak gailu bakoitzerako, arazoak detektatzeko erabilitako ezaugarrien batez besteko balioak erakusten ditu, hori baitzen gure azken helburua (datuak gailuen eta ataza-denboren arabera banatzen dira). 5.2. Taulan erakusten diren gailu eta ataza mota bakoitzerako aldagaien batez besteko balioek iradokitzenten dute erabilitako gailu motak nahiz ataza motak portaera orokorrari eragiten diola. Adibidez, taulako MiniAtazen datuena arabera, gainazelerazio (GainAzelMed) balio altuenak saguari dagozkio eta txikienak aldiz teklatuari. Trackball-aren kasuan koadrante aldaketa (KoAldK) gehiago somatzen dira. Igaro denborari (IgaroDenb) dagokionez, teklatu erabiltzaileak dira denbora gehiena pasatzen dutenak ataza osatzen eta saguaren erabiltzaileak aldiz,

denbora gutxiena pasatzen dutenak dira. GeldK ezaugarria aztertuz, badakigu teklatu erabiltzaileak nabigazioan geldialdi gehien egiten dituztenak direla. Gu-rutzaketa kopuruari dagokionez (GuruK), sagu eta teklatu erabiltzaileak trebeenak dira helburuaren inguruan kurtsoea kontrolatzen. Klik denborarik altuena (KlikDenb) aldiz, joystick erabiltzaileek markatzen dute.

Gailuak Ezaugarriak

	<i>GainAzelMed</i>	<i>KurDisOpR</i>	<i>KoAldBoR</i>	<i>KlikK</i>	<i>KoAldK</i>	<i>IgaroDenb (s)</i>	<i>GeldK</i>	<i>HBMugiK</i>	<i>KlikDenb (ms)</i>	<i>KlikDis</i>	<i>DKurFremu</i>
MiniAtaza											
Teklatua	208	1,1	0,3	0,1	1,3	1,1	4,4	5,1	9	0,3	418
Joystick	868	1,4	0,5	0,1	4,8	6,3	1,6	16,0	258	0,8	476
Trackball	2.039	1,6	0,5	0,1	8,8	5,9	1,4	29,5	86	0,0	465
Sagua	3.330	1,2	0,2	0,1	1,4	1,6	0,4	7,4	91	0,3	315
BilaketaAtaza											
Teklatua	234	2,2	0,5	0,8	2,9	46,9	8,3	5,4	311	1,0	575
Joystick	707	5,9	0,5	0,8	18,1	40,4	8,9	31,3	322	4,0	941
Trackball	1.917	6,2	0,5	0,8	40,5	39,6	9,0	59,7	117	0,1	1.117
Sagua	3.758	14,3	0,5	0,9	10,3	13,1	5,8	14,3	109	5,4	781

5.2. Taula: Arazoak detektatzeko erabiltzen diren ezaugarrien bataz besteko balioak (zentroideak) gailu eta ataza mota bakoitzerako.

MiniAtazetan ezaugarriek gailu desberdinatarako erakutsitako joerak BilaketaAtazetan ere antzematen dira, balioek ordea, kasu honetan, gora egiten dute. GeldK, KlikDenb eta KlikDis ezaugarrietan desberdintasun nabarmenak igartzen dira gailu desberdinatarako. Bilaketa-prozesua gehitzen denean, geldirik egondako tarte kopuruaren balioak berdinak dira gailu guztientzat, trackball-ak, joystick-ak eta teklatuak balio altuagoak dituztelarik. KlikDenb-en eta KlikDis-en balio altuek erakusten dute erabiltzaileek BilaketaAtazetan denbora eta distantzia gehiago behar dutela klik egiteko; teklatu erabiltzaileek zehazki denbora gehiago (KlikDenb), eta sagukoek, berriz, distantzia handiagoa (KlikDis). Gainera, KurDisOpR-en balioaren igoerak, egindako distantziaren eta distantzia optimoaren arteko erlazioak, edo IgaroDenb balioarenak, BilaketaAtazak, espero moduan, luzeagoak eta zailagoak direla adierazten dute.

Ondorioz, gailuen eta zereginen artean ikus daitezkeen desberdintasunek iradokitzen dute gailuaren identifikazioa garrantzitsua izango dela gerora arazoak identifikatzeko. Horrek berretsi egiten du bi faseko sistema baten beharrari buruzko hipotesia, non gailua lehenik detektatzen den, eta bigarren fasean datu multzoa gailuaren arabera banatzen den.

5.6. Gailuen detekzio automatikoa: hastapen la-na

5.6.1. Datu-basearen deskribapena

Arkitekturaren lehen urrats horretan, ikasketa automatikoko algoritmoei datu multzo osoa eman zitzaien, gailuen eta MiniAtaza edo BilaketaAtazetako URL-nabigazioen araberako banaketarik egin gabe; izan ere, gailuaren ikuspegitik, ataza motak ez luke garrantzirik izan behar.

Adituek proposatutako ezaugarri guztiak kalkulatzeko, gutxieneko jarduera bat ezarri zen URL nabigazio bakoitzaren barruan. Ondorioz, bost baldintza hauek betetzen zitzuten elkarrekintzak baino ez ziren gehitu datu multzora:

- Sagu-Mugimendu (*MouseMove*) gertaera kopurua gutxienez bost izan behar da. Kurtsole-mugimendu gertaera gutxi gorabehera 10 ms-tik behin erregistratzen dira, eta kurtsolearen kokapenari buruzko informazioa ematen dute.
- Kurtsoleak egindako distantziak zero baino handiagoa izan behar du.
- RemoTest-ek klik egin den helburu-eremuaren neurriei buruzko informazioa erregistratu behar du.
- Gordetako datuen artean, klik-askatze eta klik-sakatze gertaerak egon behar dira.
- Atazaren gutxieneko iraupena (igarotako denbora) 4 segundokoa izan behar da.

Azken baldintza, igarotako denbora ≥ 4 s, elkarrekintzaren tarte ezberdinengarria aztertzeko ezarri zen (azken % 25...). Beraz, soilik segmentu txikiagotan bana zitezkeen atazak, definitutako ezaugarriak kalkulatzeko haina jarduera zutenak, kontutan hartu genituen. Irizpide hori hartutako konponbiderako baztertu zen, lehenik eta behin, nabigazio laburragoak hautatzeko aukera ematen zuelako, batez ere MiniAtazak, eta, bigarrenik, baiezta genuelako nabigazioaren segmentu jakin baten erabilera (saio luzeen banaketetatik erorriak) ez zituela emaitzak hobetzen.

Aurrera eramandako esperimentuetatik, bost klase desorekan eta 20 ezaugarri (19 ezaugarri-igarre + klase edo helburu-ezaugarri bat) dituen datu-base bat sortu zen (ikus 5.3. Taula). Ezaugarri guztien balioak estandarizatu ziren, horrela ezaugarriek har zitzaketen balioak balio-tarte berdinetara eramanet eta beraz, sailkatzaileak eraikitzeko prozesuan balio-tarte ezberdinek izan zezaketen eragina minimizatzuz.

Hastapeneko lan honen helburua nabigatzeko erabili den gailua automatikoki detektatzea izan arren, etorkizun hurbileko helburua erabiltzaileen nabigazio problemak detektatzea zen eta beraz, ezaugarriak bi helburuetan pentsatuz erauzi ziren. Gure erabakia berresteko ezaugarri multzo desberdinekin esperimentatu genuen. Batetik, 5.1. Taulan agertzen diren erauzitako ezaugarrien

5.6. GAILUEN DETEKZIO AUTOMATIKOA: HASTAPEN LANA

multzo osoarekin (25). Bestetik, irisgarritasun-adituek erabilitako gailua hau temateko garrantzitsutzat jotako zortzi ezaugarriekin (1. lehentasuneko ezaugariak 5.1.. Azkenik, ezaugarriak automatikoki detektatzeko bi algoritmorik erabilienak (García et al. 2015) hautatutako ezaugariakin: Hall (1998) laneko Correlation-based Feature Subset Selection (FSS) algoritmoa (M.A. Hall 1998) non korrelazioan oinarriturik ezaugarrien azpimultzoa aukeratzen den eta R. Kohavi et al. 1997 laneko Wrapper algoritmoa non emaniko sailkatzailerako optimoak diren ezaugarrien multzoa aurkitzen den (J48 gurean).

Klasea	Adibide kopurua
Joystick	584
HatzezTeklatu	347
AdarrezTeklatu	338
Trackball	171
Sagua	235
Guztira	1.675

5.3. Taula: Sortutako datu-basean bost klaseen distribuzioa.

5.6.2. Emaitzak eta analisia

Kalkulatutako ezaugarriak sailkatzaileak eraikitzeko erabili ziren, erabiltzailearen elkarrekintza-datuak erabilitako gailuaren arabera automatikoki sailkatzen dutenak hain zuzen. Sailkatzaileak ateratako ezaugarrien multzo osoarekin, irisgarritasun-adituek garrantzitsuentzat jotzen dituzten ezaugarriekin eta ezaugariak automatikoki hautatzeko prozesu batzuek hautatutako ezaugarien eraiki genituen.

Esperimentuak M. Hall et al. 2009 liburuan aurkezten den Weka software ingurunean egikaritu ziren ondoko lau oinarritzko sailkatzaile erabiliz, defektuzko parametroekin: John et al. 1995 lanean aurkeztutako Naïve Bayes (NB), Aha et al. 1991 lanean aurkeztutako IBK (k bizilagun gertukoak, k-NN, algoritmoaren implementazioa), J.C. Platt 1999 lanean aurkeztutako SVM (euskarri bektoredun makina) eta (J.R Quinlan 1993) lanean aurkeztutako J48 (sailkatz ze zuhaitzak eraikitzeko C4.5 algoritmoaren implementazio librea). Hauetaz gain, sailkatze zuhaitzeta (J48) oinarritutako bi meta-sailkatzaile ere eraiki ziren: Breiman 1996 lanean aurkeztutako bagging eta Freund et al. 1996 lanean aurkeztutako boosting, non oinarri sailkatzailearen 25 iterazio egikarituko ziren. Sailkatzaile hauen igartze-gaitasuna neuritzeko bost iterazioidun balioztatze gurutzatua (5-fold cross-validation) metodoa erabili zen: datu-basearen %80 sailkatzailea entrenatzeko erabili zelarik eta %20 berau testatzeko. 5.4. Taulan ikus daitekeenez, lau datu-base desberdin evaluatu ziren bat aipatu ezaugari multzo bakoitzareko:

- Adituen arabera ezaugari garrantzitsuenak ditu (1 lehentasuna dutenak).

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA

- Erauzitako ezaugarri guztiak ditu (Ezaugarri guztiak).
- Korrelazioan oinarrituriko ezaugarrien azpi-multzoa hautaketa metodoaz aukeratuak ditu (CF Subset Eval).
- Wrapper algoritmoaz detektatutako ezaugarriak ditu. Wrapper-en barne eragiketetarako J48 sailkatzailea eta bilaketa algoritmo genetikoa erabili dira (Wrapper J48).

Ezaugarrien multzoa	Sailkatzaileen zehaztasun-tasak (%)					
	NB	IBK	SVM	J48	Bagg.	Boos.
Lehentasuna 1 duten ezaugarriak	66,09	67,46	62,09	71,88	74,75	75,52
Ezaugarri guztiak	57,85	67,82	67,10	74,45	79,34	79,76
CF Subset Eval	59,64	68,96	64,12	74,87	77,97	77,25
Wrapper J48	57,85	67,88	66,57	75,82	79,7	80,78

5.4. Taula: Sailkatzaileek bost klase desberdintzean lortutako zehaztasun-tasak (%) ezaugarrien multzo ezberdinatarako (balio onena belztuta).

5.4. Taulako balioek erakusten dute zehaztasun-tasak ez zirela espero bezain altuak. Oro har, zehaztasun-tasarik onenak sailkatzaile konplexuenekin edo meta-sailkatzaileekin lortu ziren: bagging eta boosting.

Ezaugarri multzo desberdinek sistemaren jardunari nola eragiten dioten aztuzt gero, badirudi irisgarritasun-adituek iradokitako multzoa (lehentasuna 1 duten ezaugarriak), Naïve Bayes (NB) sailkatzaileen kasuan baino ez dela aukerarik onena. Gainerako sailkatzaileek portaera hobea dute ezaugarri multzo osoa edo automatikoki hautatutako ezaugarri-multzoak erabiltzen denean. Bi emaitza hauek ikusita, nahaste-matrizeak aztertzea erabaki genuen erroreen jatorria aurkitu asmoz.

Errorearen jatorria aztertzea

Erroreen jatorria aztertzeko, sailkatzaile onenetariko bat hautatu genuen, Wrapper-ek hautatutako ezaugarri multzoari aplikatutako J48 algoritmoan oinarritutako boosting prozedura hain zuzen, eta haren nahaste-matrizea aztertu zuen (ikus 5.5. Taula).

Balioek argi erakusten dute erroreen jatorri nagusia HatzezTeklatu eta AdarrezTeklatu klaseak bereizteko ahalmen eskasa dela. Hori aurreikusten genuen nolabait, izan ere, guk bi gailuak modu desberdinean kudeatu arren, bi kasuetan teklatua da azkenean erabiltzen den gailua. Bestalde, joystick erabiltzaileak zehaztasun handiz sailkatzen dira, F-puntuazioa %95-ekoa izanik, eta sagu eta trackball erabiltzaileekin egindako akatsak ere gutxi dira.

Hori dela eta, arazoia lau klasetara sinplifikatzea erabaki genuen, HatzezTeklatu eta AdarrezTeklatu gailuak klase berean batuz (teklatua). Datu-base

5.6. GAILUEN DETEKZIO AUTOMATIKOA: HASTAPEN LANA

berrian aurrekoan bezainbat adibide izanik, 1.675, haien distribuzioa honela aldatu zen: joystick (584), teklatua (685), trackball (171) eta sagua (235). Aurrerago azalduko dugun bezala, irisgarritasun-adituak erabaki honen alde agertu ziren arazoak antzemateko etorkizuneko helburuari begira. Izan ere, gailu multzo bakoitzeko laguntza birtual desberdinak iradoki zituzten, kurtsorearen irisgarritasuna hobetzeko.

Honela sailkatuak	a	b	c	d	e	Fp (%)
Joystick = a	114	0	0	1	2	95,00
HatzezTeklatu = b	0	49	20	1	0	72,59
AdarrezTeklatu = c	0	16	51	0	0	73,91
Sagua = d	8	0	0	35	4	80,46
Trackball = e	1	0	0	3	30	85,71

5.5. Taula: Wrapper-ek haututako ezaugarrien multzoari boosting aplikatu ostean lorturiko nahasmen-matrizea eta F-puntuazioa (%) bost klaseko arazoan.

4-klaseko problemaren ebazpena

Aurreko ataletan deskribatutako esperimentu berberak errepikatu ziren Wekan lau klaseko datu-base berrirako; NB, IBK, SVM eta J48, bagging (bagg.) eta boosting (boos.) sailkatzaileak eraiki eta ebaluatu ziren, bost iteraziodun balioztatze gurutzatuan (5-fold cross-validation) oinarrituta.

Espero bezala, 5.6. Taulako balioek erakusten dute sailkatzaile guztiekin zehaztasun-tasak handiagoak lortu zituztela. Horrek esan nahi du RemoTest plataforman egindako esperimentuetatik erauzitako ezaugarriak ikasketa automatikoko algoritmoekin konbinatuz eraikitako sistemak gai direla erabilitako gailua zehaztasunez bereizteko.

Ezaugarrien multzoa	Sailkatzaileen zehaztasun-tasak (%)					
	NB	IBK	SVM	J48	Bagg.	Boos.
Lehentasuna 1 duten ezaugarriak	82,99	83,52	80,48	87,22	89,19	90,39
Ezaugarri guztiak	77,31	83,16	84,54	88,9	92,42	93,07
CF Subset Eval	81,19	82,75	80,54	87,34	90,69	91,22
Wrapper J48	77,49	84,12	83,52	89,67	92,48	92,66

5.6. Taula: Sailkatzaileek lau klase desberdintzean lortutako zehaztasun-tasak (%) ezaugarrien multzo ezberdinatarako (balio onena belztuta).

Sailkatzaileen jarduna konparatuta, 5-klaseko datuen-basean ikusitako joera berberak errepikatu ziren: zehaztasun-tasarik onenak sailkatzaile konplexuenekin edo meta-sailkatzaileekin, bagging (bagg.) eta boosting (boos.), lortu ziren.

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA

Ezaugarri-multzoei dagokienez, automatikoki hautatutakoak edo ezaugarri guztia batzen dituenak antza denez, hobeto funtzionatu zuten. Emaitzarik onenak (%93-ko zehaztasun-tasa) bereziki, erauzitako ezaugarri guztien multzoari boosting aplikatzean lortu ziren.

Nahasmen-matriseak sakonago aztertu ondoren, ikus 5.7. Taula, konturatu ginen sailkatzalea teklatuaren erabiltzaileak eta gainerako gailuen erabiltzaileak ia erabat bereizteko gai zela, gainerako hiru gailuentzat bereizmen gaitasun orokor handia mantenduz. Honek gailu mota desberdinak bereizteko sistema hierarkiko bat eraikitzearen ideia babesten du, non, lehenik teklatua gainerako gailuengandik bereizten den, eta bigarrenik, gainerako gailuak bereizten diren (joystick/trackball/sagua).

Honela sailkatuak	a	b	c	d	Fp (%)
Joystick = a	108	2	5	2	91,91
Teklatua = b	1	136	0	0	98,91
Sagua = c	6	0	40	1	84,21
Trackball = d	3	0	3	28	86,15

5.7. Taula: Wrapper metodoarekin hautatutako ezaugarrien multzoari boosting aplikatu ostean lortutako nahasmen-matrlizea eta F-puntuazioa (%) lau klasoko arazoan.

Ezaugarrien garrantziaren azterketa

Datu meatzaritzako edozein prozesutan bezala, sailkapen prozesuan erabilitako ezaugarriek eragina izan zuten sailkatzileen eraginkortasunean. Lehen esan bezala, badirudi irisgarritasun-adituek garrantzitsuentzat jotzen zituzten ezaugarriak ez zirela onenak izan gailuen sailkapenerako. Beraz, lau eta bost klasoko datu-baseetan aplikatutako bi ezaugarri hautaketa prozesuek nahiz adituek aukeratutako ezaugarri multzoak konparatzea erabaki genuen, erauzitako ezaugarrien garrantzia aztertzeko. 5.8. Taulak kontrastatu egiten du adituek egindako hautaketa eta algoritmo automatikoek egindakoa. Ezaugarri bakoitza gehienez lau aldiz hautatua izan zitekeen.

Ondorioz, ezaugarriak hautatzeko erabilitako prozesu automatiko gehienetan arabera, adituek oso garrantzitsutzat jotzen zituzten zortzi ezaugarrietatik bost baino ez dira eraginkorrak izan sailkapen prozesurako. Hala ere, badira hiru ezaugarri, HBDMugir, EzHBDMugiK eta TeklaK, sailkapenerako garrantzitsuak izanik ere, adituek aintzat hartu ez dituztenak, eta ziurrenik, adituek etorkizunean kontuan hartu beharko dituzte.

Lehen adierazi bezala, ezaugarri batzuk intuitiboki erabakigarriak ez ziruditen arren gailuen detekziorako, bakarra zegoen, KoAldBoR, gauzatutako ezaugarriak hautatzeko prozesu bakar batek ere aukeratu gabea. Hala ere, ezaugarri hori, ziurrenik, informatiboa izango da arazoak detektatzeko.

5.7. GAILUEN DETEKZIO AUTOMATIKOA: PROPOSATUTAKO AZKEN SISTEMA

Automatikoki hautatutakoak		
	Oso arruntak	Ez hain arruntak
Adituak	$L_m=1$	GertaeraK(4) GurpilKop(4) GeldMed(4) AzelMed(4) AbMed(3)
	$L_m \neq 1$	HBDMugiR (4) EzHBDMugiK(4) TeklaK(3)
	$L_m=1$	HBMMugiK(2) TeklaBerK(2) DMugiK(1)
	$L_m \neq 1$	KurDisOpR(2) KoAldK(2) IgaroDenb(2) KlikK(2) KurDis(1) KoAlBoK(1) KorritzeK(2) KoAldBoR(0)

5.8. Taula: Ezaugarrien erabilera.

5.7. Gailuen detekzio automatikoa: proposatutako azken sistema

Hastapen lanari esker jakin genuen ataza motak ez zuela garrantzirik gailuen detekziorako, beraz, proposatutako azken sisteman ere, datu-base osoa (DB_1) erabili genuen, gailuak eta MiniAtazei edo BilaketaAtazei dagozkien URL-nabigazioak bereizi gabe.

Etorkizuneko egokitzapenei dagokienez, irisgarritasun-aditu batzuen arabera, webgunea desgaitasuna duten pertsonei egokitutako ordez, bitarteko irtenbide gisa, laguntza birtualak eman behar zaizkie kurtsoreen irisgarritasuna hobetzeko. Haien aburuz, erabiltzaileei zuzendutako irtenbideak bi gailu multzo nagusiren arabera banatuta egongo lirateke: mugimendu mugatuak dituzten gailuak (MugiMugatu) eta mugimendu askeak dituzten gailuak (MugiAske) (J.E. Pérez et al. 2016). Proposamen hau hastapeneko lanaren emaitzarekin bat dator, non bi meta-gailuak hobeto bereizten diren, teklatua (adarrez edo hatzez) eta gainerako gailuen taldea. Ondorioz, aurreko sailkapen-sistemak erabiltzailearen elkarrekintza egokitzeko proposamen berriarekin bat egin zezan, gailu guztiek urrats bakar batean sailkatu ordez, sistemak bi mailako ikuspegi hierarkikoa izatea erabaki genuen. Lehen mailan, sailkatzeko bi meta-klase zehaztu ziren sailkapenerako, antzeko portaera zituzten gailuak elkartzuz: sarrera-gailu diskretuak edo mugimendu mugatuak zituzten gailuak, MugiMugatu (teklatua) eta mugimendu ez mugatuak dituzten gailuak, MugiAske deiturikoak (joystick, trackball eta sagua). Bigarren mailan, MugiAske meta-klasean bildutako gailuak modelatuta eta sailkatu ziren, hau da, joystick, trackball eta sagu klaseak.

Esperimentuak Wekan egin ziren hastapen lanean erabilitako algoritmo ber-

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA

berekin: oinarrizko sailkatzaileak, NB, IBK, SVM eta J48, defektuzko parame-troekin eta sailkatzaile zuhaitzean (J48) oinarritutako bi meta-sailkatzaileak, bagging (bagg.) eta boosting (boos.), 25 iterazio egitarituz. Berriro, bost ite-raziodun balioztatze gurutzatua (5-fold cross-validation) erabili zen emaitzak balioztatzeko, %80 entrenamendurako eta %20 testatzeko. Ezaugarri multzoari dagokionez, hastapeneko laneko onena hautatu zen (5.1., hots, Taulako erabilipen (Er.) zutabeen G eta G/A gisa markatutako 19 ezaugarriez osatutakoa.

5.7.1. Datu-base berriaren deskribapena

Proposatutako azken sisteman atazaren gutxieneko iraupenaren baldintza ($\geq 4s$) baztertu egin zen, eta horrek 5.6. Atalean azaldutako datu-basearen tamaina %22 handitzea ekarri zuen (1.656 adibide izatetik eta 2.148 adibide izatera pasaz). Zehazki, honako lau baldintza hauek baino ez ziren ezarri: Sagu-Mugimendu (*MouseMove*) gertaera kopurua ≥ 5 , kurtsoreak egindako distantzia ≥ 0 , klik egin den helburu-eremuaren dimentsioa erregistratu izana = egia, klik-askatze eta klik-sakatze gertaera kopurua $\neq 0$.

Teorikoki, MiniAtazetan 2.160 sarrera zeuden (15 erabiltzaile x 144 MiniA-taza) eta BilaketaAtazetan, gutxi gorabehera, 540 adibide egon beharko lirateke (15 erabiltzaile x 12 BilaketaAtaza x 2-4 klik). Hala ere, 5.9. Taulan ikusten den moduan, gutxieneko jarduera bat bermatzeko ezarritako baldintzek aipatu sarrera kopuru teorikoak murriztu zituzten, MiniAtazetan 1.713 balioan utziz (DB_{2M}) eta BilaketaAtazen kasuan 435 sarreretara mugatuz (DB_{2B}).

Meta-Gailua	Gailua	Arazoen detekzioa MiniAtaza	BilaketaAtaza	Tresna det. Ataza	Erabil. Kop.
MugiMugatu	Teklatua	388	76	464	4
MugiAske	Trackball	98	32	130	1
	Joystick	491	127	618	4
	Sagua	736	200	938	6
	Guztira	1.325	359	1.686	11
MugiMugatu +MugiAske	Guztiak	1.713 (DB_{2M})	435 (DB_{2B})	2.148 (DB_1)	15

5.9. Taula: Gailu eta ataza mota desberdinatarako datu-basearen adibide kopuruua.

5.9. Taulan adierazi moduan, gailuen detekzio faserako, lehenik eta behin adibide guztiak (DB_1), ataza mota desberdindu gabe (MiniAtazak eta Bilake-taAtazak), bi datu-basetan banatu ziren: batetik, mugimendu mugatuak dituzten gailuez osatutakoa 464 adibiderekin (MugiMugatu izeneko meta-gailua) eta bestetik, mugimendu askeak dituzten gailuez osatutakoa 1.686 adibiderekin (MugiAske izeneko meta-gailua). Ondoren, MugiAske meta-gailua hiru datu-basetan banatu zen, mugimendu askeak zituzten gailuei dagozkienak: trackball 130 adibide, joystick 628 adibide eta sagua 938 adibide.

5.7. GAILUEN DETEKZIO AUTOMATIKOA: PROPOSATUTAKO AZKEN SISTEMA

5.7.2. Emaitza berriak eta analisia

Irisgarritasun-adituen iradokizunak jarraituz, meta-klase desberdinak gailuen sailkapen okerra (lehen maila) akats kritikotzat jo genuen eta meta-klase bereko gailuen sailkapen okerra aldiaraz (bigarren maila), akats ez-kritikotzat. Beraz, eraikitako sistemaren lehen mailan, ezin hobeto diskriminatu behar diren klaseak errore kritikoa minimizatzeko bideratzen dira; bigarren mailan, berriz, elkarrekintzak antzekoagoak diren heinean, desberdintasun txikiagoak dituzten klaseei heltzen zaie.

5.10. Taulak argi erakusten du sailkatzaileak gai direla bi meta-klaseak zehaztasun-tasa handiekin bereizteko. Sailkatzaile guztiak, NB izan ezik, zehaztasun-tasa (%) handia lortzen badute ere, emaitzarik onenak meta-sailkatzaileekin lortzen dira, bereziki J48 algoritmoan oinarritutako boosting prozedurarekin, %99,26-ko zehaztasun-tasa lortuz. Ondorioz, akats kritikoa oso txikia da.

Ezaugarrien multzoa	Sailkatzaileen zehaztasun-tasak (%)					
	NB	IBK	SVM	J48	Bagg.	Boos.
Guztiak (19 ezaugarri)	90,33	96,06	96,30	98,57	99,04	99,26

5.10. Taula: Sailkatzaileek bi meta-klaseak bereiztean lortutako zehaztasun-tasak (%) (errore kritikoa). Baliorik onena belztuta dago.

Lehen mailari dagokion akats kritikoaren jatorria aztertzeko asmoz, 5.11. Taulan nahaste-matrizetan aurkezten dugu. Taulako emaitzek erakusten dute lehen mailako errore kritikoa %0,74 dela (ikus 5.10. Taula) eta MugiMugatu taldean F-puntuazioaren (%) balioa, MugiAske taldean lortutakoa baino txikia-goa dela (%98,29 >%99,52). Kontuan izan mugimendu askeak dituzten gailuek (MugiAske) burututako lau nabigazioak, zeintzuk oker sailkatuak izan diren mugimendu mugatuak dituzten gailuek egindako nabigazio gisa (MugiMugatu), akats kritiko gisa kalkulatu direla lehen mailan, eta, beraz, ez direla errore ez-kritiko gisa aintzat hartuko bigarren mailan.

Honela sailkatuak ⇒	a	b	Fp (%)
MugiMugatu = a	460	4	98,29
MugiAske = b	12	1.672	99,52

5.11. Taula: Bi klaseko datu-baseari J48 algoritmoan oinarritutako boosting prozedura aplikatu ostean lortutako nahaste-matrizea eta F-puntuazioa (%).

Bigarren mailan mugimendu analogoa duten gailuak diskriminatzen saiatu ginen: joystick, trackball eta sagua. 5.12. Taulak erakusten duenez, baliorik onena J48 algoritmoan oinarritutako boosting prozedurak lortu zuen, %90,13-ko zehaztasun-tasa lortuz, eta, beraz, hierarkiaren bi mailak eraikitzeko prozedura hau erabili genuen.

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA

Ezaugarrien multzoa	Saikatzaileen zehastasun-tasak (%)					
	NB	IBK	SVM	J48	Bagg.	Boos.
Guztiak (19 ezaugarri)	73,33	80,10	80,10	84,24	87,17	90,13

5.12. Taula: Mugimendu askeak dituzten hiru klaseak bereiztean sailkatzaile desberdinek lortutako zehastasun-tasak (%) (errore ez-kritikoa).

Bigarren mailako errore ez-kritikoaren jatorria aztertzeko, 5.13. Taula aurkeztu dugu. F-puntuazioaren balioak aztertuz, akats gehienak sagua trackball gisa oker sailkatzean ematen direla ikus daiteke, nahiz eta joystick-a ehunekotan, neurri handiagoan, oker sailkatu den. Bigarren mailako errore ez-kritikoa zehazki, %9,87 da (ikus 5.12. Taula). Beraz, bi mailako gailu automatikoen sailkapen-sistemaren errore orokorra %8,43 da. Proposatutako azken sistemaren errore kritikoa (%0,74) hastapeneko lanean lortutako errore globala baino txikiagoa da (%6,93, ikus 5.6. Taula), non gailu guztiak urrats bakar batean sailkatzen ziren. Horregatik, azaldu berri dugun sistema hierarkikoa etorkizuneko erabiltzaileen elkarrekintza egokitzeko hobea dela uste dugu.

Honela sailkatuak ⇒	a	b	c	Fp (%)
Trackball = a	122	1	3	73,72
Joystick = b	38	536	40	90,16
Sagua = c	45	38	849	93,09

5.13. Taula: Ezaugarri guztiak eta klase bakoitzeko adibideak dituen datu-baseari J48 algoritmoan oinarritutako boosting prozedura aplikatu ostean lortutako nahaste-matrizea eta F-puntuazioa (%).

5.8. Arazoen detekzio automatikoa

5.8.1. Patroi aurkikuntzarako clusteringa

Clustering algoritmoak, gainbegiratu gabeko ikasketako algoritmo mota bat, datuen barruan portaera-patroiak detektatzeko baliogarriak dira, datuen egitura edo klasea aurretik ezagutzen ez denean. Ezaugarrien (*ezau*) balioak tresnaren arabera desberdinak direla aintzat hartuz, ideia lehenik eta behin gailu (*gail*) eta ataza mota bakoitzerako, MiniAtaza (*M*) eta BilaketaAtaza (*B*) clustering-a egikaritzea da. Ondoren, portaera anomalo bat erakusten duten klusterrak (*i, j*) automatikoki hautatuko lirateke, hots, irisgarritasun-adituek helburu honetarako hautatutako ezaugarrien balioen desbideratze handienak dituztenak. Helburu horrekin, kluster bakoitzaren barruan bildutako adibideen batez besteko portaera, kluster zentroidea (MiniAtazak $MZ_{i,ezau}^{gail}$ eta BilaketaAtazak $BZ_{j,ezau}^{gail}$ hurrenez hurren), portaera orokorrarekin konparatzen da, ikusi zentroide globa-

la (MZG_{ezau}^{gail} , BZG_{ezau}^{gail}) 5.2. Taulan non, gailu eta ataza mota bakoitzeko balioak erakusten diren.

Clustering algoritmoaren parametro nagusietako bat partizio onena lortzeko sortutako kluster kopurua (k) da. Tesi honen barruan egindako kluster baliozko-tasun indizeen (CVI) inguruko ekarpenean (Yera et al. 2017a) frogatu moduan, k egokiena hautatzeko zenbait CVI-en arteko erabakiak fusionatzeko estrategiak erabiltzea, CVI bakar bat erabiltzea baino eraginkorragoa da. Beraz, nabigazio-arazoak detektatu genituen k-means (Lloyd 1982) algoritmoa k balio desberdinekin egikarituz eta ondoren, k onena hautatu genuen zortzi CVI-en arteko erabakiak fusionatzeko estrategia batekin, zerrendatutako hauekin hain zuzen: Silhouette (Rousseeuw 1987), Davies-Bouldin variation (Kim et al. 2005), Całinski-Harabasz (Całinski et al. 1974), Davies-Bouldin (Davies et al. 1979), COP (Gurrutxaga et al. 2010) eta GD33, GD43 and GD53 Dunn Indize Orokortuak (Bezdek et al. 1998).

Patroi aurkikuntza MiniAtazetan

BilaketaAtazekin alderatuta (DB_{2B}), MiniAtazak (DB_{2M}) zuzenagoak dira, era-biltzaileak une oro helburu finkoa duelako eta beraz, helburu ezezagun batean pentsatzeko tarterik ez dutelako. Aldagaiei dagokienez, bi ataza moten arteko desberdintasunik handiena ataza osatzeko behar den batez besteko denbora da (5.14. Taulan erakusten da). Balioei dagokienez, bigarren taldearentzat (BilaketaAtazak) osagai kognitiboaren eragina argia da, izan ere, batez besteko, mediana eta gehieneko denborak nabarmen handitzen dira gailu guztientzat, nahiz eta haien ranking eta aldeak mantendu egiten diren bi ataza motetan. Gainerako ezaugarrien balioak ere nabarmen aldatzen dira gailuaren arabera.

Kluster (i) baten batez besteko portaera dagokion gailuaren (*gail*) nabigazio guztien portaera orokorrarekin alderatu ahal izateko, aldez aurretik ezaugarrien (*ezau*) balio guztiak gailu bakoitzeko normalizatu ziren (banaketa normala). 5.1 Ekuazioan erakusten den bezala, zentroide globalaren (MZG_{ezau}^{gail}) bi desbideratze estandar edo gehiago ($2desbest_{ezau}^{gail}$) desbideratzen diren kluster zentroideak ($MZ_{i,ezau}^{gail}$) nabigazio arazoak identifikatzeko hautagai egokitzat jo genituen.

$$MZ_{i,ezau}^{gail} \geq MZG_{ezau}^{gail} + 2desbest_{ezau}^{gail}, \text{ gail } \in \{Te, Jo, Tr, Sa\}, i \in \mathbb{N}, i \leq 15 \quad (5.1)$$

MiniAtazen datu-baseen tamainak kontuan hartuta (gailu bakoitzeko bat), k-means algoritmoarentzat (Lloyd 1982) honako k balioak probatu genituen, 10, 15, 20 eta 25. Gailu bakoitzeko partizio onenak ebaluatzen zortzi kluster baliozkotasun indize (CVI) erabili ostean, CVI-ek lau gailuetarako hautatutako batezbesteko k kalkulatu genuen (14,53). Ondoren, k hurbilena (k=15) hautatu genuen, MiniAtazen lau datu-baseetan arazoak detektatzeko erabilitako k-means algoritmoarentzat.

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA

	Min.	1. Ko.	Mediana	Batazb.	3. Ko.	Max.
MiniAtaza						
Teklatua	3,9	7,5	10,1	10,6	12,7	38,9
Joystick	2,0	4,1	5,3	6,3	7,1	42,3
Trackball	2,5	4,4	5,4	5,9	6,5	19,4
Sagua	0,6	1,0	1,2	1,6	1,6	22,0
BilaketaAtaza						
Teklatua	3,7	21,6	38,7	46,9	61,9	176,1
Joystick	5,3	14,9	27,1	40,4	58,2	164,8
Trackball	7,5	15,1	28,7	39,6	49,4	162,5
Sagua	1,4	5,4	8,7	13,1	15,9	81,4

5.14. Taula: Ataza mota bakoitzka osatzeko behar den denbora (segundotan) gailu bakoitzeko.

Patroi problematikoak eta adierazleak

Ezaugarrien balioak desbideratuta zituzten klusterrak automatikoki hautatu ostean, patroi problematiko batzuk eta haien esanahiak ondorioztatu genituen. Inferitutako patroi problematikoak eta haien esanahiak hurrengo paragrafoetan azalduko dira.

- **1. Patroia: distantzia handiegia.** Horren adierazlea KurDisOpR ezaugarria da. Helburu hautaketa egitean izandako arazo baten iragarle ona da; kurtsoreak egindako distantzia, aurreikusitakoa bainoa askoz luzeagoa da. Hala ere, arazoaren zegatia ezezaguna da. Arazoaren zergatia aztertzeko, beharrezko da KurDisOpR-ekin batera piztutako beste atributuak aztertzea.
- **2. Patroia: denbora gehiegi.** Patroi honen adierazlea IgaroDenb ezaugarria da. Ataza osatzeko zaitasunaren iragarle ona da; atazaren iraupena aurreikusitakoa bainoa luzeagoa izan da. Hala ere, arazoaren zergatia aztertzeko, IgaroDenb-ekin batera aktibatutako beste ezaugarriak aztertu beharko dira. Beraz, ezaugarri hori, normalean, hainbat arazok eragiten dute.
- **3. Patroia: norabide-zuzenketak** Patroi honen adierazleak KoAldK edo KoAldBoR ezaugarriak dira eta norabide-zuzenketak egiteko normalean geldialdi laburrrak egin behar direnez, GeldK ezaugarriarekin aktibatzen dira.
- **4. Patroia: alferrikako klikak.** Patroi honen adierazlea KlikK ezaugarria da. Zuzendutako ataza batean arrunta ez den portaera da, are gehiago, baldartasunaren adierazlea izan liteke.
- **5. Patroia: helburuaren inguruko zaitasunak.** Patroi honen adierazlea HBMugiK ezaugarria da. Bereziki, helburuan lurreratzerako kon-

5.8. ARAZOEN DETEKZIO AUTOMATIKOA

trol eta zehaztasun falta adierazten du. Helburu baten gainetik igaro ostean, norabidea zuzendu beharra dago, horregatik, sarritan 3. Patroia-rekin batera agertzen da. Testuinguru honetan, erabiltzaileak helburua gaizki klikatu dezake, horregatik, sarritan 4. Patroiarekin batera agertuko da.

- **6. Patroia: klik luzeak.** Patroi honen adierazlea KlikDenb ezaugarria da. Zuzendutako ataza batean, portaera ezohikoa da eta berez, portaera-en zalantzatiaren adierazlea dela ematen du.
- **7. Patroia: geldialdi gehiegi.** Patroi honen adierazlea GeldK ezaugarria da. Gehienbat, zuzenketa-ekintzarekin lotuta dago (3. Patroia), baina kasu batuetan ikusi dugu erabiltzaileak ez duela zuzenketarik egiten eta norabide berean jarraitzen duela, kurtsorearen kontrola berriro hartzen saiatzen ari dela aditzera emanez.

5.15. Taulan, automatikoki hautatutako klusterretatik inferitutako patroi problematikoak (*Patr*) eta patroi bakotzean desbideratutako ezaugarriak laburbiltzen dira. Bertan, ezaugarri baten desbideratze esanguratsua x ikurrarekin adierazten da eta gutxienez, markatutako ezaugarrietako baten desbideratzea [x] ikurraren bidez (edo baldintza).

Patr	Ezaugarriak							
	KurDisOpR	KoAldBoR	KlikK	KoAldK	IgaroDenb (s)	GeldK	HB>MugiK	KlikDenb (ms)
P1	x							
P2				x				
P3	[x]	[x]			x			
P4			x					
P5						x		
P6						x		
P7					x			

5.15. Taula: Inferitutako zazpi patroi problematikoen deskribapena eta haiei lotutako atributuak MiniAtazetan.

Taularen arabera, irisgarritasun-adituek nabigazio-arazoen adierazle egoki gisa aukeratutako 11 ezaugarrietatik hiru, GainAzelMed, KlikDis eta DKurEremu, ez ziren inferitutako zazpi patroi problematikoen parekatu. Hala ere, ekarpen honetan identifikatu ez diren beste arazo mota batzuekin zerikusia izan

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA

dezakete. Beraz, hiru ezaugarri horien balioak ez dira erakutsiko ez patroi problematikoak deskribatzen dituzten taulan (5.15. Taula), ezta patroi problematikoak dituzten klusterren adibideak erakusten dituzten tauletan ere (5.16. eta 5.17. Taulak).

5.16. Taulak gailu bakoitzeko, problematiko bezala identifikatutako kluster baten adibidea erakusten du. Taulan klusterren zentroideen desbideratze estandarra eta lotutako patroi problematikoak (Patroia zutabean) jasotzen dira, letra lodiz desbideratutako ezaugarriak markatuz, hau da, bi desbideratze estandartik (desbest) gorako desbideratzeak dituztenak. Horretaz gain, Taulan kluster barruko nabigazioetako bat irudikatzen duen irudi baten erreferentzia ere jasotzen da gailu bakoitzeko (Irudia zutabean). Kontuan izan 6. Patroia (klik luzeak) irudikatzea zaila dela, 5.10. Irudiko nabigazio patroian antzematen den moduan. Argi dago irudikatutako nabigazio bakoitza identifikatutako hainbat patroiri lotuta dagoela, eta horrek esan nahi du arazoak dituzten erabiltzaileak ziurrenik zaitasunak aurkitzen ari direla alderdi askotan.

			Zentroidea: $MZ_{i,\text{ezau}}^{\text{gail}}$							
Irudia	Gailua	Patroia	$KurDisOpR$	$KoAldBoR$	$KlikK$	$KoAldK$	$IgaroDenb$ (s)	$GeldK$	$HBMugIK$	$KlikDenb$ (ms)
5.6.	Teklatua	1, 2, 3, 7	2,21	1,48	0,87	2,06	2,21	2,24	1,78	-0,03
5.7.	Joystick	1, 2, 4, 5	4,48	0,94	4,52	2,35	6,77	5,61	2,58	0,58
5.8.	Trackball	6	-0,13	0,41	-0,18	0,15	0,56	1,73	1,00	2,49
5.9.	Sagua	1, 2, 3, 4	6,51	1,03	6,33	5,82	7,24	7,94	0,77	1,08


5.16. Taula: MiniAtazen nabigazioetan detektatutako patroi problematikoak eta dagozkien zentroideak, 5.1 Ekuazioaren arabera desbideratutako ezaugarriak letra lodiz adieraziz.

5.6. eta 5.9. arteko Irudietan, gailu eta kluster bakoitzeko adibide bat grafikoki irudikatzen da, klusterrean detektatutako patroi gehienak bertan antzeman daitezkeelarik: teklatua 5.6. Irudian, joystick-a 5.7. Irudian, trackball-a 5.8. Irudian and sagua 5.9. Irudian. Jarraian, irudietan erabilitako ikurrak deskribatuko ditugu:


- Karratu handia: abiapuntua irudikatzen du.
- Karratu ertaina: kurtsorearen geldialdi bat adierazten du.
- Zirkunferentzia txikia: kurtsorearen posizioa adierazten du 10 ms bakoitzeko.
- Zirkunferentzia ertaina: korritzea non egin den erakusten du.

5.8. ARAZOEN DETEKZIO AUTOMATIKOA

- Gurutze ertaina: klik bat egin dela esan nahi du.
- Gurutze handia: helburuaren posizioa adierazten du.




5.6. Irudia: 7. klusterretik ateratako teklatuaren nabigazio problematiko baten adibidea, non norabide-zuzenketak (P3) eta gehiegizko geldialdiak (P7) bereziki antzeman daitezkeen.




5.7. Irudia: 12. klusterretik ateratako joystick-aren nabigazio problematiko baten adibidea, non gehiegizko denbora (P2) eta helburuaren inguruko zaitasunak (P5) bereziki nabarmenak diren.

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA



5.8. Irudia: 10. klusterretik ateratako trackball-aren nabigazio problematiko baten adibidea, non klik luzeak (P6) antzematen diren.



5.9. Irudia: 7. klusterretik ateratako saguaren nabigazio problematiko baten adibidea, distantzia handiegia erakusten duena (P1).

Patroi aurkikuntza BilaketaAtazetan

Kluster (j) baten batez besteko portaera dagokion gailuko nabigazio guztien portaera orokorrarekin konparatzeko, aldez aurretik ezaugarrien ($ezau$) balio guztiak gailu bakoitzeko normalizatu genituen (banaketa normala). 5.2 Ekua-zioan erakusten den bezala, kasu honetan, zentroide globalaren (BGZ_{ezau}^{gail}) desbideratze estandar bat ($1desbest_{ezau}^{gail}$) edo gehiago desbideratzen diren kluster zentroideak ($BZ_{j,ezau}^{gail}$) nabigazio-arazoak identifikatzeko baliagarriak bezala definitu genituen. BilaketaAtazen ezaugarrien batez bestekoen eta desbideratze estandarraren igoerak atalase berri hori justifikatzen dute, hemengo atazak aurreko kasuan baino konplexuagoak baitira.

$$BZ_{j,ezau}^{gail} \geq BGZ_{ezau}^{gail} + 1desbest_{ezau}^{gail}, gail \in \{Te, Jo, Tr, Sa\}, j \in \mathbb{N}, j \leq 4 \quad (5.2)$$

BilaketaAtazen datu-baseen tamainak kontuan hartuta (gailu bakoitzeko bat), k-means algoritmoarentzat (Lloyd 1982) honako baldintza betetzen duten k balioak frogatu genituen: $k \in \mathbb{N}$, $k \leq 12$. Gailu bakoitzerako partizio onenak ebaluatzeko zortzi kluster baliozkotasun indize (CVI) erabili genituen. Ondoren, CVI-ek lau gailuetarako hautatutako batez besteko k kalkulatuko genuen (3,72) eta k hurbilena ($k=4$) arazoen detekziorako erabili genuen, BilaketaAtazen lau datu-baseetan. Hautaketa CVI-en arabera egin bazen ere, bi kasuetan, kluster tamaina berdintsuko partizio multzo bat eskuratu zen. MiniAtazen nabigazio-tarako (zatituak $k=15$ erabiliz), kluster bakoitzeko batez beste, 25,9, 32,7, 6,5 eta 49,1 nabigazio eskuratu genituen (teklatua, joystick, trackball eta sagua, hurrenez hurren); BilaketaAtazen nabigazioen kasuan, berriz, antzeko kluster tamainak lortu ziren $k=4$ erabiliz: 19,0, 31,8 eta 50,5 (teklatua, joystick, trackball eta sagua, hurrenez hurren).


Desbideratutako klusterretan antzemandako patroiak, MiniAtazetan atzemandako oso antzekoak izan ziren (begiratu 5.8.1. Atala). Ezberdintasun bakarra HBMugiK ezaugarrian eman zen, zein BilaketaAtazetan inoiz ez zen desbideratu, testuinguru honetan 5. patroia (helburuaren inguruko zaitasunak) desagertu araziz. Hau ulergarria da, izan ere, MiniAtazetan erabiltzaileek helburu partikularrak lortu behar dituzten eta BilaketaAtazetan ordea, askatasunez erabakitzenean dute zer helburu lortu nahi dituzten, ariketa honetan zehatzagoak izan daitezkeelarik.

5.17. Taulan gailu bakoitzerako problematiko bezala identifikatutako kluster baten adibidea erakusten du. Taulak klusterren zentroideen desbideratze estandarra eta lotutako patroi problematikoak (Patroia zutabea) erakusten ditu, desbideratutako ezaugarriak letra lodiz markatuz (>1 desbest). Taulan, halaber, kluster barruko nabigazioen adibide bat erakusten duen irudi baten erreferentzia ere jasotzen da (Irudi zutabea).

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA


			Zentroidea: $BZ_{j,eau}^{gail}$							
Irudia	Tresna	Patroia	<i>KurDisOpR</i>	<i>KoAldBoR</i>	<i>KlikK</i>	<i>KoAldK</i>	<i>IgaroDenb (s)</i>	<i>GeldK</i>	<i>HBMugiK</i>	<i>KlikDenb (ms)</i>
5.10.	Teklatua	1, 2, 3, 7	0,20	0,30	1,07	1,27	1,47	1,55	0,61	0,51
5.11.	Joystick	2, 3, 4	0,75	-0,18	0,19	1,32	1,33	1,17	0,38	0,17
5.12.	Trackball	4, 6	-0,23	-0,13	1,56	0,21	0,49	0,91	0,22	1,49
5.13.	Sagua	2, 3, 4, 7	0,83	-0,04	1,18	2,11	1,39	1,96	0,44	0,19

5.17. Taula: BilaketaAtazen nabigazioetan detektatutako patroi problematikoak eta dagozkien zentroideak, 5.2 Ekuazioaren arabera desbideratutako ezaugarriak letra lodiz adieraziz.




5.10. Irudia: 3. klusterretik ateratako teklatuaren nabigazio problematiko baten adibidea, non gehiegizko distantzia (P1) erraz antzeman daitekeen.

5.8. ARAZOEN DETEKZIO AUTOMATIKOA




5.11. Irudia: 1. klusterretik ateratako joystick-aren nabigazio problematiko baten adibidea, non gehiegizko denbora (P2) eta norabide-zuzenketak (P3) oso hautemangarriak diren.



5.12. Irudia: 2. klusterretik ateratako trackball-aren nabigazio problematiko baten adibidea, non alferrikako klikak (P4) argi ikusten diren.

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA



5.13. Irudia: 4. klusterretik ateratako saguaren nabigazio problematiko baten adibidea, non gehiegizko geldialdiak (P7) erraz identifikatu daitezkeen.

5.8.2. Antzemandako patroien erabilera nabigazioa errazteko

Diseinatutako sistema nabigazio-arazoak denbora errealean detektatzeko era-bil daiteke. Erabiltzaile batek web plataforma batekin elkarreragiten duenean, RemoTest tresnaz bildutako datuetatik 25 ezaugarri erauzi daitezke. Ezaugarri horietatik 19 lehenengo fase batean erabiliko dira, erabilitako gailua automatiko-ki detektatzeko, 5.7. atalean deskribatutako ereduaren arabera. Gero, gailuaren eta atazaren arabera, partizio egokian hurbilen dagoen klusterra erabili daiteke (IBK edo k-NN klusterren zentroideei IBK edo k-NN aplikatuz) erabiltzaileak arazoak dituen ala ez jakiteko eta arazo mota zehazteko.

Detektatutako patroi problematikoen multzoak aplikazio praktikoak ditu. Patroi problematikoeik, erabiltzaileek izandako irisgarritasun-oztopoak deskribatzeaz gain, horiek saihesteko egokienak diren egokitzapen-teknikak definitzea ahalbidetzen dute. Helburu honekin, hurrengo paragrafoetan patroi problematikoen balizko zergatiak aztertuko dira, bideragarriak diren zenbait soluzio proposatuz.

1. Patroia (distantzia handiegia) eta 2. Patroia (denbora gehiegi) burutu-tako analisian aurkitutako beste patroi batzuen ondorio dira. Esaterako, patroi horiek lotura zuzena dute 5. Patroiarekin (helburuaren inguruko zailtasunak) eta ondorioz, erabiltzaileak nahi den helburua aukeratzeko distantzia eta den-bora handiagoa beharko du. Era berean, 3. Patroia (norabide-zuzenketak) erabilitako sarrera-gailuaren maneiaren nahiz erabiltzailearen ezaugarri espe-zifikoen ondorio izan daiteke. Adibidez, sarrera-gailu diskretuek (mugimendu

5.8. ARAZOEN DETEKZIO AUTOMATIKOA

mugatuak dituzten gailuak, teklatua kasu) aukera ematen diote erabiltzaileari kurtsorea norabide lehenetsietan bakarrik mugitzeko: horizontala H_i (non i , E edo M izan daitekeen), bertikala B_i (non i , I edo H izan daitekeen) eta diagonala D_i (non i , IE , HE , HM edo IM izan daitekeen). Helburuak zuzean angelu lehenetsi hauetako bat jarraituz lortu ezin direnean, erabiltzaileak helburua lortzeko ibilbidea zuzendu beharko du (angelu desberdinak hautatuz).

Kontrolik gabeko mugimenduak dituzten pertsonak, garuneko paralisia duten pertsonak kasu, zaitasunak izan ditzakete kurtsorea mugitzen duten bitartean eskuaren posizioari eusteko, kurtsorearen ibilbidean zuzenketak eraginez (3. Patroia) eta helburua hautatzean geldialdi gehiago eraginez (7. Patroia). Horretaz gain, helburuaren tamaina desegokia denean, kontrolik gabeko mugimenduak helburuaren hautaketa zaildu dezakete (5. Patroia). Kontrol falta horrek ere nahi gabeko mugimenduak eragin ditzake klik egiteko prozesuan zehar, kurtsorea helburutik urrunduz eta, ondorioz, "alferrikako klikak" sortuz (4. Patroia). Honekin batera, erabiltzaile hauek abian den ekintza gelditzeko zaitasunak badituzte ere, zaitasunak ere izan ditzakete joystick-aren, trackballaren edo saguaren botoiak sakatzeko, "klik luzeak" eraginez (6. Patroia). Egoera honek helburutik kanpoko klikak eragin ditzake (4. Patroia) edo kurtsorea klik egiten den bitartean mugitzea, klik gertaera ez aktibatzea ekarri.

Hainbat estrategia erabil daitezke erabiltzaileari helburuak eraginkorki hauztzea ahalbidetzeko. Esaterako, *bubble cursora* izeneko teknikak kurtsorearen hautaketa-eremua handitzen du, eskura dituen helburu hautagarrien kopuruaren arabera (Grossman et al. 2005). Irtenbide alternatibo bat kurtsorea erakartzen duen *magnetic* izeneko helburua izan daiteke (Park et al. 2006). Kasu horretan, kurtsorea helburu batetik gertu dagoenean, kurtsorea helburuaren erdigunera erakartzen da, aukeratzea errazteko. Beste egokitzapen posible bat *goal crossing* izenekoa da (Wobbrock et al. 2008), zeinek kurtsoreak zeharkatzen duenean helburua aktibatzen duen. Egokitzapen honi esker, klik egitea ez da beharrezkoa, beraz, errazagoa da helburu txikiak aukeratzea. *Cross cursor* izeneko teknikak pantaila zona desberdinan banatzen du zeharkako barra baten bidez, gurutze baten modukoa izanik. Barra horrek helburu bakoitzaren eremuaren koordenatuak adierazten ditu, helburu bakoitzari letra bat lehenetsiz eta erabiltzaileak helburu zehatz bat aukeratu dezake dagokion letra idatziz. Procedura horrek zuzenketa eta geldialdi kopurua murrizten du.

Badirudi *goal crossing* teknika egokia dela trackball erabiltzaileentzat, ez baitu maneiatzeko zehaztasunik eskatzen eta botoien erabilera minimizatzen baitu. Bestalde, joystick erabiltzaileek *magnetic* eta *bubble cursor* teknikei etekina atera diezaiekete, eta teklatuen erabiltzaileek, oro har, *cross cursor* teknika nahiago izaten dute, helburua aukeratzeko ahalegina murrizteko lagungarria den heinean. Beraz, 3., 4., 5., 7. patroien agerpena murrizten laguntzeko teknika egokiak hauta daitezke, erabilitako gailuaren arabera.

6. Patroiarekin lotutako arazoei dagokienez, hainbat teknika erabil daitezke. Adibidez, *click on down*, *click on up*, *steady click* edo *goal crossing*. *Click on down* izeneko teknika erabiliz, helburua aukeratzen da erabiltzaileak botoia sakatu bezain laster. Era berean, *click on up* izeneko teknikarekin helburua erabiltzaileak botoia askatzen duen unean aukeratzen da. *Steady click* teknikak

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA

ordea, klik gertaeran zehar kurtsorea "izoztu"egiten du, helburua aukeratzea ahalbidetuz erabiltzaileak kurtsorea helburutik urrunten badu ere (Trewin et al. 2006).

Erabiltzaile bakoitzarentzako teknikarik egokiena aukeratzeko, beharrezkoa da helburuak nola aukeratzen dituzten behatzea. Erabiltzaileak klikaren hasieran kurtsorea helburuaren gainean jartzeko eta klikaren bitartean kurtsorea mugiarazteko joera badu, *steady click* edo *click on down* teknikak erabil daitezke. Bestalde, erabiltzaileak klik egin bitartean kurtsorea mugitzeko eta klikaren bukaeran kurtsorea helburuan jartzeko joera badu, *click on up* teknika erabili liteke.

Patroi bakoitzak irisgarritasun-oztopoak saihesteko hainbat teknika lotuta dituen heinean, erabiltzaile jakin batentzat egokiena dena aukeratzea haren ezaugarri zehatzten araberakoa da. Teknika horietako batzuk erabiltzaileek eurek hauta ditzakete interfazeak aurrean dituztenean, baina detektatutako gailuaren eta arazoaren arabera, egokitzapen-sistemek eurek ere hauta ditzakete.

5.8.3. Laburpena

Gaur egun gaitasun digitalak duen garrantziaren ondorioz, funtsezkoa da desgaitasuna duten pertsonei gailu eta aplikazio digitalak erabilera ahalbidetzea, are gehiago, webgunearren elkarrekintza beren beharretara automatikoki egokitzeko gaitasuna izatea. Gaur egungo egokitzapen-sistema gehienak erabiltzaile profil lehenetsiei lotuta daude. Hala ere, erabiltzailearen ezaugarrien detekzio automatikoak egokitzapen-sistemak eraikitza ahalbidetzen du, hots, erabiltzailearen ezaugarrietara egokitzapen automatikoa eskaintza.

Kapitulu honetan, egokitzapen-sistemei ekarprena egin diogu, bi urratseko arkitektura duen sistema bat proposatuz, desgaitasun fisikoa duten erabiltzaileen web-nabigazioko arazoak detektatzen dituena (ikus 5.14. Irudia).

Lehen urratsa, ordenagailuarekin izandako elkarrekintzan erabilitako gailua (Joystick, HatzezTeklatu, AdarrezTeklatu, Trackball edo Sagua) automatikoki detektatzea da. Bigarren urratsean, ordenagailuarekin elkarrekintzan ari den bitartean erabiltzaileak izan ditzakeen arazoak detektatzen dira. Erabiltzen ari den gailua eta dauden arazoak ezagutzeak bide emango du egokitzapenik aproposena ezartzeko. Kapitulu honetan proposatutako sistema RemoTest plataformak bildutako web erabiltzailearen elkarrekintza datuetan eta datu hauetan aplikatutako datu meatzaritza prozesu oso batean oinarritzen da. Zehazki, ataza mota bakoitzerako bildutako elkarrekintza datuetan oinarrituz 25 ezaugarri kalkulatu genituen, gero, sistemaren bi urratsetan erabiliz. Lehen urratserako, sailkatzaile hierarkiko bat eraiki genuen, ezaugarri multzo onenarekin (19), lehenik bi gailu multzo nagusiak, eta, ondoren, multzo horietako bakoitzaren barruko gailuak bereizteko gai zena. Egokitzapenen ikuspegitik uste dugu eraikitako sailkatzailea eraginkorra dela, akats kritikoa, mugimendu mugatuak eta mugimendu askeak dituzten gailuak oker sailkatzean ematen dena, oso txikia baitzen, %0,74. Sistemaaren bigarren urratsean, ataza mota bakoitzerako eta gailu bakoitzerako, k-means clustering algoritmoa egikaritu zen. Ondoren, nabigazio patroi problematikoak izateko aukera handiak zituzten klusterrak automatikoki

5.8. ARAZOEN DETEKZIO AUTOMATIKOA


hautatu genituen, 11 ezaugarri esanguratsuen multzo baten desbideratze estandar jakin batean oinarrituz. Klusterretan bildutako nabigazioen azterketa bisualaren bidez, guztira, zazpi patroi problematiko antzeman genituen: (P1) distantzia handiegia, (P2) denbora gehiegi, (P3) norabide-zuzenketa, (P4) alferrikako klikak, (P5) helburuaren inguruko zailtasunak, (P6) klik luzeak eta (P7) geldialdi gehiegi. Ekarpen hau bukatzeko, detektatutako patroien atzean dauden kausa hipotetikoak eztabaidatu ditugu eta kasu batzuetan, patroi horien eta erabilitako gailuen arabera, egokitzapen-teknika aproposena iradokitzen dugu.

Mugak

Proposatutako sistemak, bere izaeragatik, muga batzuk ditu. Lehenik eta behin, sistema bezeroaren aldeko datuetan oinarrituta eraikia izan denez, erabiltzaile berriei sistema erabili ahal izateko, kurtsorerako laguntza birtualak implementatzen dituzten Firefox osagarriak beren ordenagailuetan instalatu beharko dituzte. Bezeroaren aldeko datuak erabiltzean gainera, datuak kontrolatutako esperimentuetan bildu behar diren heinean, sistema eraikitzeko erabil litekeen datu kopurua mugatu egiten da.

Azkenik, gure sistema erabilitako gailua eta erabiltzaileek dituzten arazoak detektatzeko gai izanik ere, eta egokitzapen egokiak iradokitzen baditugu ere, egokitzapen hauek oraino ez dira aktibatu.

5. KAPITULUA - IRISGARRITASUNA



5.14. Irudia: Diseinatutako sistemaren deskribapena.

6. Kapitulua

Web-plataforma espezifikoen elkarrekintzaren modelatzea

6.1. Sarrera

Osasun arloko profesionalen erantzukizuna (familiako medikuena bereziki) orain arte paziente bakoitzeko rol erreaktibo batetara mugatzen zena, populazioaren osasunaren administratzaile rol proaktiboa bihurtzen ari da. Eraldaketa honek datuen populazio-mailako ikuspegia eskaintzen duten osasun-datuak eta informazio-tresnak erabilgarri egotea izatea eskatzen du, esku-hartzea behar duten paziente individualak identifikazioa ahalbidetzen dutelako. On-dorioz, arbela-medikoen erabilera garrantzitsuago bilakatzen ari da osasun-laguntza hobetza helburu duen datu horien erabileran. Datu klinikoak egun eskuragarritasun-premisa asetzeko aski aberatsak badira ere, aldi berean, bi aho-ko arma bihurtzen dira informazio-gainkarga duten arbela-medikoetan. Gainera, medikuek dituzten esperientzia kliniko praktikoak eta arazoak konpontzeko gaitasunak oso anitzak dira, eta beren Informazio Teknologietako gaitasunetan ere oso aldakorrak dira. Injurune klinikoan informazio-dentsitatea azkar handitzen ari da, arbela-medikoen rola ordea, oraindik hastapenetan dago. Testuinguru honetan beraz, berebizikoa da egokitzapen sistema adimendunak eraikitzea, medikuen beharrak asetuko dituztenak eta osasun biztanleriaren administrazio proaktiborako trantsizioan lagunduko dutenak.

Arbela-medikoek biztanleriari buruzko datuak erakusten dituzte, eta komunitateen osasuna kontrolatzeko eta medikuei erabakiak hartzeko jardueretan laguntzeko erabiltzen dira (Dowding et al. 2015). Lan batzuk arbelen ikusmen-izaeraren onurak nabamentzen dituzte, diabetes-laguntzarako esku-hartze arrakastatsuak (Dagliati et al. 2018) eta elkarrekintza farmakologikoek eragindako alerten kudeaketa (Simpao et al. 2014) barne. Normalean, arbela-medikoek taula-formako datuak erakusten dituzte, eta erabiltzaileen pertzepzioak eta ezagutzak (kognizioak) baldintza ditzaketen irudiak, grafikoak, zenbakizko informazioa eta testuala jasotzen dituzte. Arbelek informazio-gainkarga arintzen lagun

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

badezakete ere, paradoxikoki, arazo hau ere sortu dezakete, informazioaz eta trepetez (*widget-ez*) jositako pantaila erakutsiz; fenomeno hau "arbelen ekaitza" gisa ere ezagutzen da (Kalra et al. 2016).

Informazio-gainkarga eta erabilgarritasun maila eskasa arazo ezagunak dira osasun-erregistro elektronikoen sistentzat (*EHR*) (Middleton et al. 2013; Ratwani et al. 2015). Arazo honi aurre egiteko, ingurune kliniko zehatzekiko sentikorrik diren erabilgarritasun-arauak eta dagozkien ohiko zereginak helburu orokorreko arauetatik eratorri dira (Kushniruk et al. 2004; Zhang et al. 2011). Halaber, antzeko erabilgarritasun-arauak formulatu dira arbel-medikoetarako (Brown et al. 2016). Erabilgarritasun-arauen implementazioak erabilgarritasun-arazo nabarmenetako eta kritikoenei aurre egin diezaiekeen arren, erabiltzaileak oraindik ere pantailako informazio kopuruak gainezkatuta sentitzen dira.

Honen aurrean, erabiltzaile-interfazeentzak ezaugarri pertsonalizatuak eta moldagarriak implementatzeari iradoki dute zenbait autorek, helburu desberdinak: ikuskaritza eta feedback esku-hartzeen konplexutasuna arintzea (Landis-Lewis et al. 2015); informazio-gainkargari heltzea erregistro mediko elektronikoetan (Zahabi et al. 2015); eta erabakiak hartzeko tresna klinikoen eraginkortasuna hobetzea (Brehaut et al. 2016). Arbel medikoen kasuan hau ez da lan erraza, izan ere, erabiltzaile-interfazea erabiltzailearen beharretara egokitzeko behar horiek erauzteaz gain, bere trebetasunak eta esperientzia ere kontuan hartza eskatzen du (Dowding et al. 2017). Oraindik ere, egokitzapenen berri emango duten erabiltzaileen trebetasunak eta esperientzia (adib. gaitasuna) detektatzeari bereziki zaila da, ezagutza eskuratzea aldakorra delako. Honek iradokitzentzak du erabiltzaileen trebetasun eta esperientziara egokitzen diren sistemek gaitasunak automatikoki eta modu diskretuan arakatu beharko lituzketela.

Testuinguru honetan, lehenengo ekapenean, ikerketako galdera honi heldu diogu: zehaztu al dezakegu erabiltzaileen portaera bisuala haien erakutsitako portaera interaktiboan oinarrituz? Ikerketaren batek begiradaren (interesaren adierazle ona da (Ehmke et al. 2007)) eta erabiltzaileen portaera interaktiboaren arteko erlazioa aztertu du, sagua eta begirada oso erlazionatuta daudela ondorioztatuz: zonalde espezifikoetan egondako denbora tarteak eskualde hori saguarekin bisitzeko probabilitatearekin korrelatuta daude (Chen et al. 2001). Bilatzaileen emaitza orriei zuzendutako begirada iragartzeko ereduetan (SERP-ak), saguaren koordenatuak, abiadura eta norabidea, eta emaitzak ikusten hasten direnetik igarotako denbora erabiltzean %77-ko zehaztasun-tasa lortu izan da (Huang et al. 2012). Hala ere, webguneetan eta SERP-eten ez bezala, arbeila medikoeitan lauki-diseinua, non datuak taula moduan erakusten diren, mugabat da eta erakutsi ahal diren portaeren aniztasuna mugatu egiten du.

Bestalde, bigarren ekarpen bat egin dugu botiken segurtasunerako esku-hartze baten bi erabiltzaile multzoen gaitasun proxy-ak kalkulatzelako: esku-hartzea zuzendu zuen farmazialari talde batena (lehen mailako erabiltzaileak) eta gutxiago parte hartu zuten ez-farmazialari talde batena (bigarren mailako erabiltzaileak).

Bi analisiak Salford Botiken Segurtasun Arbelean, *Salford Medication Safety Dashboard* (SMASH), egin ziren. Zehazki, lehen mailako arretan sendagaiak modu seguruan preskribatzeko farmazialariek zuzendutako informazioaren teknolo-

6.2. TESTUINGURUA: SMASH ESKU-HARTZEA

logiako esku-hartze batean, erabiltzaileen elkarrekintza datuak bildu genituen. Aurrerago, 6.2. atalean, SMASH esku-hartze honen helburua eta funtzionalitateak azalduko ditugu. Batetik, laborategian sei familiako medikuekin egindako erabiltzaile-azterketa batean bildutako begiradaren eta elkarrekintzaren datuak erabili genituen eta bestetik, SMASH-en 35 klinikoeikin egindako 10 hilabeteko behaketa-azterketa batean gordetako elkarrekintza datuak.

Lehen ekarpenean, batetik, gainbegiratu gabeko ikasketa prozedurak erabili, laborategiko erabiltzaile-azterketako parte-hartzialeak klusterretan taldekatu genituen antzemandako portaera interaktiboaren arabera. Bestetik, inferentziazko estatistikak erabiliz, parte-hartzaleen portaera interaktibo eta bisualen arteko erlazioak azertu genituen. Gero, clustering analisi bera aplikatu genien elkarrekintza-datuei, behaketa-azterketako 35 klinikoen elkarrekintza ere aintzat hartuz. Horren helburua, laborategiko aurkikuntzak begi-arakatzailerik (*eye-tracking*) erabili ez den ingurune batera modu fidagarrian estrapolatu ote zitezkeen aztertzea zen. Bigarren ekarpenean, behaketa-azterketaren elkarrekintzadatuetan gainbegiratutako ikasketa-teknikak erabiliz, esku-hartzearen bi erabiltzaile talde nagusien portaera interaktiboak ezaugarritu eta automatikoki bereizi ahal izan genituen: esku-hartzea zuzentzen ari ziren lehen mailako erabiltzaileena eta arbela preskripzio-praktika seguruetan parte hartzeko erabiltzen ari ziren bigarren mailako erabiltzaileena.

6.2. Testuingurua: SMASH Esku-hartzea

SMASH esku-hartzearen helburua da zehaztea ea farmazialariek zuzendutako esku-hartze konplexu bat bideratzeak murritzu egiten duen arriskutsuak izan daitezkeen preskripzioen eta botikak monitorizatzeko praktiken eragina Salfordeko lehen mailako arretan, Erresuma Batuan (Williams et al. 2018). SMASH arbela 2016an bideratu zen, eta arriskutsuak izan daitezkeen preskripzio-tasen eraginaren ebaluazio kuantitatiboa abian da, emaitzak 2019an espero direlarik. Era berean, SMASH esku-hartzearen prozesu kualitatiboaren aldibereko ebaluazioa argitaratu da (Jeffries et al. 2018).

SMASH esku-hartzeak bi osagai nagusi ditu. Lehena, webean oinarritutako arbela interaktibo bat da, praktika orokorretan arriskutsuak izan daitezkeen preskripzioen eraginpean dauden pazienteak nabamentzen dituena. Bigarren osagaia farmazialariei zuzendutako laguntza klinikoa bat da, praktikako langileekin lankidetza erabiltzen duena preskripzio-kasu arriskutsuak ebazteko eta errorearen kausaren erroko analisia (*Root Cause Analysis RCA*) bidez etorkizunean halakorik gertatzea ekiditen duena. SMASH esku-hartzeak informazioaren teknologian oinarritutako esku-hartze entseguaren (PINCER) antzekoa da (Avery et al. 2012), baina arbela interaktiboaren erabilera berria da.

SMASH arbela funsezko interes-talde batekin batera diseinatu zen (Keers et al. 2015) eta 13 preskripzio-segurtasuneko adierazlez osatutako multzo berdefinitu bat erabiltzen du. Adierazle hauek aldez aurretik erabili izan dira arriskutsuak izan daitezkeen preskripzioen tasak neurtzeko eta sendagaiak monitorizatzeko (Akbarov et al. 2015; Stocks et al. 2015). Esate baterako, arbelak ultzera


6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

peptikoaren aurrekariak dituzten paziente guztiak identifikatzen ditu, esteroidea ez den botika antiinflamatorio bat errezetatu zaienak (adibidez, ibuprofenoa), sendagai gastrobabesleen errezeta medikoa aldi berean preskribitu gabe. Horrek pazienteak hesteetako hemorragia gastroenteritisaren arriskupean jartzen ditu, heriotza-tasa altuak dituen gertaera kaltegarri garrantzitsu bat. Arbelak laburpen-estatistika erakusten du adierazle bakoitzerako, praktika jakin batean une horretan arriskuan dauden pazienteak zenbatuz, eta zenbaki horiek aurreko gertakariekin eta beste praktika batzuekin erlazionatuz. Horretaz gain, farmazialariek eta familiako medikuek (FM) une horretan adierazle bakoitzerako arriskuan dauden pazienteak ikus ditzakete. Arabela Salforden erabiltzen da, Manchester Handiaren zabalgunean dagoen hiri batean, 270.000 biztanle hartzen dituena, zeinari lehen mailako arreta eskaintzen zaion, bigarren mailako arretaren erregistroekin ere lotura osagarria duena.

6.1. Irudian erakusten den bezala, SMASH-en erabiltzaile-interfazea zazpi pantaila edo ikuspegitan banatzen da: (a) S_1 : praktika jakin baten taula-formako laburpen bat duen hasierako orri bat, praktikaren tamaina eta adierazle batek baino gehiagok eragindako pazienteen kopurua barne. (b) S_2 : taula-formako pantaila non adierazleek eragindako pazienteen kopurua erakusten den, euren larritasuna, paziente hautagarrien kopurua eta eragindako pazienteen ehu-nekoa erakusten den. Adierazleak botiken eta baldintzen (adibidez, giltzurru-netako gaixotasun kronikoa) arteko kontraindikazioak izan daitezke edo botika, ohitura eta datu demografikoak. (c) S_3 : adierazleek denbora-serie gisa duten eragina erakusten duten grafikoetan oinarritutako bistaratzeak. S_2 taula-ikuspegian arriskuan dauden pazienteen kopurua sakatzean, (d) S_4 pantailara sartzen gara, non adierazle jakin baterako arriskuan dauden pazienteen zerrenda bat erakusten den. (e) S_1 laburpen-orrian dagoen "adierazle batek baino gehiagok eragindako pazienteak" estekan klik egitean aldiz (f) S_5 pantailara iristen gara, zein S_4 ikuspegijaren antzekoa den baina adierazle batek baino gehiagok eragindako paziente horiek bakarrik erakusten dituen. S_6 pantailak adierazle jakin baten joerak erakusten ditu denboran zehar eta (g) S_7 ikuspegiak aldiz, adierazle jakin bat arriskutsua izateko zergatia argitzen duen literatura medi-koari buruzko informazioa eta pistak biltzen ditu.


SMASH arbelak erabiltzaileek sortutako erabiltzaile-interfazeko gertaerak erregistratzen ditu, zerbitzariko datu-base batean. SMASH saguak bideratutako aplikazioa denez, bildutako gertaera gehienak sagu-pausatzeak (*mouse hovers*) eta klikak dira. Erregistratutako hirugarren gertaera orrialdea kargatzeko gertaera da, erabiltzailea beste pantaila batera nabigatzen ari dela adierazten duena (adib., S_2 taula-pantailatik S_3 bistaratze-pantailara). Gertaera horrek ala ere, ez du zertain URL-a eguneraketa ekartzen eta 'Hautaketa-menuan' klik eginez aktibatzen da. Gertaera bakoitzerako, SMASH-ek honako ezaugarriak gordetzen ditu: erabiltzailearen eta saioaren identifikatzaileak (ID-ak) hots, erabiltzaile batek saioa hasten duen bakoitzean, saio berri bat ezartzen da; denbora-marka eta gertaeraren kokalekua, hau da, URL-a eta erabiltzaile-interfazeko elementu espezifikoak (XPath motako adierazle baten bidez lortzen dena).

6.2. TESTUINGURUA: SMASH ESKU-HARTZEA




(a) S_1 : pantaila orokorra

(b) S_2 : taula-ikuspegia



(c) S_3 : bistaratzeak

(d) S_4/S_5 : arriskuan dauden pazienteak/adierazle bat baino gehiagok eragindakoak



(e) S_6 : joerak

(f) S_7 : adierazleen informazioa

6.1. Irudia: SMASH arbelaren pantailak: (a) S_1 : praktikaren laburpena, (b) S_2 : segurtasun adierazleen taula-ikuspegia; (c) S_3 : segurtasun adierazleen bistaratzea; (d) S_4/S_5 : arriskuan dauden pazienteen zerrenda; (e) S_6 : adierazleen joerak eta (f) S_7 : segurtasun adierazle bat arriskutsutzat jotzeko dauden frogak erakusten dituen pantaila.

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

6.3. Erabiltzaile-azterketak eta metrikak

Arestian aipatu bezala, gure ekarpenetan bi erabiltzaile-azterketetatik (laborategikoak eta behaketakoak) eratorritako begirada eta elkarrekintza datuak erabiltzen ditugu. Atal hobetan erabiltzaile-azterketa hauek eta begirada nahiz elkarrekintza deskribatzeko definitutako metrikak azalduko ditugu.

6.3.1. Laborategiko azterketa

Jarraian deskribatuko den moduan, lehenengo ekarpenean, batetik, laborategiko azterketako parte-hartzaileen begirada-datuak eta elkarrekintza-datuak aztertu genituen, begi-arakatzale batek (*eye tracker*) eta SMASH-ek bildutakoak hurrenez hurren. Bestetik, behaketa-azterketako parte-hartzaileen elkarrekintza-datuak ere aztertu genituen.

Laborategiko azterketan sei erabiltzailek (lau gizon) parte hartu zuten, bost familiako mediku (FM) eta farmazialari bat (FA), batez besteko adina 38 urtekoa izanik (desbest = 10 eta adin-tartea = 30-56). Laborategiko azterketan, Tobi X2-60 begi-arakatzalea erabili zen begiradaren informazioa erregistratzeko, zehazki, pantailan begirada finkatzeko koordenatuak, finkapenen eta mugimendu sakadikoen (begiak finkapenen artean egindako mugimenduak) iraupenak.

Azterketa horretan, bederatzi ataza osatzeko eskatu zitzaien parte-hartzaileei, hiru multzotan banatutakoak: a) Arriskuan dauden pazienteen identifikazioa: adb., "Zerrendatu X adierazlearentzat arriskuan dauden hiru gaixo"; b) Praktikan izandako arazoen identifikazioa eta denboran zehar izan duten bilakaera: adb., "Identifikatu paziente kaltetu gehien dituzten hiru adierazleak"; c) Praktiken arteko arazoen komparazioa: adb., 'Identifikatu hiru adierazle zeintuetan zure praktikak besteak baino jokaera okerragoa duen'.

Laborategiko azterketaren diseinuan SMASH-en erabiltzaile-interfazearen bederatzi Intereseko Eremu nagusiak (IE) kontuan hartu ziren (ikus irudia 6.3.). Eremu hauek, hurrengo paragrafoetan deskribatuko dugun moduan, aurreko azterketa pilotu batean antzemendako begirada-patroietan oinarrituz definitu ziren.


Azterketa pilotua

Azterketa pilotuan, batez beste 39 urte zituzten (desbest = 13,5 eta adin-tartea = 27-62) bost erabiltzailek (3 emakume) parte hartu zuten. Guztiak informatikan adituak ziren eta botiken segurtasun-arbelen domeinua eta terminologia ezagutzen zuten. Horietako bi Ikerketako Erabiltzaileen Taldeko kideak ziren, maiz osasun elektronikoko azterketetan parte hartzen duten erabiltzaile talde bat. Gainerako hiruretatik bat erizaintzako graduatura zen, beste bat erizaintzako doktoretza egiten ari zen, eta azkena mikrobiologoa zen. Azterketa honetan, parte-hartzaileei laborategiko azterketan deskribatu berri diren bederatzi ataza betetzeko eskatu zitzaien.

Azterketa pilotuaren bero-mapen analisi kualitatibo batetik ondorio interesgarriak atera ziren: arbelako bilaketa bisualaren estrategiek patroi zehatzak

6.3. ERABILTZAILE-AZTERKETAK ETA METRIKAK

jarraitzen zituzten. 6.2. Irudiak SMASH-en pantaila desberdinetan sortutako bero-mapen patroien adibide batzuk erakusten ditu.



6.2. Irudia: Azterketa pilotuan sortutako bero mapen patroiak (eskui-nean) SMASH-eko taula-ikuspegian (goian, ezkerrean) eta bistaratze-pantailan (behean, ezkerrean).

6.2. Irudian (goian, eskuinaldean) antzematen den C formako portaera, erabiltzaileek datuen goiburuarri, ezkerreko adierazleen zerrendari eta adierazle jakin bat dagozkion balioei errepasatzen dietela iradokitzen du. Bestalde, 6.2. Irudian (behean, eskuinaldean) margo tanten gisako patroiak (behean, eskuinaldean) adierazten du erabiltzaileek goiburuko eta goiko parteko ilarei errepasatzen dietela eta bilaketa bisuala zutabe gutxi batuetara mugatuta dagoela. Erabiltzaile batzuk goiburu batean klik egitean adierazleak dagokion zutabearen/aldagaiaren balioen arabera antolatzentz direla jakin izanak estrategia hau azaldu lezake. Izan ere, era horretan, zeregin asko osatu eta esplorazio bisualen kopurua murriztea lortzen zuten. Arbelako osagaien arteko mugak argiak badira ere, zaila da IE-ak taula-formako inguru batean definitzea.

Antzemandako begirada-patroiek eta erabiltzaile-interfazeen dauden elementuen mugetan oinarrituz bederatzi Intereseko Eremu (IE) diseinatu ziren: (1) fitxategien menua, (2) hautaketa-menua, (3) ezkerreko menua, (4) praktikaren laburpena, (5) datuen goiburua, (6) adierazleak, (7) datuen taula, (8) grafikoa (datu-bistaratzea) eta (9) menu zabalarria (klik egin ostean zabaltzen den edozein menu zabalarri). 6.3. Irudian ikus daitekeenez, emaitzek iradokitzeten dute segurtasun-adierazleak erakusten dituen zutabeak, taularen goiburua eta gainerako ilarek interes independenteko eremuak osatu beharko lituzketela.

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

The screenshot shows a software interface for 'Patient Safety' with a 'File menu' at the top right. On the left is a 'Left menu' with 'Perspectives' (Single Practice, All Practices, User Forum), 'Selection menu' (Report date: 1 June 2015, Comparison date: 30 May 2015, Sort by: Affected patients), and 'Data header' (Indicator, Severity, Affected patients, Eligible patients, % of eligible patients affected, CCG Avg (%), Successful intervention, Action pending). The main area is a 'Data table' titled 'Indicators' with rows for various medical conditions and their severity levels (Mild, Moderate, Severe) across different categories like Age, CHC, and ICS.

Indicator	Severity	Affected patients	Eligible patients	% of eligible patients affected	CCG Avg (%)	Successful intervention	Action pending	Data header
Age<75 and no UME	Mild	20	665	3.01	3.98	0	20	0 0 □
Age>75 ACE/LOOP no UME	Mild	12	186	6.45	4.80	0	12	0 0 □
WARF and no INR	Moderate	7	63	11.11	9.12	0	7	0 0 □
♀ smoker age<35 and CHC	Moderate	4	367	1.09	0.99	0	4	0 0 □
GIB/PU no GP and NSAID	Mild	3	53	5.66	4.67	0	3	0 0 □
LABA and no ICS	Moderate	3	111	2.70	1.73	0	3	0 0 □
WARF no GP and NSAID	Severe	3	69	4.35	5.03	0	3	0 0 □
HF and NSAID	Moderate	2	71	2.82	2.71	0	2	0 0 □
CKD(ACE) and NSAID	Mild	2	8	25.00	20.88	0	2	0 0 □
WARF no GP and ASP	Severe	2	36	5.56	8.58	0	2	0 0 □
AMIOD and no thyroid test	Mild	2	5	40.00	27.34	0	2	0 0 □
GIB/PU no GP and ASP/CLOP	Moderate	2	54	3.70	9.69	0	2	0 0 □
♀ thrombosis and CHC	Mild	1	254	0.39	0.11	0	1	0 0 □
CKD and NSAID	Moderate	1	89	1.12	2.62	0	1	0 0 □
Age>65 no GP and NSAID	Mild	1	4	25.00	12.26	0	1	0 0 □
HF and GLITAZONE	Moderate	1	70	1.43	1.66	0	1	0 0 □
♀ BMI > 40 and CHC	Severe	1	94	1.06	2.48	0	0	0 0 □

6.3. Irudia: SMASH arbelean definitutako sei interes eremu (IE), bederatzi posibletatik; gainerako hiru IE-ak laster-leihoei (9) eta grafikoei (8) dagozkie.

6.3.2. Behaketa-azterketa

35 parte-hartzailek, 10 farmazialarik eta 25 ez-farmazialarik, 10 hilabetez egin zen behaketa-azterketan parte hartu zuten, SMASH arbelak erabiltzailearen elkarrekintza-datuak bildu zituelarik. Azterketa horretan, parte-hartzaileei ez zitzaien ataza zehatzik esleitu, arbela xede zuen helbururako erabili baitzen: arriskuan zeuden pazienteak identifikatzeko eta preskripzio-jardunbide egokiak sustatzeko. Parte-hartzaileek azterketa honetan burututako atazak balio eko-logiko handiagokoak izatea espero genuen, laborategiko azterketan esleitutako atazekin alderatuz.

Farmazialarien taldeak, lehen mailako erabiltzaileenak, esku-hartzea zuendu zuen eta 2-3 orduko entrenamendu egituratu presentziala jaso zuen, PINCER entseguaren entrenamendu-printzipioetan oinarrituta (Sadler et al. 2014), honako hauek biltzen dituena: SMASH proiektuaren aurrekariak eta justifikazioa azaltzen dituen mintegi interaktibo bat, SMASH arbelaren bisita gidatu bat eta arazoen kausaren erroko analisia (*Root Cause Analysis* RCA). Farmazialari ez ziren taldean, bigarren mailako erabiltzaileenean, honako parte-hartzaileak zeuden: Batzorde Klinikoko Taldeko (BKT) zortzi kide, familiako zortzi familiako mediku (FM), bost administratzaile eta beste lau, erizainak eta farmaziako teknikariak barne. Lehen mailako erabiltzaileek bigarren mailako erabiltzaile hauek entrenatu zituzten, antzeko procedurei jarraituz.

Esku-hartzearen ebaluazio kualitatiboan, lehen mailako erabiltzaileek adie-

6.3. ERABILTZAILE-AZTERKETAK ETA METRIKAK

razi zuten arbelak balioa gehitzen ziola beren lanari; bigarren mailako erabiltzai-leek, berriz, nolabaiteko erresistentzia agertu zuten arbelarekin konprometitze-ko, batzuek tresna hau lehen mailako erabiltzaileen jabetzakoa zela sumatzen baitzuten. Jarrera horien ondorioz, lehen mailako erabiltzaileen konpromisoa esku-hartzean bere lankideena baino handiagoa izan zen (Jeffries et al. 2018). Hori garrantzitsua da, izan ere, lantokiekiko konpromisoari buruzko literaturak iradokitzen du konprometituta dauden pertsonak trebeagoak direla eta hobeto moldatzen direla (Rich et al. 2010; Christian et al. 2011). Aurkikuntza hau hainbat ingurunetan baiezatu da, baita osasun-laguntzan ere (Laschinger et al. 2009).

Beraz, azterketa honen helburu nagusia, gure bigarren ekarpenean ikertu ge-nuena, portaera interaktiboak modelatzeko gai ote ginen aztertzea zen, SMASH esku-hartzearen ebaluazio kualitatiboa konpromiso maila desberdinak erakutsi situtzen arbela elektronikoaren bi erabiltzaile taldeen trebetasunari dagokionez. Horri esker, SMASH arbela nola erabiltzen den aztertu ahal izango genuke eta portaera interaktibo bereizgarriak identifikatu ahal izango genituzke, eta horrek arbela medikoen inguruan oro har dugun ulermenaren berri nola ematen duen ezagutu (Dowding et al. 2015).

6.3.3. Kalkulatutako metrikak

Begiradaren metrika

Zehazki, 6.1 Ekuazioan erakusten den bezala, laborategiko azterketaren begira-daren (B) jarduera kalkulatzeko, azterketa pilotuan definitutako bederatzi Inte-reseko Eremuetan (IE_j) begi-arakatzaileak bildutako batez besteko begiradaren finkapen-iraupenaren ezaugarria (aurrerantzean fi) erabili zen:

$$B = fi_{IE_j}, j \in \mathbb{N}, j \leq 9 \quad (6.1)$$

Jakin badakigu finkapen-iraupena karga kognitiboaren proxy bat dela (Ehm-ke et al. 2007); beraz, gure premisa da, SMASH arbelako portaera bisuala eta interaktiboa lotu nahi baditugu, karga kognitiboa parte-hartzaileak deskriba-tzeko adierazle egoki bat izan daitekeela.

Elkarrekintza-metrikak

SMASH-ek bildutako log fitxategien informazioan oinarrituz (erabiltzaile eta saioaren ID-ak, gertaerak, denbora-markak eta URL-ak), esplorazio eta denbo-ra tarteak adierazteko ezaugarriak kalkulatu genituen bi azterketetarako (la-borategikoa eta behaketakoa). Bi funtzioetan, klik gertaerak erreferentzia gisa erabiltzen dira, jakinda klik batek uneko pantaila eguneratzen duela informazioa iragaziz edo arbeleko beste pantaila batera eramatzen duela.

- **Esplorazioa (e):** Saguaren ondoz ondoko bi kliken arteko sagu-pausatze kopuruaren mediana. Izan ere, saguaren kokapena pantailan begiradaren

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

kokapenaren proxy bat denez (Guo et al. 2010), esplorazio bisuala kuantifikatzeko erabil daiteke. Esplorazio balio altuek bilaketa bisualen jarduera gehiago iradokitzenten dituzte.

- **Denbora tartea (d):** Saguaren ondoz ondoko bi kliketan igarotako denbora tartearen mediana. Izan ere, pantaila batean egondako denbora, erabiltzaileek informazioa prozesatzeko eta arazoak konpontzeko eraginkortasunaren adierazlea da. Ikerketa baten arabera, informazioa bilatzeko atazetan, denbora luzeenak gaitasun kognitibo txikiagoarekin lotzen dira (Chin et al. 2009). Denbora tarte laburrago batek atazak burutzeko eraginkortasun handiagoa adierazten du.

Ezaugarri hauek erabiliz, bi elkarrekintza-metrika (bektoreak) sortu genituen parte-hartzaile bakoitzeko, pantaila guztietan egindako elkarrekintza globala (irudikapen globala $V1$) edo pantaila bakoitzean egindako elkarrekintza kontuan hartuta (pantailen irudikapena $V2$).

6.2 Ekuazioan definitutako lehen metrikak ($V1$), erabiltzailearen elkarrekintza deskribatzen du SMASH arbelean eskuragarri dauden pantaila guztietan, eta bi ezaugarriko bektore gisa kalkulatzen da, esplorazio globala (e) eta denbora tartea (d).

$$V1 = (e, d) \quad (6.2)$$

6.3 Ekuazioan definitutako bigarren metrikak $V2$, aurreko ezaugarriak kontuan hartzen ditu (e_{S_i}, d_{S_i}) SMASH arbeleko zazpi pantailatako bakoitzean ($S_i, i \in \mathbb{N}, i \leq 7$) eta partaide bakoitzeko 14 ezaugarrietako bektore gisa irudikatzen da.

$$V2 = (e_{S_i}, d_{S_i}), i \in \mathbb{N}, i \leq 7 \quad (6.3)$$

6.4. ELKARREKINTZA DATUETATIK PORTAERA BISUALA INFERITZEA

6.4. Elkarrekintza datuetatik portaera bisuala inferitzea

6.4.1. Datu-baseen deskribapena.

Atal honetan, lehen ekarpen honetan, bi azterketetan kalkulatutako metrikekin eraikitako hiru datu-baseak deskribatuko ditugu: bat laborategiko azterketako begiradako datuak erabiltzen dituena, eta beste bi laborategiko nahiz behaketa azterketetako elkarrekintza-datuak erabiltzen dituztenak.

Begiradaren datu-basea: laborategiko azterketa

Zehazki, laborategiko azterketako sei partaideetako bakoitzarentzat, 6.1 ekua-zioan deskribatutako begiradaren (B) jarduera kalkulatzen dugu, finkapenen batez besteko iraupena neurten duena (segundoak), f_{IE_j} , definitutako bederatzi interes-eremuetako bakoitzean ($IE_j, j \in \mathbb{N}, j \leq 9$). 6.1. taulak B -ren balioak erakusten ditu laborategiko parte-hartzaile guztientzat.

Elkarrekintza datu-baseak: laborategiko eta behaketa-azterketak

Bestalde, laborategiko parte-hartzaileentzat bi elkarrekintza-metrika kalkulatzen ditugu, $V1$ eta $V2$, modu globalean eta pantailan banatuta ($S_i, i \in \mathbb{N}, i \leq 7$) kalkulatutako honako ezaugarrietan oinarrituz: esplorazioak eta (e/e_{S_i}) eta denbora tartea (d/d_{S_i}), (ikus 6.2 eta 6.3 Ekuazioak). 6.2. Taulak $V1$ eta $V2$ metriken balioak erakusten ditu laborategiko parte-hartzaile guztientzat.

Part	M	Ezaugarria	Intereseko Eremuak (IE_j)								
			j=1	j=2	j=3	j=4	j=5	j=6	j=7	j=8	j=9
P1	B	f_{IE_j}	0,0	173,3	241,9	167,0	254,5	240,1	168,1	164,3	140,6
P2	B	f_{IE_j}	230,2	223	213,2	158,5	200,8	222,9	228	207,2	148,5
P3	B	f_{IE_j}	212,9	220,5	268,7	295,0	294,0	248,2	244,7	263,2	235,5
P4	B	f_{IE_j}	223,2	250	299,3	289,4	260,4	234,5	275,4	203,1	79,0
P5	B	f_{IE_j}	201,6	151,4	201,2	189,0	264,8	163,0	243,3	278,9	91,5
P6	B	f_{IE_j}	193,5	173,4	248,8	0,0	254,9	204,2	151,2	176,1	157,5

6.1. Taula: Begira-jardueraren (B) metriken (M) balioak laborategiko parte-hartzaileentzat (Part), batez besteko finkapen-iraupenean oinarrituz kalkulatuta (segundoak) IE bakoitzean (f_{IE_j}).

Azkenik, $V1$ eta $V2$ behaketa-azterketako 35 parte-hartzaileentzat kalkulatu genituen, SMASH-en egin zuten elkarrekintza guztia aintzat hartuz, hau da, erabiltzailearen irudikapenean oinarrituz. 6.5. atalean, metrika horien batez besteko balioak zehazten ditugu bi parte-hartzaileen talde nagusientzat, lehen mailako erabiltzaileentzat eta bigarren mailakoentzat. Kasu honetan, datu-base bat sortu genuen bi azterketetako 41 parte-hartzaileen interakzio-datuekin ($V1$

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

eta $V2$): laborategiko azterketako sei eta behaketa-azterketako 35 (erabiltzaile-ikuspuntu).

		Part. Metrika Ezaugarria Globala Pantailak (S_i)							
			i=1	i=2	i=3	i=4	i=5	i=6	i=7
P1	$V1$	e		4,00					
		d		4,28					
	$V2$	e_{S_i}		3,00	4,00	3,00	6,00	0,00	4,00
		d_{S_i}		3,90	6,50	3,75	6,95	0,00	2,80
P2	$V1$	e		5,00					
		d		6,54					
	$V2$	e_{S_i}		5,50	5,00	3,00	4,00	0,00	3,00
		d_{S_i}		6,03	9,23	2,99	3,35	0,00	1,22
P3	$V1$	e		4,00					
		d		3,22					
	$V2$	e_{S_i}		3,50	4,00	3,00	3,50	0,00	3,00
		d_{S_i}		2,37	4,49	4,88	3,01	0,00	4,22
P4	$V1$	e		3,00					
		d		3,31					
	$V2$	e_{S_i}		4,00	3,00	3,50	2,00	0,00	2,00
		d_{S_i}		5,36	3,82	4,11	0,95	0,00	0,64
P5	$V1$	e		3,00					
		d		2,26					
	$V2$	e_{S_i}		3,00	3,00	3,00	3,00	5,00	3,00
		d_{S_i}		2,77	1,71	1,90	2,18	3,60	5,76
P6	$V1$	e		4,00					
		d		9,43					
	$V2$	e_{S_i}		9,00	4,00	3,00	6,00	4,00	0,00
		d_{S_i}		36,39	6,20	6,59	7,13	5,40	0,00

6.2. Taula: $V1$ eta $V2$ elkarrekintza-metriken balioak laborategiko parte-hartzaileentzat (Part.), globalki eta pantailan banatutako esplorazio (e/e_{S_i}) eta denbora tarteetan (d/d_{S_i}) oinarrituta kalkulatu zirenak.

6.4.2. Emaitzak eta analisia

Laborategiko begirada-datuuen azterketa

IE desberdinatan antzeko finkapen-iraupenak (f_{IE_j}) dituzten parte-hartzaileak aurkitzeko, Pearsonen korrelazio-analisi bat egin genuen B bektoreen artean. Ondorioz, bi parte-hartzaileen arteko korrelazio positiboak antzeko portaera bisualak adieraziko lituzke karga kognitiboari dagokionez. Zehazki, antzeko portaera bisuala zuten parte-hartzaileak parekatzen, kasu bakotzean kalkulatutako Pearsonen korrelaziorako balio altuena erabili genuen; kontuan izan datuek

6.4. ELKARREKINTZA DATUETATIK PORTAERA BISUALA INFERITZEA

banaketa normala jarraitzen zutela Shapiro-Wilk test-aren arabera ($p > 0.05$). 6.3. Taulak Pearson korrelazio-koefizientearen (r) emaitzak erakusten ditu, laborategiko azterketako sei parte-hartzaileentzat kalkulatutako B begiradaren metrikarako.

6.3. Taula azertuta, parte-hartzaileak honako hiru taldeetan banatu ziren: P1 eta P3 ($r = 0,63$, $p = 0,06$ balioa), P2 eta P6 ($r = 0,55$, $p = 0,11$ balioa) eta P4 eta P5 ($r = 0,53$). Jakina da P balioak laginaren tamainarekiko sentikorrek direla. G bektoreek bederatzi elementu dituztenez, alfa $< 0,95$ balioa justifikagarria da; beraz, aurkitutako korrelazio altu-ertainek esanguratsuak izateko joera argia erakusten dute.

Pearson korrelazioa (r) B metrikarako						
	P1	P2	P3	P4	P5	P6
P1	1,00	-0,05	0,63	0,33	0,15	0,26
P2	-0,05	1,00	-0,40	0,47	0,42	0,55
P3	0,63	-0,40	1,00	0,41	0,45	-0,18
P4	0,33	0,47	0,41	1,00	0,53	-0,03
P5	0,15	0,42	0,45	0,53	1,00	0,20
P6	0,26	0,55	-0,18	-0,03	0,20	1,00

Taldeak: {P1,P3}, {P2,P6} eta {P4,P5}

6.3. Taula: Pearsonen korrelazio-koefizientea (r) laborategiko sei parte-hartzaileen begirada-datuetaarako kalkulatuta, B .

Laborategiko elkarrekintza-datuuen azterketa.


Antzeko portaera interaktiboak erakutsi zituzten laborategiko azterketako era-biltzaileak identifikatze aldera, k-means eta single-linkage (Jain et al. 1988) clustering algoritmoak aplikatu genizkien definitutako bi elkarrekintza-metrikei: globala $V1$ eta pantailletan banatutakoa $V2$. Algoritmo horien artean

Zehazki, k-means algoritmoak ($k=3$ eta distantzia euklidearra) klinikoak hiru klusterretan taldekatu zituen binaka $V1$ metrikarentzat: P4-P5, P1-P3 eta P2-P6. Honi dagokionez, Silhouette kluster baliozkotasun indizearekin (CVI) (Arbelaitz et al. 2013b) egindako analisi batek adierazi zuen $V1$ metrikarentzat $k = 3$ kluster-konfiguraziorik egokiena zela, $k=4$ eta $k=5$ konfigurazioekin alderatuta, hurrenez hurren 0,51, 0,20 eta 0,003 emaitzak lortuz.

Talde horien egitura hobeto ulertzeko, bigarren clustering-procedura bat egin genuen, k-means algoritmoak sortutako klusterren zentroideak erabiliz. On-doren, $V1$ metrikarako distantzia-matrizea kalkulatu genuen, eta gero, berriz ere distantzia euklidearra erabiliz zentroideak kalkulatu genituen. Lortutako distantzia-matrizea clustering hierarkikoko teknikak erabiliz irudikatu daiteke (Jain et al. 1988). Horregatik, single-linkage eta Ward clustering hierarkikoko algoritmoak aplikatu genituen, distantzia euklidearra erabiliz. 6.4. Irudiak

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

single-linkage clustering prozedurekin lortutako dendrograma erakusten du, non parte-hartzailak taldekatzen diren altueraren bidez taldeen arteko distantzia adierazten den. Taldeek dendrograman duten antolamenduak parte-hartzailak eta zentroideak elkarrekin taldekatzen dituzten hiru adar nagusi erakusten ditu: P4-P5-C1, P1-P3-C2 eta P2-P6-C3. Horrek adierazten du k-means algoritmoa parte-hartzailen portaera interaktibo globalari aplikatu ostean aurkitutako taldeak, egonkor mantendu direla.




6.4. Irudia: Single-linkage algoritmoaren dendrograma V_1 metrikatik kalkulatutako distantzia-matrizerako eta zentroideetarako.

Patroien gertutasunari edo antzekotasunari dagokionez, P1-P3 eta P4-P5 taldeak konpaktuagoak direla ikus daiteke, dendrogramaren behealdean kokatzen baitira. Sei parte-hartzailen hurbiltasuna hobeto erakusteko, elkarrekintza globalaren analisiaren azterketa sakonagoa egin genuen. Zehazki, Saitou eta Nei (Saitou et al. 1987) neighbour-joining (bizilaguen elkartze) zuhaitza estimazioa erabili genuen V_1 metrikako distantzia-matrizearen gainean, zentroideak alde batera utzita. 6.5. Irudian lortutako zuhaitza agertzen da, non P2 eta P6 gai-nontzeko parte-hartzailleengandik distantzia gehiagora daudela ikus daitekeen, eta P6, bereziki, beste guztiak baino urrunago dagoela. Horrek iradokitzen

6.4. ELKARREKINTZA DATUETATIK PORTAERA BISUALA INFERITZEA

du P2 eta P6 parte-hartzaileak biltzen zituen klusterra ez zela bestea bezain konpaktu.




6.5. Irudia: Neighbour-joining metodoa V1 metrikatik eratorritako distantzia-matrizerako.


Patroi aurkikuntza metodo berdina aplikatu genuen V2 metrikan, hau da, k-means ($k=3$) algoritmoa egikaritu genuen distantzia euklidearra erabiliz eta eskuraturako taldeen zentroideak kalkulatu. k -ren balioa hautatzeko, aurreko prozeduran egin zen bezala (V1), Silhouette erabili genuen. Indize honek V2 metrikarako frogatutako balioen artean ($k=\{3,4,5\}$), $k=3$ klusterraren configurazio egokiena izan zela adierazi zuen, hurrenez hurren emaitza hauekin 0,002, -0,011 eta -0,046. Berriro ere, V2 distantzia-matrizea eta aurreko urratsean kalkulatutako zentroideak kalkulatu genituen, distantzia euklidearra erabiliz. Ondorioz, distantzia matrizearen tamaina 9×9 koa izan zen, sei partaideen eta hiru zentroideen (C1-C3) distantzian oinarritutako antzekotasuna neurtuz. Azkenik, V2 metrikan aurkitutako patroien hurbiltasuna aztertu genuen, single-linkage algoritmoa erabiliz (Jain et al. 1988), kalkulatutako distantzia-matrizean. 6.6. Irudiak single-linkage algoritmoaren irteera bisuala erakusten du, non parte-hartzaileak V2-n erabilitako bi clustering-prozeduretan (k-means eta clustering hierarkikoa) ikusi bezala banatu zirela antzematen den. Patroi horiek bat datozen V1 metrikarekin aurkitutakoekin, clustering-procedura berberak erabiltzen diraenean. 6.7. Irudian irudikatutako patroien hurbiltasuna aztertu ostean, berriro ere P2 eta P6 beste bi taldeetatik nahiko urrun daudela ikusi genuen.

Erabiltzaileen elkarrekintza-datuetaen aurkitutako patroiek (ikus 6.4. eta 6.6. Irudiak) eta agertutako begirada-patroiek talde berberak sortzen dituzte. Beraz, antzeko portaera interaktiboa duten banakoek erlazionatutako portaera bisuala dutela antzematen da. Zehazki, antzeko karga kognitiboa duten pertsonek (finkapen-iraupenek adierazten duten bezala) saguaren modu antzezoan erabiltzen dutela erakusten dute, SMASH arbelean (V1) nahiz bere zazpi pantailetan (V2) esplorazio eta denbora tarteen ezaugarriek adierazi moduan.

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA



6.6. Irudia: Single-linkage algoritmoaren dendrograma $V2$ metrikkatik eratorritako distantzia-matrizerako eta zentroideetarako.



6.7. Irudia: Neighbour joining metodoa $V2$ metrikkatik erorritako distantzia-matrizerako.

Behaketa-azterketako interakzio-datuuen analisia

Erabiltzailearen elkarrekintza-datuak aztertu genituen, laborategiko parte-hartzaileenak eta baita behaketa-azterketan parte hartu zutenenak ere. Bi datu-

6.5. ERABILTZAILE MOTEN EZAUGARRITZEA

baseak batera aztertzearen arrazoia, sortuko ziren kluster berrieta laborategiko sei parte-hartzaileak arestian zehaztutako bikote berdineta bilduko ote ziren jakitea zen. Erabiltzaile-bikoteak berriz ere kluster berberetan bilduz gero, pentsa genezake kluster bereko parte-hartzaileek laborategiko homologoen antzeko bilaketa-portaera izango luketela. Beraz, gure analisia berriz egikaritu genuen (hau da, k-means eta distantzia euklidearra) $V1$ metrikarentzat, oraingoan 41 parte-hartzaile erabiliz (hau da, behaketa-azterketako 35 + laborategiko sei).

Silhouette kluster baliozkotasun indizearekin (CVI) egindako analisiak, berriz ere, adierazi zuen $k=3$ zela klusterraren konfiguraziorik egokiena k guztientzat, non $3 \leq k \leq 10$ baita. 6.4. Taulan laborategiko azterketako parte-hartzaileen distribuzioa erakusten du sortutako klusterretan.

Klusterrak			
	1	2	3
Laborategiko parte-hartzaileak	P6	P4, P5	P1, P2, P3
Behaketa-azterketako parte-hartzaile kopurua	2	19	14

6.4. Taula: k-means-en emaitzak ($k=3$, $d = \text{Euklidearra}$) $V1$ metrikarako, laborategiko parte-hartzaileak eta behaketa-azterketakoak bateratzean.

Emaitzen arabera laborategiko sei parte-hartzaileak modu berdintsuhan taldekatuta daude. P2 talde desberdin batean bildutako parte-hartzaile bakarra izan zen, P6-rekin batera taldekatu beharrean, P1 eta P3 parte-hartzaileen taldera mugitu zen. $V1$ metrikarentzat egindako hurbiltasun-analisia kontuan har-tuta (ikus 6.5. Irudia), aurkikuntza hau ez zen harrigarria izan, P2 eta P6 parte-hartzaileen klusterra ezegonkorra baitzen. Beraz, P2 taldez aldatzea ulergarria litzateke.

6.5. Erabiltzaile moten ezaugarritzea

6.5.1. Datu-baseen deskribapena

Atal honetan, bigarren ekarpen honetan eraikitako bi datu-baseak deskribatuko ditugu, behaketa-azterketan bildutako datuetan oinarrituta kalkulatutako metrikekin: bata irudikapen globala erabiliz ($V1$) eta bestea pantailen irudikapena erabiliz ($V2$).

Behaketa-azterketa erabiltzaileek sortutako elkarrekintza-datuak datubasetik berreskuratu eta garbitu genituen. Prozesu horretan, besteak beste, plataforman kreditzial desberdinekin sartzen diren erabiltzaileak identifikatu genituen, azterketa honetarako beharrezkoak ez ziren aldagaiak ezabatu genituen eta software-ingeniariei eta plataforma probatzen zuten pertsonei zegozkien sarrerak ezabatu genituen. Datuak bi ikuspuntu desberdinatik aztertu genituen: erabiltzaileak eta saioak. Erabiltzaileen irudikapenean, erabiltzaile bakoitzaren gertaera guztiak erregistro batean biltzen dira, saioak alde batera utzita (35 erregistro osotara bi taldetan banatuta, lehen eta bigarren mailako

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

erabiltzaileenak). Saioen ikuspuntuari, erregistro batek saio bakar bati dagozkion gertaera guztiak jasotzen ditu (564 erregistro osotara).

Erabiltzaileek saioa SMASH arbelean hasi behar zutenez plataforman sartzeko, saioen iraupena kalkulatzeko erabiltzaileek saioa hasi eta bukatu bitarteko denbora osoa erabili genezakeen. Hala ere, metodo honek saioaren iraupena balioesten du, jarduerarik gabeko tarte luzeak aintzat hartzen dituen heinean. Beraz, estrategia zorrotzagoa erabili dugu, non 20 minutuko jarduerarik ezaren aurrean saioa amaitutzat ematen dugun, eta jarduerari berriz ekin bezain laster saio berri bat sortzen dugun. Ikuspegi hau bat dator erabiltzaile saioen identifikazioari buruzko literaturarekin (Heer et al. 2002). Metodo hau aplikatzean, 564 saio erregistratu ditugu osotara, 419 lehen mailako erabiltzaileei dagozkilarik (%74) eta 145 bigarren mailako erabiltzaileei (%26). Saioen distribuzioari dagokionez, 64 Batzorde Klinikoko Taldeko (BKT) langileenak ziren, 27 famili medikuenak, 32 familiako medikuak kudeatzilaenak eta 22 beste profil batzuetakoak. Saio kopuru desorekatuak baieztaatu egiten du azterketa kualitatiboek (Jeffries et al. 2018) adierazitakoa, hots, lehen mailako erabiltzaileek konpromiso handiagoa dutela: erabiltzaileen %29k (lehen mailakoak) saioen %74 sortu zituzten.

Elkarrekintzaren bi irudikapenak (globala eta pantailak) erabiltzaile bakoitzenatzat eta saio bakoitzarentzat kalkulatu ziren. Bi analisi motetan, erregistroak bi erabiltzaile talde nagusien arabera egiten dira (hau da, lehen mailakoa eta bigarren mailakoa). 6.5. Taulak erabiltzaileen eta saioen distribuzioa era-kusten du, erabiltzaile taldearen arabera.

Erabiltzaile taldea	Kop (%)	Sesioak (%)
Lehen mailakoak	10 (29)	419 (74)
Bigarren mailakoak	25 (71)	145 (26)
Familiako medikuak	8 (23)	27 (5)
BKT-ko langileak	8 (23)	64 (11)
Kudeatzilaileak	5 (14)	32 (6)
Besteak	4 (11)	22 (4)

6.5. Taula: Erabiltzaile kopurua eta saio kopurua talde bakoitzeko.

6.6. eta 6.7. Taulek esplorazio (e, e_{S_i}) eta denbora tarte-balioak (d, d_{S_i}) erakusten dituzte irudikapen globala ($V1$) eta pantailakoarentzat hurrenez hurren. Taulen arabera, bigarren mailako erabiltzaileentzat bi ezaugarrien balioak altuagoak dira, baina portaera hori ez da pantaila guztietan ematen.

6.5. ERABILTZAILE MOTEN EZAUGARRITZEA

Taldea	Metrika	Ezaug.	Globala	Pantailak (S_i)							
				i=1	i=2	i=3	i=4	i=5	i=6	i=7	
Denak	$V1$	e		3,40							
		d		3,47							
	$V2$	e_{S_i}			3,84	3,21	3,29	2,83	2,34	1,87	1,60
		d_{S_i}			8,93	2,75	16,02	3,68	6,28	2,15	7,93
1. maila	$V1$	e		2,90							
		d		2,23							
	$V2$	e_{S_i}			3,70	3,30	2,75	2,50	3,50	2,70	3,40
		d_{S_i}			16,88	2,82	2,54	2,10	5,88	1,59	3,27
2. maila	$V1$	e		3,60							
		d		3,97							
	$V2$	e_{S_i}			3,90	3,18	3,50	2,96	1,88	1,54	0,90
		d_{S_i}			5,75	2,72	21,41	4,31	6,44	2,38	9,81

6.6. Taula: $V1$ eta $V2$ elkarrekintza-metriken balioak erabiltzaileen ikuspuntuaren, behaketa-azterketako partaideentzat: globalki eta pantailan banatutako esplorazio (e / e_{S_i}) eta denbora tarteen (d/d_{S_i}) batezbestekoan arabera kalkulatuta.

Taldea	Metrika	Ezaug.	Globala	Pantailak (S_i)							
				i=1	i=2	i=3	i=4	i=5	i=6	i=7	
Denak	$V1$	e		3,79							
		d		3,28							
	$V2$	e_{S_i}			4,18	3,43	1,05	1,94	0,79	0,62	0,47
		d_{S_i}			6,81	10,01	4,6	3,03	3,4	1,05	3,35
1. maila	$V1$	e		3,65							
		d		2,85							
	$V2$	e_{S_i}			4,08	3,52	0,81	1,82	0,87	0,71	0,53
		d_{S_i}			5,53	6,97	3,59	3,1	3,84	1,23	3,55
2. maila	$V1$	e		4,19							
		d		4,51							
	$V2$	e_{S_i}			4,45	3,14	1,74	2,29	0,58	0,36	0,22
		d_{S_i}			10,48	11,01	7,48	2,84	2,14	0,53	2,75

6.7. Taula: $V1$ eta $V2$ elkarrekintza-metriken balioak saio-ikuspuntuaren, behaketa-azterketako partaideentzat: globalki eta pantailan banatutako esplorazio (e / e_{S_i}) eta denbora tarteen (d/d_{S_i}) batezbestekoan arabera kalkulatuta.

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

6.5.2. Emaitzak eta analisia

Erabiltzaile-ikuspuntua

Gure azterketan, Weka softwareak (M. Hall et al. 2009) ahalbidetzen dituen ikasketa automatikoko algoritmo batzuk erabili genituen erabili genuen erabiltzaile motak sailkatzeko, lehen mailakoak eta bigarren mailakoak. Algoritmoen jarduna ebaluazioari dagokionez, 10 iteraziodun balioztatze gurutzatua (10-fold cross-validation) erabili genuen. Zehazki, 10 algoritmo nagusien multzotik (Wu et al. 2008) gure arazoari aplika dakizkiokenak hautatu genituen: AdaBoost, IBK, J48, Naïve Bayes (NB) eta Optimizazio Minimo Sekuentziala (*Sequential Minimal Optimization*, SMO), eta oso hedatuta dauden beste algoritmo batzuk, Bagging eta Geruza Anitzeko Perzeptroia (*MultiLayer Perceptron*, MLP) kasu.

6.8. Taulan erakutsi moduan, batetik, doitasuna kalkulatu genuen, hau da, hautemandako erabiltzaile guztietañ zuzen hautemandako elementuen proportzia, adb. lehen mailakoak edo bigarren mailakoak. Bestetik, estaldura kalkulatu genuen, hots, hauteman beharreko erabiltzaile guztietañ hautemandako erabiltzaileen proportzia. Azkenik, F-puntuazioa kalkulatu genuen, hots, doitasuna eta estaldura arteko batez besteko harmonikoa.

Algoritmoa	Irudikapena	Doitasuna	Estaldura	F-puntuazioa
AdaBoost	globala	0,73	0,71	0,72
	pantailak	0,77	0,77	0,77
Bagging	globala	0,67	0,71	0,67
	pantailak	0,74	0,74	0,74
IBK	globala	0,71	0,71	0,71
	pantailak	0,84	0,83	0,83
J48	globala	0,60	0,60	0,60
	pantailak	0,84	0,83	0,83
MLP	globala	0,83	0,83	0,83
	pantailak	0,86	0,86	0,86
NB	globala	0,77	0,74	0,75
	pantailak	0,90	0,89	0,89
SMO	globala	0,51	0,71	0,60
	pantailak	0,72	0,74	0,71


6.8. Taula: Algoritmoen doitasuna, estaldura eta F-puntuazioa erabiltzaile-ikuspuntuan.

Datu-basea desorekatuta zegoela ikusi genuen, izan ere, lehen-mailako 10 erabiltzaileak, osotara zeuden 35 erabiltzaileen %29a ziren. Algoritmoen jardunari dagokionez, 6.8. Taularen arabera, IBK, J48 eta Naïve Bayesek (NB-k) hiru metriketarako (doitasuna, estaldura et F-puntuazioa) 0,80tik gorako emaitzak lortzen dituzte pantailen irudikapenaren kasuan. Irudikapen globalaren kasuan (pantailak aintzat hartzen ez direnean) emaitza baxuagoak lortu ziren, nahiz eta MLP algoritmoak 0,80tik gorako balioak eskuratu bi irudikapenetan.

6.5. ERABILTZAILE MOTEN EZAUGARRITZEA

6.8. Taulako emaitzak erabilgarriak izan ziren, positibo faltsuen (doitasuneko kalkulatuak) eta negatibo faltsuen (estaldurako kalkulatuak) kopuruak onargarriak ziren neurrian, azken batean, hori sailkatzaleen helburuaren menpe dago. Erabiltzaileak modelatzeko hauek bereiztea beharrezkoa bada ere (lehen mailakoak eta bigarren mailakoak), erabiltzaile-talde bakoitzaren ezaugarriak erauzi ondoren, etorkizunean egokitzapenak egiteko baliotsua izango zen informazioa lortu genuen. Aukeratutako sailkatzaleen artean, azalpen argiena duen sailkatzalea J48 (Witten et al. 2016) da. J48 algoritmoak sailkapenaren azalpena erro-nodoaren eta orri-nodoen arteko bidean erakusten du, bertan sailkapen-prozesuan sailkatutako adibideak kokatuz. Lagin osoarekin sortutako J48 sailkatzalearen egitura aztertu genuen, irudikapen globalerako eta pantailatarako, eskuragarri zegoen informazio guztia erabiliz. Izan ere, zuhaitz hori izango litzake benetako sistema batean ezarriko zena litzatekeena.


J48 algoritmoak irudikapen globalerako (*V1*) beste algoritmo batzuek baino emaitza baxuagoak dituen arren, denbora tartearren bidez (*d*) bigarren mailako erabiltzaileak lehen mailakoetatik bereiztu ahal izan zituen SMASH arbelaren plataforman. 6.8. Irudian erakutsitako J48ren sailkapenaren egituraren arabera, denbora tartea 2,5 segundo edo gutxiagokoak zenean (hau da, erabiltzailearen saguko kliken artean 2,5 segundo edo gutxiago igarotzen baziren), lehen mailako erabiltzaileak erabiltzaile guztien %62a (8/13) ziren; kontuan hartu hasiera batean lehen mailako erabiltzaileak %29a zirela. Denbora tartea 2,5 segundotik gorakoak zenean aldiz, bigarren mailako erabiltzaileak erabiltzaile guztien %91 (19/22) ziren, jatorrian %71 izanda. Aintzat hartu, SMASH arbela erabiltzean denbora tartearren bataz bestekoa 3,47 zela (desbest = 1,87), lehen mailako erabiltzaileek bigarren mailakoekin alderatuz kliken arteko denbora txikiagoak dituztela adierazten duena, bataz bestekoak hurrenez hurren 2,23 eta 3,97 segundokoak izanik.



6.8. Irudia: Inausitako J48 zuhaitzaren grafikoa irudikapen globalerako (*V1*), doitasuna, estaldura eta F-puntuazioen balioak 0,6 baliokoak izanik. Lauki bakoitzaren gainean, eskuinean dauden zirkuluek baldintza horretan erori ziren erabiltzaileen kopurua adierazten dute eta laukiko zenbakiek, berriz, erabiltzaile horien distribuzioa talde bakoitzerako.

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

Inausitako J48 zuhaitzaren egitura pantailen irudikapenerako 6.9. Irudian agertzen da. Adierazleen informazio-pantailan, esplorazio-metrikaren batez besteko balioa (e_{S_7}) 1,6 sagu-pausatze izan zen (desbest = 2,31). Hala ere, lehen mailako erabiltzaileen esplorazioa batez bestekoa baino handiagoa izan zen, 3,35 sagu-pausatze (sp), eta bigarren mailako erabiltzaileen esplorazioa baino handiagoa, 0,9 sagu-pausatze(sp). Sailkapen-zuhaitzean 0 balioko esplorazioa izan zuten erabiltzaileen nodoari erreparatz, hau da, adierazleen informazio-pantailan jarduerarik burutu ez zutenak, bigarren mailako erabiltzaileak %95 (19/20) zirela ikusten da (nodo aurrekarian %71 zirelarik). Adierazleen informazio-pantailan jardueraren bat erakutsi zuten gainerako 15 erabiltzaileak (%53 lehen mailakoak eta %47 bigarren mailakoak) aldiz, hiru baldintzatan erori ziren ($e_{S_7} > 0$).



6.9. Irudia: Inausitako J48 zuhaitzaren grafikoa pantailen irudikapenerako (V2), doitasuna 0,84 , estaldura 0.83 eta F-puntuazioen 0.83 izanik.

Arriskutsuak izan daitezkeen preskripzio-adierazleen eraginpean dauden pazienteak zerrendatzeten dituen pantailan (e_{S_4}), 3 sagu-pausatze baino gehiagoko esplorazio jarduera zuten erabiltzaileak, soilik bigarren mailakoak izan ziren izan (lau erabiltzaile, nodo horretako erabiltzaileen %100). Kontuan izan batzaz bestekoa 2,83 sagu-pausatze direla, 2,50 lehen mailako erabiltzaileentzat eta 2,96 bigarren mailakoentzat. Jardueraren balioa hiru sagu-pausatzeko edo gutxiagoko baldintza eta joeren pantailako denbora tarte (d_{S_6}) 1,84 segundo-ko edo gutxiagoko baldintza batzen dituen nodoan, erabiltzaile guztiak lehen

6.5. ERABILTZAILE MOTEN EZAUGARRITZEA

mailakoak izan ziren (hau da, zortzi pertsona). Denbora tartea 1,84 segundotik gorako baldintza duen nodoan aldiz, erabiltzaile bat lehen mailakoa izan zen eta gainerako biak bigarren mailakoak. Kontuan izan denbora tartean batez bestea 2,15 segundokoa dela, 1,59 segundo lehen mailako erabiltzaileentzat (desbest = 0,92) eta 2,38 segundo bigarren mailakoentzat (desbest = 4,91).

Saio-ikuspuntua

Saio-ikuspuntuauan, erabiltzaile berarentzako saio-behaketak independenteak ez direnez, 10 iteraziodun balioztatze gurutzatua (10-fold CV) egiteaz gain, gutxi gorabehera estratifikatutako hiru iteraziodun balioztatze gurutzatua (3-fold CV) ere egin genuen. Horretarako, datu-basea antzeko tamainako hiru multzotan banatu genuen, multzo bakoitzean lehen/bigarren mailako erabiltzaileen proportzio antzekoa mantenduz, baina erabiltzaile bakoitzaren saio guztiak multzo berean mantenduz. Horrela, aztertu gabeko erabiltzaileentzat jardun-metrikak kalkulatu ahal izan genituen. Zehazki, erabiltzaile-ikuspuntuauan deskribatutako zazpi algoritmo berberak erabili genituen: AdaBoost, IBK, J48, NB, SMO, Bagging eta MLP. 6.9. Taulak datuak saioaren ikuspuntutik aztertu zirenean lortutako emaitzak erakusten ditu.

Sailkatzaileen jarduna baxuagoa izan zen analisi horretan, Bagging algoritmoak emaitzarik onenak lortu zituelarik. Espero bezala, hiru iteraziodun balioztatze gurutzatua (3-fold CV), 10 iterazioekin egindakoa (10-fold CV) baino *zertxobait* okerragoa da. Kontuan izan hori kasurik okerrena izanik ere ez dela oso errealista, izan ere, test multzoan soilik erabiltzaile berriak egoteak esan nahiiko luke, arbela behin baino gehiagotan erabili duten erabiltzailerik (ohiko erabiltzaileak) ez litzakeela egongo. Beraz, sistema benetako testuinguru batean ustiatiuko balitz, non erabiltzaile gehienek arbelarekin elkarrekintza sarritan burutzea aurreikusten den (10-fold CV azterketaren jardunetik gertuago), sistema horren jardunaren emaitza bi ikuspuntuen artean egongo litzakeela uste dugu.

Pantailen irudikapenean lagin osoarekin sortutako J48 sailkatzailearen egitura aztertuko genuen 6.10. Irudian erakutsi moduan. Lehen aipatu bezala, zuhaitzaren jarduna ohiko erabiltzaileentzat 10-fold CV azterketarekin eta erabiltzaile berrientzat 3-fold CV azterketarekin kalkulatutako litzake.

J48 sailkapen-egituraren eskuinaldeko adarrak 6.10. Irudian, saioen %81 bigarren mailako erabiltzaileenak izan zirela adierazten du, honako baldintzak betetzen zirenean: batetik, bistaratze-pantailan 3,5 sagu-pausatze baino gehiago egitea (1,74 sagu-pausatze bigarren mailako erabiltzaileetan vs. 0,81 lehen mailakoentzat S_3 pantailan); bestetik, 0 sagu-pausatze segurtasun-adierazleen preskripzioari buruzko informazioa duen pantailan (0,22 sagu-pausatze bigarren mailako erabiltzaileentzat vs. 0,53 bigarren mailakoentzat S_7 pantailan); azkenik, erabiltzaileak arriskuan dauden pazienteak erakusten dituen pantailan (S_5) egindako kliken artean 4,47 segundo baino gutxiagoko denbora tarteak erakus-tea, non batez bestekoa 3,40 segundokoa izan zen. Saioen %92 lehen mailako erabiltzaileenak izan ziren, bistaratzeen pantailan (S_3) egindako kliken artean sagu-pausatzeen kopurua 3,5 edo txikiagoa zenean eta helmuga-orrian (S_1) egindako kliken arteko denbora tartea 2,8 segundokoa edo gutxiagokoa zenean (batez


6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

besteko denbora tartea 6,8 segundo izanik). Hasierako orrian egindako klien artean 2,8 segundo baino gehiagoko denbora tartea izan zuten erabiltzaileentzat, arriskuan zeuden pazienteei buruzko informazioa zuen pantaila (S_5) erabakigarrria izan zen erabiltzaileak sailkatzeko: ebaketa-balioa baino txikiagoa edo berdina zenean (0,04 segundo, batez bestekoa 3,4 segundokoa izanik), saioen %53 bigarren mailako erabiltzaileena izan ziren, eta saioen %85 bigarren mailakoena.

Algoritmoa	CV	Irudikapena	Doitasuna	Estaldura	F-puntuaziaoa
AdaBoost	3-fold	globala	0,65	0,73	0,68
		screens	0,73	0,71	0,67
	10-fold	globala	0,68	0,73	0,69
		pantailak	0,73	0,76	0,72
Bagging	3-fold	globala	0,71	0,72	0,69
		pantailak	0,68	0,70	0,68
	10-fold	globala	0,70	0,74	0,7
		pantailak	0,77	0,78	0,77
IBK	3-fold	globala	0,63	0,64	0,63
		pantailak	0,68	0,69	0,68
	10-fold	globala	0,65	0,65	0,65
		pantailak	0,72	0,73	0,73
J48	3-fold	globala	0,59	0,74	0,63
		pantailak	0,69	0,69	0,68
	10-fold	globala	0,67	0,72	0,68
		pantailak	0,73	0,76	0,73
MLP	3-fold	globala	0,70	0,73	0,69
		pantailak	0,70	0,74	0,7
	10-fold	globala	0,67	0,72	0,68
		pantailak	0,71	0,75	0,71
NB	3-fold	globala	0,64	0,71	0,64
		pantailak	0,64	0,48	0,47
	10-fold	globala	0,61	0,71	0,64
		pantailak	0,69	0,59	0,62
SMO	3-fold	globala	0,55	0,74	0,63
		pantailak	0,58	0,73	0,63
	10-fold	globala	0,55	0,74	0,63
		pantailak	0,55	0,74	0,63

6.9. Taula: Algoritmo bakoitzaren doitasuna, estaldura eta F-puntuaziaoa saio-ikuspuntuan.

6.5. ERABILTZAILE MOTEN EZAUGARRITZEA



6.10. Irudia: Inausitako J48 zuhaitzaren nodorik esanguratsuenak pantailen irudikapenerako (V_2), doitasuna 0,73, estaldura 0,76 eta F-puntuazioa 0,73 izanik.

6.5.3. Eztabaida

Egindako azterketari esker, jakin izan genuen gure hasierako aurreikuspenak, hau da, SMASH arbelaren lehenengo mailako erabiltzaileek denbora tarte eta esplorazio balioak txikiagoak erakustea, bete egin zirela bi irudikapenetan (globala eta pantaietako) eta bi ikuspuntuetan (erabiltzaileen eta saioena 6.6. eta 6.7. Tauletan azalduta hurrenez hurren). Gainbegiratutako sailkatzaileei dago-kinez, aurreikuspen horiek bete egin ziren sailkapen-zuhaitzen ebaketa-puntuuen balioek erakusten duten bezala (6.8.-6.10. Irudiak). Oro har, estatistika deskribatzaileek eta sailkatzaileek baiezatzaten dute esku-hartzean gehien parte hartu zutenen (lehen mailako erabiltzaileen) ezaugarri bereizgarriak kliken arteko denbora tarte eta esplorazio balio txikiak direla.

Kliken arteko denbora tarte txikienak funtsezkoak izan ziren irudikapen globalean, lehen mailako erabiltzaileak bigarren mailakoetatik bereizteko (6.8. Irudia), honako pantaietan: praktika batean preskripzio-segurtasunaren adierazlearen joerak erakusten zituen pantailan (S_6 , 6.9. Irudian) eta praktikaren laburpena erakusten duen hasierako orrian (S_1 , 6.10. Irudian). Bigarren mailako erabiltzaileen portaerak ezaugarri hauek izan zituen: arriskuan dauden pazienteek erakusten dituen pantailan kliken arteko denbora handiagoa izatea (S_4 , 6.9. Irudian) eta bistaratze-pantailan (S_3 , 6.10. Irudian) kliken arteko esplorazio-balio altuagoak izatea. Aintzat hartu behar da, arbelaren erabilera ez dela erabiltzaile-taldeena bakarrik, baina erabilera horren izaerak erabiltzaile-taldeak ezaugarritzen dituela. Zehazki, aurkikuntza hauek iradokitzen dute bigarren mailako erabiltzaileek portaera bereizgarriak dituztela arriskuan dauden arris-

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

kuan dauden pazienteak eta bistaratzeak erakusten dituzten pantailetan. Lehen mailako erabiltzaileek, berriz, SMASH arbelaren osasuna monitorizatzeko erabiltzen dute, praktikaren laburpena eta joerak erakusten dituzten pantailetan.

Hala ere, salbuespen batzuk egon ziren: kliken arteko denbora tarte luzeagoa lehen mailako erabiltzaileen bereizgarria izan zen adierazle batek baino gehiagok eragindako pazienteak erakusten dituen pantailan (ikus *S₅* 6.7. eta 6.10. Irudietan). Egun egiten ari den ikerketa baten bidez jakin izan genuen arbelaren lehenengo mailako erabiltzaileek denbora gehiena *S₄/S₅* pantailetan igorotzen dutela (hau da, arriskuan dauden pazienteen pantailetan). Izan ere, modu horretan, paciente horien osasun-erregistro elektronikoak egiaztatuko lituzkete eta, agian, telefono-dei batzuk egingo lituzkete. Gainera, bigarren mailako erabiltzaileak esplorazio balio txikiagoak erakutsi zituzten adierazle bereziak deskribatzen dituzten pantailetan (*S₇*, 6.6. eta 6.7. Tauletan, eta 6.9. eta 6.10. Irudietan). Merezi du aipatzea kasu horietan ebaketa-balioak 0 inguruokoak izan zirela. Horrek iradokitzen du bigarren mailako erabiltzaileek ez zitzutela esplorazio eta denbora tarte txikiagoak erakutsi, eraginkorragoak zirelako, baizik eta pantaila horietara sartzeko aukerarik ez zutelako. Beraz, esan genezake, funtzionalitateetara sartzean, denbora tartea eta esplorazioa SMASH arbeleko portaera interaktiboaren ezaugarri diren proxy gisa jokatzen dutela, lehen mailako erabiltzaileak diskriminatzeko zehaztasun-tasa handiak dituztelako. Algoritmo bakoitzerako, pantailen irudikapenak globalak baino hobeto funtzionatzen du, eta horrek esan nahi du modelatze prozesuan pantailak erabiltzeak balio erantsia duela.

Aurkikuntza hauen arabera, bi erabiltzaile taldeek (lehen eta bigarren mailakoak) portaera bereizgarri desberdinak dituzte SMASH arbelarekin duten elkarrekintzan. Portaera interaktibo horiek, gaitasunen proxy diren ezaugarriak erabiliz modelatzen direnak, bi erabiltzaile taldeak bereizten dituzte. Denbora tartean balio txikiak, erabiltzaileak, informazioa prozesatzeko eta arazoak konpontzeko eraginkorragoak direla adierazten dute (Chin et al. 2009). Horrek, lehen mailako erabiltzaileak SMASH arbelean gainbegiratze lanak egiten trebeagoak izango zirela iradoki zuelarik. Esploraziotik eratorritako jarduerabisualaren balio handiagoa bilaketarako trebetasun eskasaren adierazle dela dalgunez (Ehmke et al. 2007), bigarren mailako erabiltzaileengana antzemandako esplorazio balio altuagoak konpromiso-maila txikiagoi egozten dizkiegu, jardun txikiagoa beraz. Hau bat dator literaturarekin, non konpromiso handiena dutenak hobeto betetzen direla adierazten den (Rich et al. 2010; Christian et al. 2011).

Bi diseinu-gomendio sortzen dira emaitza hauetatik. Hautemendako trebetasun falta esku-hartze mota hauek erabiltzeo oztopo bat denez (Jeffries et al. 2017), SMASH arbelaren (eta antzeko esku-hartzeen) erabiltzaileen gaitasuna monitorizatu liteke eta, beharrezkoa izanez gero, ekintzaren bat egin. Konpromiso txikiagoa duten (eta gaitasun txikiagoa duten) erabiltzaile-taldeetako kideen ikaskuntza sustatzeko, hezkuntza-bultzada pertsonalizatuen gisako laguntza ahalbidetu liteke. Esaterako, beste kideekin konparatuta izan duten jardunari buruzko mezu pertsonalizatuak jasotzeak, beren buruak gutxiesten di-

6.6. LABURPENA

tuztenei, euren pertzepzioei aurre egiten lagun lezake eta auto-eraginkortasuna areagotu. Bultzada horiek uneko URLa berreskuratuz eta sagu-gertaeren jarrapena eginez bideratu ahal izango lirateke, denbora tarteak eta esplorazioa kalkulatzeko, nabigatzalean denbora errealean egin daitekeena. Metodo honek elkarrekintza edo datu pertsonalak urrutitik biltegiratzea eskatzen ez duenez, erabiltzailearen konfidentzialtasuna eta pribatasuna errespetatzen dira, era-biltzaile potentzialek horrelako sistemak onartzeko izan ditzaketen oztopoak ezabatuz (Angulo et al. 2015). Bigarren gomendioa da SMASH arbelean lan-fluxuak egokitzea, bi taldeen berezko erabileraaren arabera. Arbelaren erabilera estereotipatuaren berri izanda, SMASH-ek lan-fluxuak erraztu beharko lituzke, (a) herritarren osasuna monitorizatzeko eta (b) arriskuan dauden pertsonen azterketa zehatzagoa egiteko, pantailak modu egokian multzokatuz. Bi lan-fluxu horien arteko trantsizioak egiteko, arbeletan informazioa bistaratzeko mantraren analogia bat mapatu beharko litzateke (hau da, deskribapen orokorra, iragazketa, eskariaren araberako xehetasunak) (Shneiderman 1996). Modu horretan, biztanleriaren osasuna kudeatuko ahalko litzake honako printzipioen dibulgazio progresiboaren bidez: biztanleriaren osasunaren monitorizazioa, iragazketa, eta eskariaren araberako datuen banakapena.

Gogoeta metodikoak

Azterketako erabiltzaile kopuruan, lehen mailakoen ordezkaritza %29a zen eta saio kopuruari dagokionez, euren ordezkaritza %74 baliora igotzen zen. Horrek esan nahi du, lehen mailako erabiltzaileen saio errepikakor gehiago izan genituez, ikasketaren efektuak nahastu genitzakeela erabiltzaile-ikuspuntuan. Gure ondorioa oraindik ere mantentzen bada ere (lehen mailako erabiltzaileak eragin-korragoak dira SMASH arbelean gainbegiratze-jarduerak egitean), talde honek konfiantza handiagoa izateko bi arrazoi egon litezke: esku-hartzearekin duten konpromisoa eta farmazialariak izateak ematen zien esperientzia. Hala ere, esperientzia hori izatea onuragarria bada ere, ez da funtsezkoa esku-hartzearekin konpromisoa hartzeko (Jeffries et al. 2019).

6.6. Laburpena

Software medikoa erabilerra eta praktikoa izatea erronka bat da, datuen ezaugarriak (tamaina eta konplexutasuna) eta erabilera-testuingurua direla eta. Horren ondorioz, datu-dentsitate handiko erabiltzaile-interfazeak erai-kitzen dira, klinikoen erabaki-hartze optimoarekin bateragariak ez direnak. Ebidentzia anekdotikoak adierazten du klinikoeik informazio kopuru zuzena eskatzen dutela beren zereginak aurrera eramateko. Horrek iradokitzten du erabiltzaile-interfaze moldagarriak erabiltzaileen informazio-beharak asetzeko eta informazio-gainkargari heltzeko erabil daitezkeela. Hala ere, informazio-behar horiek alda daitezkeenez, lehenik eta behin identifikatu eta lehenetsi egin behar dira, erabiltzaile-interfazerako egokitzapenak implementatu aurretik. Begirada interesaren adierazlea dela jakina denez, begi-arakatzaileek erabiltzaileek

6. KAPITULUA - INFORMATIKA MEDIKOA

non begiratzen duten diskretuki behatzeko aukera ematen digute, baina ez da praktikoa sistema hedatu batean erabiltzea.

Lehenengo ekarpenean, erabiltzailearen elkarrekintza-datuuen bidez botiken segurtasun arbelean (SMASH) portaera bisuala inferitu ote dezakegun aztertu dugu. Helburu horrekin, lehenik eta behin, begirada (finkapen-iraupena definitako Intereseko Eremuetan) eta elkarrekintza-datuak (esplorazio eta kliken arteko denbora tarte globalak eta pantailletan banatutakoak) aztertuko ditugu. Datu hauek laborategiko azterketa batean bildu ziren, bederatzi ataza osatu zituzten sei parte-hartzailerekin. Begiradaren datuetan Pearsonen korrelazioa erabiliz, antzeko portaera bisualak zituzten laborategiko parte-hartzailak bikoteka multzokatu genituen hiru talde desberdin sortuz. Parte-hartziale horien elkarrekintza-datueta erabilitako k-means prozedurara aplikatu ostean, bikote berberak lortu zirenez, portaera bisuala eta interaktiboaren artean lotura dagoe-la esan dezakegu. Gainera, k-means algoritmoa laborategiko (6) nahiz behaketa-azterketako parte-hartzailleen (35) elkarrekintza globalean aplikatu ostean, laborategiko parte-hartzailak antzera parekatu ziren. Beraz, behaketa-azterketako parte-hartzailleen portaera bisuala kluster berdineta bildutako laborategikoek erakutsitako portaeraren antzekoa izan zitekeen.

Bigarren ekarpenak SMASH erabilera ezaugarritzea zuen helburu, esku-hartza zuzendu zuten lehen mailako erabiltzaileen eta arbela preskripzio-praktika segurueta parte hartzeko erabili zuten bigarren mailako erabiltzaileen elkarrekintzak arakatuz eta kontrastatuz. Horretarako, behaketa-azterketako elkarrekintza globala eta pantailletako aztertu genituen, eta gainbegiratuko ikasketako algoritmoak aplikatu genituen, lehen eta bigarren mailako erabiltzaileak sailkatzen. Emaitzei dagokienez, 0,8tik gorako zehaztasun-tasak lortu genituenez, aldienean %80tan lehen mailako erabiltzaileak eta bigarren mailako erabiltzaileak bereizteko gai izan ginela esan genezake. Bereziki, Geruza Anitzeko Perzeptronak (MLP) emaitzarik altuenak eskuratu zituen hiru metriketarako: doitasuna (0,88), estaldura (0,86) eta F-puntuazioa (0,86). Lehen mailako erabiltzaileen portaeraren ezaugarri nagusia, praktikaren laburpena eta joerak era-kusten zituzten pantailletan, sanguarekin egindako bi kliken arteko denbora tar-tea txikiagoa izan zen. Bigarren mailako erabiltzaileen portaeraren ezaugarriak aldiz, arriskuan dauden pazienteak eta bistaratzeak erakusten dituzten pantailletan denbora tarte luzeagoak eta bilaketa-bisualen jarduera kopurutsuagoak (esplorazio handiagoa) izan ziren. Bestela esanda, lehen mailako erabiltzaileek gaitasun handiagoa izan zuten herritarren osasuna monitorizatzeko jardueretan; bigarren mailako erabiltzaileek, berriz, zailtasunak izan zituzten pazienteen segurtasunaren banakatze zehatza eskatzen zuten jardueretan. Aurkikuntza horien berri izanda, jarduera hauek eta bultzada egokitzailak biltzen dituzten lan-fluxuak proposatu ditugu, erabiltzailearen konpromisoa areagotzeko.

7. Kapitulua

E-Zerbitzuen elkarrekintzaren eta erabileraren modelatzea

7.1. Sarrera

2018. urteko gobernu elektronikoaren erreferentziak txostenaren arabera, EGovernment Benchmark (Tinholt et al. 2018) 2018, Europako administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzuen %66 guztiz eskuragarri zeuden Internet bidez, 2012az geroztik (Tinholt et al. 2015) %17ko igoera suposatzen duena. Gaur egun dagoen online eskuragarritasun handia ez da harritzeko, herritarrek edozein unetan (24 orduz, astean zazpi egunez) eta modu pertsonalizatuan (hizkuntza desberdinak, desgaitasuna duten erabiltzaileentzako egokitzapenak, etab.) eskaintzen diren zerbitzu elektroniko publikoek baliatu daitezkeelako (González et al. 2007). Honi dagokionez, zerbitzu elektroniko irisgarri eta pertsonalizatuen diseinua funtsezkoa da zerbitzu horiek erabiltzen dituen herritar-espektro aldakorrerako erabat inklusiboak izan daitezen. Hala ere, zerbitzu horiek pertsonalizatzeko beharrezkoak diren erabiltzaile-profilak erauztea lan zaila da, sarritan erregistrorik eskatzen ez dutelako, edo eskatzekotan, ez delako erabiltzai-leari buruzko informazio sentikorrik biltzen (adibidez, desgaitasunei edo mugen buruzkoak) (Abascal et al. 2019). Testuinguru honetan, web erabilerako meatzaritza teknikak zerbitzu elektronikoen (e-Zerbitzuen) erabiltzaileak modelatzeko erabil daitezke, web zerbitzariko erregistroen elkarrekintza-datuak modu diskretuan bilduz (Abascal et al. 2013).

Zoritzarrezz, pribatutasunaren inguruko kezken ondorioz, erakunde publikoek askotan, ez dute sarbiderik ematen euren zerbitzuen nabigazio-datuetara. Honen erakusgarri izan ziren Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (GFA) eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU) egin genituen lankidetzak; izan ere, bi erakunde hauek haien soilik euren webguneen nabigazioa aztertza ahalbidetu ziguten, www.gipuzkoa.eus eta www.ehu.eus hurrenez hurren, baina euren zerbitzuak kanpoan utziz. Honi dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgu-nean egindako azterketan (Yera et al. 2016a) ondorioztatu genuen erabiltzaileen

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

web interakzioa modelatzea oso lan zaila zela honako arrazoiengatik: lehenengoa, erabiltzaileen erregistrorik ez edukitza; bigarrena, erabiltzaileen helburua aldez aurretik ezezaguna izatea; hirugarrena, webgunea eguneratzeko prozesuak haien nabigazioen erreprodukzioa oztopatu izana. Beraz, zerbitzu elektronikoek erabiltzaileen elkarrekintzaren modelatzea ahalbidetzeko bete beharko lituzketen oinarrizko eskakizun-tekniko batzuk adierazi genituen. Batetik, zerbitzuak gutxieneko erabiltzaile kopuru bat izatea (100-1000). Bestetik, zerbitzuak azken helburu bat izatea eta hori lortzeko tarteko hainbat urrats beharrezkoak izatea, non erabiltzaileek aukera desberdinak hautatu behar dituzten. Beti ere, elkarrekintzaren informazio hau guztia (eskututako URLak eta hautatutako aukerak) eskuragarri egotea nabigazioa berreraikitzea. Azkenik, azterketan ikasketa automatikoko teknikak erabili nahi badira, zerbitzu elektronikoen log fitxategietan, transakzio bakoitzera, honako datu hauek jaso beharko lirateke: erabiltzaiaren identifikazioa (erregistratuta badago) edo IP helbidea, denbora-marka, prozesuaren urratsa edo URLa, erabiltzaileek urrats/URL horretan hautatutako aukerak, erdiespena (arrakasta/porrota), helburua bada.

Zerbitzu elektroniko baten elkarrekintza-datuak eskuratzeko traben aurrean, kapitulo honetan arlo horretan egindako bi ekarpen aurkeztuko ditugu, ikasketa automatikoko prozeduretan oinarritzen direnak. Lehenengoan, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) webgunean matrikulazioaren inguruko informazioa ematen duen zonaldeko elkarrekintza zerbitzu elektroniko gisa modelatu genuen. Bigarrenean aldiz, European zerbitzu elektronikoen erabileraaren analisi empirikoa egin genuen, Eurostatek emandako inkestetan oinarrituta. Lehenengo ekarpenean, hainbat sistema eraiki genituen bi erabiltzaile mota nagusi automatikoki sailkatzea eta ezaugarrizko: EHuko matrikulazioaren inguruko informazioa irakurtzen zuten erabiltzaileak eta bilaketa-lanak egiten ari zirenak informazioa topatu ahal izateko. Eurostatek egindako inuesta batzuen datuetan oinarritutako bigarren ekarpenean aldiz, gobernu elektronikoko zerbitzuen erabilera kuantifikatzeko bi indize definitzen ditugu (EGUI/EGUI⁺), eta gainbegiratutako ikasketa-procedurak erabiliz, zerbitzu elektroniko horien erabilera-maila baliogabea eta aurreratua ezaugarritzen ditugu.

7.2. E-Zerbitzuen elkarrekintzaren modelatzea

Ekarpen honetan Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean egindako ikerketa aurkezten dugu. 2016ko otsailetik martxoaren erdialdera arte, unibertsitateak bere webgune osoko nabigazio-datuetaara sarbidea eman zigun. Etorkizunean zerbitzuan hobekuntzak egiteko baliagarriak izan daitezken argibideak emateko, gure azterketaren bi helburu nagusiak hauek ziren: unibertsitateko webgunean matrikulazioaren inguruko informazioa ematen duen zonaldea (www.ehu.eus/web/sarrera-acceso) zerbitzu elektroniko gisa modelatzea eta ahalik eta ezagutza gehien ateratzea datu-meatzaritzako prozesuen bidez.

Hasieran, unibertsitatearen webgune osoaren egitura eta edukia aztertu genuen, matrikulazio zonaldearekin lotutako eremuak identifikatzeko. Gero, zonalde zehatz horren erabilera aztertu genuen, zerbitzarietan biltegiratutako log

7.2. E-ZERBITZUEN ELKARREKINTZAREN MODELATZEA

fitxategietako erabiltzaileen nabigazio-saioak erauziz. Zentzu honetan, saioak arrakasta edo porrot gisa etiketatu genituen nabigazioaren amaieraren arabera. Azkenik, gainbegiratutako eta gainbegiratu gabeko ikasketa-algoritmoak erabili genituen hiru galdera esanguratsu erantzuteko. Lehenengoa, erabiltzaleak bisitatutako URLen sekuentziak eta erabiltzailearen nabigatzeko moduak (erabiltzaileen saioak irudikatzeko erabilitako bi informazioek) bere nabigazioaren arrakastari edo porrotari eragiten dion. Bigarrena, bi informazio iturriak, nabigazio-sekuentzia eta nabigazio-modua, lotura estua duten. Hirugarrena, saio berrien arrakasta edo porrotaren aurreikuspena posiblea den, soilik saioaren hasiera aztertuz.

7.2.1. Testuingurua: Euskal Herriko Unibertsitatearen webgunea

UPV/EHU Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa da, eta eskuadre horretako hiru probintzietan ditu campusak: Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban. 1980an ezarri zuten erakunde hori, eta 45.000 ikasle inguru eta 3.500 langile inguru ditu.

Ikerketa honetan UPV/EHUren web orriaren erabilera aztertu genuen (www.ehu.eus), gure interesa matrikulazio-zerbitzu elektronikoa izanik (ikus 7.1. Irudia.)

The screenshot shows the main navigation bar in Euskara and Spanish, with links to Arabako, Bizkaiko, and Gipuzkoako Campuses, and a search bar. The main content area is titled 'Unibertsitaterako sarbidea' and shows a sidebar with links like 'Informazio orokorra', 'Aurkezpena', 'Langileak', 'Harremanetarako informazioa eta kokapena', 'Sartzeak', 'Egutegia', 'Izena emateko prozesua eta onarpena', and 'Ikasketa desberdinak aldi beraean egilea'. The main content area features several cards: 'Gradueta onarpen kontsulta 2019/2020' (with a photo of students), 'Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioaren (USE) emaitzak' (with a colorful graphic and text 'Ezohiko deialdia'), '2019/20 ikasturterako Medikuntza Gradurako onarpena' (with a photo of a person in a lab coat), and '2019/2020 ikasturtean UPV/EHUko graduatetarako sarrera eta onarpena' (with a table of numbers).

7.1. Irudia: UPV/EHU-ko matrikulazio zonaldeko hasierako orria (www.ehu.eus/web/sarrera-acceso).

Unibertsitate honek online matrikulatzeko prozedura bat du, GAUR izeneko aplikazioak bideratzen duena. Hala ere, prozesu hori osatzeko erabiltzailea

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

logeatuta egon behar da, eta erakundeek zailtasunak dituzte datu hauek emateko, pribatutasun kontuen ondorioz. Beraz, matrikulazio zonaldeko nabigazioei erreparatuko genien, zonalde horren domeinu nagusia www.ehu.eus/web/sarrera-sarrera izanik.

Matrikulazio zonaldera sartzeko, webguneko URL guztietan agertzen den goiko menua erabil daiteke (Unibertsitatera sartzeko bideak izeneko aukera). Zonalde honek unibertsitateari buruzko informazioa ematen du (langileak, hurrenetarako informazioa eta kokapena), unibertsitaterako sarbideari buruz (sartzeko bideak, egutegi akademikoa, izena emateko prozesua eta onarprena, ikasketen eskaintza...) eta bekei buruz.

7.2.2. Aurreprozesamendua, saioen sailkapena and datu-baseen deskribapena

Atal honetan, lehenik eta behin, Euskal Herriko Unibertsitateko nabigazio-daturekin egindako aurreprozesamendua eta saioen sailkapena deskribatuko ditugu. Ondoren, analisirako sortutako bi datu-baseak (DB-ak), nabigazio-sekuentzia (bisitatutako URLen sekuentzia) eta nabigazio-modua, azalduko ditugu. Prozesu horretarako, java proiektu bat implementatu genuen Eclipse V3.8.1 plataforman eta jar fitxategi gisa egikaritu genuen Ubuntuko 14.04 LTS terminalean.

UPV/EHUk bere log fitxategietara sarbidea eman zigun 2016ko otsailaren amaieratik martxoaren erdialdera arte. Gure azterketan, zehazki, matrikulazio informazioa ematen duen zonaldeko nabigazioei erreparatu genien. Hilabete horiek, neurri batean, bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendutako aurrematrikula epea aintzat hartzen dute, urtarrilaren erdialdetik martxoaren erdialdera arte (2016) izan ohi dena.

Aurreprozesamenduan, alde batetik, erabiltzaile-saioetako URL eskaera desegokiak ezabatu genituen, hau da, honako irizpide hauek betetzen ez zitzutenak: eskaera-metodoa $\in \{\text{GET, POST}\}$, URL luzapena $\in \{\text{aspx, .htm, .html, .pdf, .doc, .xml}\}$, URLaren edukia $\neq \{\text{admin, error, rss, piwik, wposta}\}$ eta zerbitzariaren erantzuna $= 2XX$ (erroreik gabekoa). Bestalde, analisirako, intereseko zonaldean nabigazio esanguratsua zuten erabiltzaile-saioak soilik hartu genituen kontuan, hau da, honako baldintza hauek betetzen zitzutenak: saioaren iraupena ≥ 3 klik, matrikulazio-zonaldeko URL kopurua ≥ 1 eta jarduerarik gabeko denbora tartea (saio-tartea) ≤ 10 minutu. Batez beste, aurreprozesamenduaren ondorioz saio kopurua %94 jaitsi zen.

Gure ekarpenean, erabiltzaile guztiak matrikulatzeko dauden aukera desberdinei buruzko informazioa lortu nahi zutela suposatu genuen. Horri jarraiki, erabiltzaileen saioak sailkatu genituen, amaieran bisitatu zuten web-orri motaren arabera konkretuki. Zehazki, saioetan eskatutako URLak bi irizpideren arabera ezaugarritu genituen: URLaren edukia (testua edo estekak nagusitzen ziren) eta URLaren zonaldea (matrikulazio zonaldeari zegokion ala ez).

Edukiari dagokionez, testu-formatuko URLak (.pdf/.doc/.docx) edukizko gisa sailkatu ziren. Gainerako URLak edukizko edo bideratzaile (estekak nagusi zirenean) gisa sailkatu ziren 7.1 Ekuazioan erakusten den Esteka Eduki indizea

7.2. E-ZERBITZUEN ELKARREKINTZAREN MODELATZEA

erabiliz, *Link Content index* LCIndex (Arbelaitz et al. 2016), non: *EstekaK*, *HitzK* eta *EsteketakoHitzK* web orrian dauden esteken kopurua, hitz kopurua eta dauden esteketan erabilitako hitz kopurua diren, hurrenez hurren.

$$LCndex = \frac{HitzK - EsteketakoHitzK}{EstekaK} \quad \begin{cases} \leq 10, & \text{URL bideratzailea} \\ > 10, & \text{edukizko URLa} \end{cases} \quad (7.1)$$

Azkenik, matrikulazioaren inguruko informazioa duen URL batean amaitutako erabiltzaile-saioak (edukizko URL mota eta matrikulazio zonaldeko) arrakastarekin lotzen ditugu (arrakasta gisa sailkatuta), horrek, ziurrenik, matrikulazio prozesuan lagunduko duelako. Informazio gutxi zuten orriean amaitutako erabiltzaile-saioak aldiz (bideratzailea motako URLa eta edozein zonaldeko) porrotarekin lotu genuen, ziurrenik bilaketa gisako atazak egiten ari zirelako. Matrikulatu nahi ziren erabiltzaileei erreparatu nahi genienez, matrikulazio zonaldetik kanpokoko edukizko URLetan amaitutako saioak kanpoan utzi genituen (beste testuinguru batean arrakasta izan zezaketenak). 7.1. Taulak definitutako saioen sailkapena deskribatzen du.

Saioaren azken URLa		
Saio mota	Zonaldea	Mota
Arrakasta	Matrikulazioa	Edukizkoa
Porrota	Matrikulazioa	Bideratzailea
	Ez Matrikulazioa	

7.1. Taula: Erabiltzaile-saioen sailkapena Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) webgunean matrikulazioaren inguruko informazioa ematen duen zonalderako.

Nabigazio-sekuentzia osoetarako egindako azterketa baten arabera, saio batean bisitatutako azken URLaren izaerak (mota/zonaldea) saioko URL gehienen izaera zehazten zuen. Beraz, analisi estatistiko honek saioak sailkatzeko erabili-tako irizpidea, azken URLarena, babestu zuen. Modu honetan, porrot motako saioetan (azken URLa bideratzailea eta edozein zonaldetakoa) batez beste, porrot motako URLen proportzioa gehiengoa zen: % 53 matrikulazio zonaldeko URL batean amaitutako saioetan, eta %52 matrikulazio zonaldetik kanpoko URL batean amaitutako saioetan. Era berean, arrakasta motako saioetan (azken URLa edukizkoa eta matrikulazio zonaldeakoa), mota horretako URLen proportzioa arrakasta motako URLena baino handiagoa izan zen, %53.

Log-ak aurreprozesatu ostean eta erabiltzaile-saioak sailkatu bezain laster, datuak azterketarako prestatu genituen. Sarreran aipatu bezala, erabiltzaile-saioak bi ikuspuntuetatik aztertu genituen: nabigazio-sekuentzia eta nabigazio-modua. Bberaz hautatutako saioekin bi datu-base (DB) sortu genituen. Lehenengoan, erabiltzaile-saioak adierazteko erabiltzaileek bisitatutako URLen segidak (sekuentziak) erabili genituen zuzenean. Bigarrenean, erabiltzaile-saioak

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

adierazteko, log fitxategietako informazioan oinarrituz, eskuz kalkulatutako elkarrekintza-ezaugarriez osatutako bektorea erabili genuen, web orriko eduki eta egiturarekin konbinatuta. Bigarren DBan, saio bakoitza adierazteko erabilitako atributuak kalkulatzeko denboran, URLen sailkapenean (edukia / zonaldea) edota klik kopurueta oinarritu ginen. 7.2. Taulan erakusten den bezala, guztira, 18 elkarrekintza-ezaugarri erauzi genituen, hiru kategoriatan sailkatzen direnak: kliketan oinarritutako zazpi ezaugarri (saioaren luzera, eskatutako URLen proportzioa, edukizkoak/bideratzailek edo matrikulazio/ez matrikulazio zonaldekoak); denboran oinarritutako zazpi ezaugarri (saioaren iraupena, klikaren bataz besteko iraupena bi URL motetan eta bi zonaldeetan); trantsizioetan oinarritutako lau ezaugarri (trantsizio kopurua URL motan eta zonaldea aintzat hartuz).

Elk-ezaug.	Azalpena
Klik K	Klik kopurua (saioaren luzera).
Bid. K. %	URL bideratzaileen kopurua / saioaren luzera
Edu. K. %	Edukizko URL kopurua / saioaren luzera
M. K. %	Matrikulazioko URL kopurua / saioaren luzera
Ez-M. K. %	Ez-Matrikulazioko URL kopurua / saioaren luzera
Has. K. %	Hasierako orria diren URL kopurua / saioaren luzera
Bi.-er. K.%	Erreferentzia bilatzailea duten URL kopurua
Saio-I.	Saioaren iraupena (s)
Klik-I._avg	Klik-iraupena bataz beste (s)
Bid.-I._avg	Klik-iraupena bataz beste (s) URL bideratzaile batean
Edu.-I._avg	Klik-iraupena bataz beste (s) edukizko URL batean
M.-I._avg	Klik-iraupena bataz beste (s) matrikulazioko URL batean
Ez-M.-I._avg	Klik-iraupena bataz beste (s) ez-matrikulazioko URL batean
Has.-I._avg	Klik-iraupena bataz beste (s) hasierako orria den URL batean
Edu.-Bid. K.	Edukizko - bideratzaile URL-trantsizio kopurua
Bid.-Edu. K.	Bideratzaile - edukizko URL-trantsizio kopurua
M.-Ez-M. K.	Matrikulazioko – Ez-matrikulazioko URL-trantsizio kopurua
Ez-M.-M. K.	Ez-Matrikulazioko – matrikulazioko URL-trantsizio kopurua

7.2. Taula: Erabiltzaile-saioak irudikatzeko erabilitako elkarrekintza-ezaugarriak (nabigazio-modua).

7.2. E-ZERBITZUEN ELKARREKINTZAREN MODELATZEA

Datu-baseak hobeto ulertzeko, 7.3. eta 7.4. Tauletan erabiltzaile baten saioaren adibide bat erakusten dugu: hurrenez hurren, bisitatutako URLen sekuentzia eta log fitxategietako informazioan oinarrituz kalkulatutako interakzio-ezaugarrien balioen arabera (normalizatu gabeak), hurrenez hurren. Taula hauetan erakusten den saioaren adibidea arrakasta motakoa da, izan ere, bisitatutako azken URLa edukizkoa eta UPV/EHUko matrikulazio zonaldeko da.

Z. URLa	Mota Zonaldea
1. http://www.ehu.eus/es/web/medikuntza-odontologia/medikuntza-14-15	Bid. Ez-M.
2. http://www.ehu.eus/es/web/medikuntza-odontologia/gasteiz	Bid. Ez-M.
3. http://www.ehu.eus/documents/1546271/2600354/-horario6_vitoria_castellano_2014-2015.pdf	Edu. Ez-M.
4. http://www.ehu.eus/es/web/medikuntza-odontologia/medikuntza-plana	Edu. Ez-M.
5. http://www.ehu.eus/es/web/medikuntza-odontologia/tramiteak	Bid. EZ-M.
6. http://www.ehu.eus/es/web/medikuntza-odontologia	Edu. Ez-M.
7. http://www.ehu.eus/eu/web/sarrera-acceso/gutxieneko-notak	Edu. M.

7.3. Taula: Erabiltzaile-saio baten adibidea, bisitatutako URLen sekuentzia bezala irudikatuta (nabigazio-sekuentzia).

Kategoria	Elkarrekintza-ezaugarriak			
Kliketan oinarritutakoak	Klik K. = 7 Edu. K. % = %57 Ez-M. K. % = %86 Has.-er. K. % = %29	Bid. K. % = %43 M. K. % = %14 Has. K. %. = % 0		
Iraupenean oinarritutakoak	Saio-I. = 98 s Bid.-I. _avg = 14 s M.-I. _avg = 21 s Has.-I. _avg = 0	Klik-I. _avg = 14 s Edu-I. _avg = 14 s Ez-M.-I. _avg = 13 s		
Trantsizioetan oinarritutakoak	Edu.-Bid. K. = 2 M.-Ez-M. K. = 0	Bid.-Edu. K. = 2 Ez-M.-M. K. = 1		


7.4. Taula: 7.3. Taulan erakutsitako erabiltzaile-saioarentzat kalkulatutako elkarrekintza-ezaugarriak (nabigazio-modua).

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

7.2.3. Gainbegiratutako ikasketa-tekniketan oinarritutako sailkapen-sistema automatikoa

Hurbilpen honetan, 49 eguneko nabigazio-datuak aztertu genituen, 2016/02/23tik 2016/04/12ra. 7.2.2. Atalean deskribatutako aurreprozesamenduaren ostean, 25.467 saio lortu genituen guztira (416.354 saioen % 6 inguru), horietatik 10.734 arrakasta motakoak (%42,1) eta 14.733 (%57,9) porrota motakoak.

Lan honen etorkizuneko helburua, matrikulazio zerbitzu elektronikoaren erabiltzaile-saio berriak sailkatzeko gai izango den sistema bat eraikitzea da. Helburu horrekin, lehen hurbilpen honetan gainbegiratutako ikasketa-teknikak erabili genituen, elkarrekintza-ezaugarriak dituen datu-basean. Zehazki, gainbegiratutako bi aukera aztertu genituen saioak automatikoki sailkatzeko: bat 10 C4.5 (J.R Quinlan 1993) zuhaitz eraikiz eta beste bat 10 CTC (Consolidated Tree Construction) (Pérez et al. 2007) zuhaitzep. Izan ere, gainbegiratutako ikasketan oinarritutako bi aukera hauek bi abantaila nagusi dituzte: batetik, sistemak saio berriak arrakasta edo porrot gisa sailkatzeko duen diskriminazio gaitasuna espezifika zehazten dute; bestetik, prozesuan erabiliko diren elkarrekintza-ezaugarrien deskribapen zehatza ere ematen dute.



7.2. Irudia: 10 C4.5 eta 10 CTC zuhaitz eraikitzeko procedura, elkarrekintza-ezaugarrien datu-basea erabiliz

Hurbilpen hau gauzatzeko, datu-basearen saioak kronologikoki ordenatu genituen, eta lehenengo 25.000 saioak experimentuetarako hautatu genituen. Gero, 7.2. Irudian erakusten den bezala, datu-base berria 2.500 saioko 10 zatitan

7.2. E-ZERBITZUEN ELKARREKINTZAREN MODELATZEA

($i = 10$) banatu genuen ($Fold_i | i \in \mathbb{N}, i \leq 10$) eta zati bakoitza berriz, 250 saioko 10 segmentutan ($F_{ij} | i, j \in \mathbb{N}, i, j \leq 10$). Banaketa bakoitzean ordena kronologikoa errespetatu genuen, sistema errebal baten ustiapenean gertatzen den moduan. 10 iteraziodun balioztatze gurutzatu (10-fold cross-validation) arrunt batean bezala, datu-base honen lehen bederatzi zatiak ($Fold_i | i \in \mathbb{N}, i \leq 9$) entrenamendurako erabili ziren, eta saiorik berrienak zituen azkenengo zatia ($Fold_{10}$) aldiz, testeatzeko gorde zen. 10 zuhaitzetako bakoitza eraikitzeo, erabilgarri zeuden datuen 10 zatien segmentu zehatz bat erabili zen (lehenengoa = F_{i1} , bigarrena = F_{i2} , hirugarrena = F_{i3} eta abar). Dena dela, lehenengo bederatzi zatiako segmentu zehatzak ($F_{ij} | i, j \in \mathbb{N}, i \leq 9, j \leq 10$) beti entrenamendurako erabili genituen (2.250 saio) eta azken zatikoak aldiz ($F_{10j}, j \in \mathbb{N}, i \leq 10$) testeatzeko (250 saio). Horrela, datuen zuhaitz arteko denbora-banaketa berdina izatea bermatu genuen, zuhaitzek antzoko ikasketa prozesu antzekoak izan zitzaten, eta saio berrienak ($Fold_{10}$) testeatzeko erabiltzea ere ziurtatu genuen.

Algoritmoak Visual C++ garapen ingurune integratuan implementatuta zeuden, nahiz eta pakete ofizial gisa ere eskuragarri dauden Weka programan (M. Hall et al. 2009) (C4.5 eta J48Consolidated¹).

Idealki, sailkatzale onena sailkapen-jardun onena duena izango litzake, hau da, sailkapen-akats baxua duena eta azalpen simple eta egonkorra duena. Batez besteko erroreari dagokionez, C4.5 erabaki-zuhaitzek balio baxuagoa lortu zuten (0,0500) CTC zuhaitzek baino (0,0626). Aldiz, CTC zuhaitzek ROC Kurbaren Azpiko Azaleraren (AUC) batez besteko balio altuagoa lortu zuten (0,9828), C4.5 zuhaitzek lortutakoarekin alderatuz (0,9665). Antzemandako AUC balio altuek nahiz sailkapen-akats txikiiek erakutsi zuten bi zuhaitz mota horiek gai zirela definitutako arrakasta eta akats motako nabigazioak diskriminatzeko. Dena den, biak hobeto konparatzeko, parekatutako t-testa egin genuen, aipatu bi metrikak erabiliz. T-testak, agerian utzi zuen, batetik, CTC prozedurak lortutako AUC balioa C4.5 prozedurak lortutakoa baino nabarmen hobea izan zela (0,05 esangura-maila). Bestetik, testaren arabera, bi prozedurek lortutako sailkapen-akatsen artean ez zegoen alde estatistikoki esanguratsurik (0,05 esangura-maila). Zuhaitzen azalpen-gaitasunari dagokionez, CTC zuhaitzen egiturak simpleagoak zirela antzeman genuen, hosto eta barneko nodo kopuruak bataz beste (14,4 eta 13,4, hurrenez hurren) C4.5 prozedurak lortutakoak baino baxuagoak izan baitziren (44,3 eta 43,3, hurrenez hurren). Ondorioz, CTC prozedurak emandako azalpena egonkorragoa zela esan genezake, zuhaitzen arteko nodo komunen batez besteko balioa (%21,81) C4.5 prozeduran lortutakoa (%6,02) baino han-diagoa izanik.

Beraz, CTC prozedura aukerarik onena zela baieztaatu genuen, AUC balio nabarmen hobea lortu baitzuen, eta azalpen egonkorragoak eta simpleagoak eman zituelako. CTC zuhaitzen egituraren arabera, saio mota bakoitza (arrakasta/porrota) bereizteko elkarrekintza-ezaugarri nagusiak honakoak izan ziren: edukizko edo bideratzaile motako URL batean egindako klik baten batez besteko iraupena (Ed.-I._ Avg eta Bid.-I._ avg), edukizko URLen proportzioa saioan (Edu. K. %) eta edukizko eta bideratzaile motetako URLen arteko trantsizio

¹<http://www.sc.ehu.es/aldapa/weka-ctc/>

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

kopurua (Edu.-Bid. K.). Zehatzago esanda, nabigazio mota bakoitza bereizteko arau hauek nabarmendu zituen CTC prozedurak:

Porrota motako saioak detektatzeko arau nagusiak:

- (Edu.-I._avg \leq 13,95 s) ETA (Bid.-I._avg $>$ 14,06 s)
- (Edu.-I._avg \leq 13,95 s) ETA (Bid.-I._avg \leq 14,06 s)
ETA (Edu. K.% \leq %15)

Arrakasta motako saioak detektatzeko arau nagusiak:

- Edu.-I._avg $>$ 13,95 s
- (Edu.-I._avg \leq 13,95 s) ETA (Bid.-I._avg \leq 14,06 s)
ETA (Edu. K. % $>$ %15) ETA (Edu.-Bid. K. \leq 0,01)

Beraz, porrota motako saioak estuki lotuta daude edukizko URLen iraupen laburrekin (Edu.-I._avg \leq 13,95 s) eta URL bideratzaileen iraupen luzeekin (Bid.-I._avg $>$ 14,06 s). Horrek maila batean, informazioa aurkitu ezin duten erabiltzaileen nabigazioa adieraz lezake. Gainera, bi elkarrekintza-ezaugarri hauetan balio txikiak eskuratzenten dituzten saioek Edu.-I._avg/Bid.-I._avg ai-patu zuten, eta edukizko URLen proportzio txikia dutenek (Edu. K. % \leq %15) porrot motakoak izateko aukera handiagoa dute. Arrakasta-motako saioek al-diz, lotura estua dute edukizko URLetako batez besteko denbora luzeagoekin (Edu.-I._avg $>$ 13,95 s). Neurri txikiagoan, honako ezaugarriek ere arrakasta motako saioekin lotura dutela antzeman genuen: edukizko eta bideratzaile motetako URLen iraupen laburrek, edukizko URLen proportzio altuek eta edukizko eta bideratzaile motetako URLen arteko trantsiziorik ezak (Edu.-Bid. K. \leq 0,01).

Azkenik, nabarmentzekoa da arrestian aipatutako arauak eta C4.5 zuhaitzek emandakoak oso antzekoak izan zirela. Horrek indartu egiten du aztertutako elkarrekintza-ezaugarrien baliozkotasuna, zehaztutako saio motak bereizteko. Beraz, uste dugu lortutako ondorioak oso eraginkorrak izango direla erabiltzaile saio berriak sailkatzen eta etorkizunean EHUREn matrikulazio zerbitzu elektro-nikoa hobetzeko.

Gainera, gainbegiratutako eta gainbegiratu gabeko ikasketa-teknikekin eraikitako sailkapen sistemengatik zehaztasun-tasak konparatzea erabaki genuen, arrakasta eta porrota motako saioak sailkatzen eta lortutako zehaztasun-tasari dagokionez. Beraz, hurrengo atalean, gainbegiratu gabeko ikasketa-prozeduretan oinarrituz eraikitako hainbat sailkapen-sistema deskribatuko ditugu: es-kuragarri zeuden saio-irudikapen bakoitza erabiltzen dutenak (nabigazio-sekuentzia/nabigazio-modua) eta bi irudikapenak konbinatzen dituztenak.

7.2. E-ZERBITZUEN ELKARREKINTZAREN MODELATZEA

7.2.4. Gainbegiratu gabeko ikasketa-tekniketan oinarritu-tako sailkapen-sistema automatikoa

Ekarpren honen helburua, UPV/EHU-ren webgunean matrikulazioaren inguru-ko informazioa ematen duen zonaldea modelatzea zen, etorkizunean hobetu ahal izateko. Horretarako, bi jomuga zehaztu genituen, arrakasta eta porrota motako saioak ezaugarritza eta porrota motako saioak antzematea (behar izanez gero esku-hartzeko). Jomuga hauek gauzatzeko, alde batetik, deskribatu berri dugun lehen hurbilpenean, gainbegiratutako ikasketa-prozeduran oinarritutako sailkapen-sistema automatikoa bat sortu genuen. Sistema honean log-fitxategietako eskuragai zegoen informazioan oinarrituta kalkulatutako elkarrekintza-ezaugarriak erabiltzen genituen. Bestalde, bigarren hurbilpen honetan, gainbegiratu gabeko ikasketa-teknikek erabiltzaile-saio berriak automatikoki sailkatzen dute potentziala aztertu dugu, baina erabiltzaile-saioei dagozkien bi irudikapenak erabiliz, hau da, elkarrekintza-ezaugarrien multzoa edo bisitatutako URL sekuentziak.

Helburu horrekin, lehenik eta behin aztertutako bi irudikapenak, erabiltzaile-saio bat arrakasta edo porrot motakoa izango den erabakitzeko esanguratsuak ote diren aztertuko dugu. Bestalde, bi irudikapenak saio berrien mota aurreikusteko erabil daitezkeen eta osagarriak diren ala ez aztertuko dugu. Erabili-tako gainbegiratu gabeko ikasketa-teknikek, alde batetik, arrakasta eta porrot patroiak ezaugarritza ahalbidetu ziguten. Bestalde, bi saio-irudikapenentzat lortutako klusterretan kalkulatutako zentroideek, patroi egonkorra ematen dituzte; patroi hauek arrakasta eta porrota motako saioen sailkapen-sistema egokitzeko aukera ematen dute, haien doitasun-maila kontrolatzeko baliagarria dena. Hurrengo ataletan egindako analisia deskribatuko dugu.

Nabigazio-sekuentzia eta nabigazio-moduaren gaitasun diskrimina-tzailearen analisia

Hurbilpen honetan, 53 eguneko nabigazio-datuak aztertu genituen, 2016/02/23tik 2016/04/16ra, eta, aurreprozesamenduaren ondoren, 26.467 saio lortu genituen guztira. Lehenengo 49 egunetako 25.467 saioak (aurreko hurbilpenean aztertutako denbora-tarte berbera) bi helbururekin erabili ziren: batetik, UPV/EHUko webgunean matrikulazioaren inguruko informazioa ematen duen zonaldea modelatzeko erabili ziren eta bestetik, saio hauek gainbegiratu gabeko sailkapen-sistema automatikoak eraikitzen. Azken lau egunetako saioak (1.000 saio) aldiz, sailkatzaile horiek baliozkotzeko gorde ziren. Baliozkotzerako erabilitako datu-basean, klase-distribuzioa modelatze-datuek zutenaren antzekoa izan zen: %37,9 (~ %42,1) arrakasta motako saioak eta %62,1 (~ %57,9) porrota motako saioak.

URL sekuentziekin eraikitako datu-basea (nabigazio-sekuentzia) irudikapen honen eta zehaztutako saio moten arteko erlazioa aztertzeko erabili genuen. Sekuentziak kalitate handiko (Barioni et al. 2008) klusterretan taldekatzea ahalbi-detzen duen PAM (k-medoids) (Kaufman et al. 1990) clustering algoritmoa era-bili genuen edizio distantziarekin (*edit distance*). Oro har, clustering-prozedura

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

batean, hautatutako kluster kopurua (k) idealki handia da, mota bereko ahal beste kasu dituzten multzoak sortzen laguntzen baitu. K balioa Silhouette Klusterraren Balidazio Indizearen arabera hautatu genuen, (Arbelaitz et al. 2013b), honakoa adierazi zuelarik: $k=50$ kluster-konfiguraziorik egokiena zela, frogatutako beste konfigurazioekin alderatuta, $k=25$, $k=75$ eta $k=100$. K bakoitzarentzat, txikitik handira ordenatuta, indizeak emandako emaitzak, 0,046, 0,069, 0,055 eta 0,047 izan ziren, hurrenez hurren.

Bi nabigazio-saio motetarako irudikapen honek zuen gaitasun-diskriminatzalea ebaluatzeko, arrakasta edo porrot-kasuen nagusitasuna %74tik gorakoa zuten klusterrak aztertu genituen. Hautatutako klusterretan, multzokatutako saioen kopurua esanguratsua izan zen (datu guztien %42), eta saio mota bakoitzaren ordezkapena ere egokia izan zen (%12 arrakasta eta %29 porrota). 7.5. Taulak arrakasta motako zortzi klusterretan eta porrota motako 17 klusterretan multzokatutako adibide motak laburbiltzen ditu.

7.5. Taulak erakusten du klusterren erdiek (25) klase bateko edo beste ko proportzioa %74tik gora dutela. Datu-base osoak porrota motako 14.733 erabiltzaile-saio ditu, eta porrota gisa etiketatutako klusterretan aldiz, 6.669 saio daude. Ondorioz, datu-base osoan porrota motako saioen proportzioa %58 bada ere, porrota motako klusterren barruan probabilitate hori %89ra igotzen da. Era berean, datu-base osoan arrakasta motako saioen proportzioa %42 iza-nik, hautatutako arrakasta motako klusterretan ordezkaritza hori %82ra igotzen da.

Ezaugarria	$\geq \%74$ arrakasta-saio k. duten klusterrak	$\geq \%74$ porrota-saio k. duten klusterrak
Kluster k.	8 (%16)	17 (%34)
Arrakasta-saio k.	2.551 (%81,9)	842 (%11,2)
Porrota-saio k.	564 (%18,1)	6.669 (%88,8)
Saio k.-klusterretan	3.115	7.511
Saio k.-DBan (%)	%12,20	%29,50

7.5. Taula: PAM ($k=50$) algoritmoaren emaitzak URLen sekuentziekin eraiki-tako datu-basean.

Emaitza hauen arabera, nabigazio-sekuentzia (bisitatutako URLak) eta erabiltzaile-saio baten arrakasta/porrota konektatuta daude. Be-ratz, UPV/EHUko matrikulazio e-Zerbitzuko erabiltzaile berrien nabigazioak nabigazio-sekuentziaren arabera automatikoki sailkatzea aukera dagoela on-doriozta dezakegu.

Saioen elkarrekintza-ezaugarriak dituen datu-basea (7.2. Taula) erabiltzearen helburu nagusia, gainbegiratu gabeko ikasketa-prozedurek gainbegiratutako hurbilpenean lortutako emaitzak babesten ote zituzten jakitea zen. Besteala esanda, nabigazio-moduak saio baten arrakastarekin/porrota-rekin lotura estua ote zuen aztertu nahi genuen. Zehazki, k-means algoritmoa (Lloyd 1982)

7.2. E-ZERBITZUEN ELKARREKINTZAREN MODELATZEA

distantzia euklidearrarekin egikaritu genuen $k=50$ erabiliz, aldez aurretik normalizatutako (banaketa normala) elkarrekintza-ezaugarrien datu-basean. Gero, arrakasta edo porrota motako saioen nagusitasuna %74tik gorakoa zuten klusterrak hautatu genituen, datu-base osoko saio kopuruaren %43 multzokatuz (%14 arrakasta-saio eta %29 porrota-saio). Emaitzak 7.6. Taulan agertzen dira.

Nabigazio-sekuentzien datu-basearekin gertatu zen bezala, 7.6. Taulak erakusten du klusterren erdietan baino gehiagotan (27/50), definitutako saio motetako baten edo bestearen proportzioa %74 baino handiagoa dela. Porrota-klusterren kasuan, porrota motako 6.842 saio daude, hau da, hasierako datu-basean porrota-saioek zeukaten %58ko ordezkaritza, kluster hauetan %93ra igotzen da. Era berean, hasierako datu-basean arrakasta-saioen ordezkaritza %42 izanik, arrakasta-klusterretan kopuru hori %88ra igotzen da. Beraz, emaitzek erakusten dute nabigazio-modua diskriminatzailea dela definitutako bi nabigazio motentzat, arrakasta eta porrota.

Ezaugarria	$\geq \%74$ arrakasta-saio k. duten klusterrak	$\geq \%74$ porrota-saio k. duten klusterrak
Kluster k.	6 (%12)	21 (%42)
Arrakasta-saio k.	3.212 (%87,7)	544 (%7,4)
Porrota-saio k.	451 (%12,3)	6.842 (%92,6)
Saio k.-klusterretan	3.663	7.386
Saio k.-DBan (%)	%14,40	%29,00

7.6. Taula: K-means ($k=50$) algoritmoaren emaitzak elkarrekintza-ezaugarrien datu-basean.

Nabigazio-sekuentzia eta nabigazio-moduaren arteko konparaketa

Aurreko paragrafoetan erakutsitako emaitzen arabera, esan dezakegu saio mota (arrakasta edo porrota), aztertutako bi irudikapenen araberakoa dela, nabigazio-sekuentzia eta nabigazio-modua. Hala ere, interesgarria litzateke jakitea bi irudikapenek lotura estua duten ala ez. Galdera horri erantzuteko, bi clustering-prozedurekin lortutako partizioak konparatu genituen Jaccard (Jaccard 1908) indizea erabiliz. Indize honek oso balio txikia (0,04) eman zuen konparazioan, bi emaitzak nahiko desberdinak direla erakutsiz. Bestela esanda, indizearen arabera, UPV/EHUREn matrikulazio-zonaldeko nabigazioan, nabigazio-sekuentziak (bisitatutako URLak) eta elkarrekintza-ezaugarriek deskribatutako nabigazio-modua independenteak direla. Beraz, URL zehatz bakoitzaren diseinuak erabil-tzaileak nabigatzeko duen moduan ez duela eragin handirik esan genezake.

Beraz, printzipioz, erabiltzaile berriei webguneko matrikulazio zonaldean egindako nabigazioa sailkatzea, bi ikuspuntuak, erabilgarriak eta osagarriak izan litezke. Honi dagokionez, hurrengo paragrafoetan, Gainbegiratu gabeko ikasketa-tekniketan oinarritutako sailkapen-sistema automatikoen deskribapena

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

atalean, hipotesi hauek frogatzeko egindako baliozkotze-prozesua deskribatuko dugu.

Saio moten ezaugarriztea nabigazio-moduan oinarrituz

Bi nabigazio motak modelatzeko, arrakasta motako sei klusterren eta porrota motako 21 klusterren ezaugarri nagusiak erauzi genituen, 7.7. Taulan laburbilten direnak. Taularen arabera, hauek dira porrota-saioen ezaugarri nagusiak, arrakasta-saioekin alderatuta: batez besteko klik sekuentziak handiagoak dira (Klik K. = 13,1 vs. 6,2); bideratzaile motako URLak maizago bisitatzen dituzte (Bid. K (%) = %80 vs. %30); barne-nabigazioak (matrikulazioa) eta kanpo-koak (ez-matrikulazioa) orekatuagoak dira (M. K. (%) = %48 vs. %92); saioen iraupena handiagoa da (Saio-I. = 184,6 s vs. 106,3 s); URL bideratzaile batean egindako klik baten batez besteko iraupena handiagoa da (Bid.-I. avg = 27,8 s vs. 11,7 s); edukizko URL batean egindako klik baten batez besteko iraupena laburragoa da (Edu.-I.T. avg = 7,4 s vs. 20,9 s); gutxienez trantsizio bat dago matrikulazio-zonaldetik zonalde horretatik kanpora (M.-Ez-M. K. = 0,8 vs. 0); ia ez dago trantsiziorik matrikulazioa ez den zonaldetik matrikulazio zonaldera (Ez-M.-M. K. = 0,4 vs. 1,1).

Elkarrekintza-ezaugarriak	Porrota motako saioak (21 kluster)	Arrakasta motako saioak (6 kluster)
Klik K.	13,1	6,2
No. scat. %	80	30
No. cont. %	20	70
M. K. %	48	92
Ez-M. K. %	52	8
Saio-I. (s)	184,6	106,3
Bid.-I. avg	27,8	11,7
Edu.-I. avg	7,4	20,9
Bid.-Edu. K.	1,95	1,19
Edu.-Bid. K.	0,91	2,04
M.-Ez-M. K.	0,8	0
Ez-M.-M. K.	0,4	1,1

7.7. Taula: Saioen elkarrekintza-ezaugarri nagusiak, nabigazio-moduaren irudi-kapenean lortutako arrakasta motako sei kluster eta porrota motako 21 klusterrretan.

7.7. Taulan adierazitakoa, partzialki bat dator 7.2.3. Atalean deskribatutako gainbegiratutako ikasketa-sisteman erabilitako CTC zuhaitzek emandako arau nagusiekin. Izan ere, taulan letra lodiz markatuta dauden elkarrekintza-ezaugarriak erabakigarriak izan baitziren saioa sailkatzeke: kliken bataz besteko iraupena edukizko edo bideratzaile motako URLetan, edukizko URLen proportzia saioan eta edukizko URLen eta URL bideratzaileen arteko trantsizio ko-

7.2. E-ZERBITZUEN ELKARREKINTZAREN MODELATZEA

purua. Erabaki zuhaitzen arabera aldiz, 13,95 segundo baino gutxiagoko kliken bataz besteko iraupena eduki-motako URLtan (beste arau batzuekin batera) porrot motako saioen ezaugarri nagusietako bat zen, eta kontrako kasua, berriz, arrakasta-motako saioena.

Gainbegiratu gabeko ikasketa-tekniketan oinarritutako sailkapen-sistema automatikoen deskribapena

Lehen aipatu bezala, hasierako datu-basearen 1.000 saio sistema baliozkotzeo (baliozkotze datu-basea) gorde genituen. Saio horiekin bi datu-base eraiki genituen aipatu bi irudikapen erabiliz, bisitatutako URL sekuentzia gisa (nabigazio-sekuentziaren irudikapena) eta 7.2. Taulan deskribatutako elkarrekintza-ezaugarrien bektore gisa (nabigazio-moduaren irudikapena). Hurrengo paragrafoetan clustering-prozedurak erabiliz sortutako hiru sailkatzale automatikoak deskribatuko ditugu: bat nabigazio-sekuentzian oinarrituta, beste bat nabigazio-moduan oinarrituta eta azkena bi irudikapenetan oinarrituta.

Nabigazio-sekuentzian oinarritutako sistemak, lehenik eta behin hautatutako 25 arrakasta/porrota-klusterren (arrakasta/porrota motako saioen ordezkapena $\geq 74\%$ dutenak) medoideak kalkulatu genituen (7.5. Taula). Gero, medoide bakoitzaz zegokien klusterreko klase nagusi gisa etiketatu genuen. Ondoren, nabigazio-sekuentziaren datu-baseko saio berri bakoitzerako, edizio-distantzia erabiliz, 10 medoide gertuenak kalkulatu genituen: *10-Nearest Medoids, 10-NM*). Azkenik, saio berri bakoitzaz gehien bozkatutako klase gisa etiketatu genuen, medoide gertuenen kopuru (*km*) desberdinak erabiliz: *km-NM*; $km \in \{1, 3, 4, 7, 8, 9, 10\}$. Sistemen zehaztasun-tasak (%) baliozkotze datu-basean saio mota ongi igarri zaien adibideen kopuru gisa kalkulatu genuen (ikus 7.8. Taula). 10 medoide gertuenak erabiltzen zituen bozketa-sisteman onena zela ikusi genuen, $61,90\%$ zehaztasun-tasa lortu zuelarik, emaitza ez oso onak beraz.

Medoideekin egindako bozketa-sistemak (<i>km-NM</i>)						
	1-NM	3-NM	5-NM	7-NM	9-NM	10-NM
Zehaztasun-tasa (%)	55,70	56,10	55,90	61,80	59,90	61,90

7.8. Taula: Nabigazio-sekuentziaren datu-basean erabilitako PAM ($k=50$) algoritmoarekin lortutako 25 arrakasta/porrota-klusterren *km* medoide gertuenetan *km-NM* oinarritutako bozketa-sisteman zehaztasun-tasak (%).

Era berean, nabigazio-moduan oinarritutako sistemak, 27 arrakasta/porrota-klusterren zentroideak kalkulatu genituen (batez besteko), arrakasta/porrota-saioen ordezkaritza $\geq 74\%$ dutenak (7.6. Taula). Ondoren, zentroide bakoitzaz zegokion klusterraren klase nagusi gisa etiketatu genuen. Gero, nabigazio-moduaren datu-base berrian, saio bakoitzaz gehien bozkatutako klasearekin etiketatu genuen, distantzia euklidearrauen kalkulatutako zentroide gertuenen kopuru desberdinak (*kc*) erabiliz: *kc Nearest*

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

Centroids, $kc\text{-}NC$; $kc \in \{1, 3, 5, 7, 9, 10\}$. Sistema honen emaitzak (ikus Taula 7.9.) aurrekoak baino hobeak izan ziren. Kasu honetan, sistema onena bost zentroide hurbilenak ($5\text{-}NC$) erabiltzen zituen bozketa sistema izan zen, %78,2ko zehaztasun-tasa lortuz.

Zentroideekin egindako bozketa-sistemak ($kc\text{-}NC$)						
	1-NC	3-NC	5-NC	7-NC	9-NC	10-NC
Zehaztasun-tasa (%)	75,50	76,70	78,20	77,50	76,90	74,80

7.9. Taula: Nabigazio-moduaren datu-basean erabilitako k-means ($k=50$) algoritmoarekin lortutako 27 arrakasta/porrota-klusterren kc zentroide gertuenetan $kc\text{-}NC$ oinarritutako bozketa-sistemen zehaztasun-tasak (%).

Bi sistemak osagarriak ziren ala ez aztertzeko, hirugarren sistema bat sortu genuen, aurreko bi bozketa sistema nagusien botoak konbinatzen zituena: nabigazio-sekuentziaren datu-basean oinarritutako bozketa sistema desberdinen botoak, $km\text{-}NM$; $km \in \{2, 3, 4, 5, 6\}$, eta nabigazio-moduaren datu-baseetan oinarritutako sistemarik onenaren botoak ($5\text{-}NC$). Ondorioz, saio berri bakotza km medoide gertuenen eta kc zentroide gertuenen artean gehien bozkututako klase gisa sailkatu genuen. Bozketa-sistemarik onena bederatzi bizilagun gertuenak erabiltzen zituela izan zen ($9\text{-}NN$), zehazki, nabigazio-sekuentziaren datu-baseari zegozkion lau medoide gertuenak ($4\text{-}NM$) eta nabigazio-moduaren datu-baseari zegozkion bost zentroide gertuenak ($5\text{-}NC$) erabiliz. 7.10. Taulak konfigurazio desberdinatarako lortutako zehaztasun-tasak erakusten ditu. Sistema konbinatu honetan bestelako estrategia konplexuagorik diseinatu ez bada ere, badirudi bi aukerak osagarriak izan litezkeela.

Meoideekin eta zentroideekin egindako bozketa-sistemak ($k\text{-NN} = km\text{-}NM + kc\text{-}NC$)					
7-NN	8-NN	9-NN	10-NN	11-NN	
2-NM	3-NM	4-NM	5-NM	6-NM	
5-NC	5-NC	5-NC	5-NC	5-NC	
Zehaztasun-tasa (%)	78,20	77,90	78,70	76,90	77,40

7.10. Taula: Nabigazio-sekuentziaren datu-baseko $km\text{-}NM$ medoide gertuenekin eta nabigazio moduaren datu-baseko $kc\text{-}NC$ zentroide gertuenekin eraikitako bozketa-sistemen botoak konbinatzen dituzten sistemeten zehaztasun tasak.

Laburbilduz, baiezta dezakegu 7.2.3. Atalean deskribatutako gainbegiratutako ikasketa-tekniketan oinarritutako sailkapen-sistema automatikoak (lehen hurbilpena), atal honetan deskribatu berri ditugun gainbegiratu gabeko ikasketa-tekniketan oinarritutako sistemak baino hobeto funtzionatu zute-la (bigarren hurbilpena). Izan ere, lehen hurbilpenean lortutako zehaztasun-tasa bigarren hurbilpenean lortutako emaitzarik onena baino handiagoa izan

7.2. E-ZERBITZUEN ELKARREKINTZAREN MODELATZEA

zen (%98,28 > %78,70). Bestetik, badirudi nabigazio-moduaren irudikapena eraginkorragoa dela arrakasta eta porrota motako saioak sailkatzeko, nabigazio-sekuentziaren irudikapena baino.

Nabigazio-moduan oinarritutako porrota detektatzeko azpisistema

Azkenik, azpisistema bat eraiki genuen arazoak zituzten erabiltzaileak detektatzeko (porrota motako saioak), murrizketa-maila egokitzeko aukera ematen duena (positibo faltsuak minimizatuz).

Azpisistema honetan, saio berriak sailkatzeko (balioztatze datu-basea), soilik nabigazio-moduaren datu-baseko 21 porrota-klusterren (7.6. Taula) erabili genituen. Horretarako, lehenik eta behin saio berri bakoitzerako, hautatutako porrota-klusterren zentroide gertuena kalkulatuko genuen (*1-NC*). Gero, balioztatze datu-basea distantziaren arabera (goranzko ordena) ordenatu genuen. Zenbat eta txikiagoa izan distantzia, orduan eta handiagoa izango da patroia porrota motakoa izateko probabilitatea.

Horri esker, batetik, erabiltzaile berriak segmentatu ahal izan genituen, eta bestetik, detektatutako porrota-patroiekin antzekotasun handienak zituztenekin soilik lan egin ahal izan genuen, honako zehaztasun-tasak lortuz: %100, %99 eta %91 zehaztasun tasak kalkulatutako porrota-zentroidetik gertuen zeuden saio berrien %10, %15 eta %25 kopuruantzat, hurrenez hurren. Metodo honi esker, distantzia-atalase bat definitu ahal izan genuen (1,657) porrota-mota izateko probabilitate handia duten erabiltzaile berriak banan-banan sailkatzeko. 7.11. Taulak porrota-saioak detektatzeko azpisistemaren zehaztasun-tasa era-kusten du, gertuen zeuden saio berrien kopuru desberdinatarako (%), zentroide gertuenean oinarrituta (*1-NC*).

Saio berrien kopurua (%)							
	%100	%75	%50	%25	%10	%5	%2,5
Zehaztasun-tasa (%)	62,10	71,87	77,40	91,20	100,00	100,00	100,00

7.11. Taula: Zentroide gertuenean (*1-NC*) oinarritutako porrota detektatzeko azpisistemaren zehaztasun-tasa (%) saio berrien kopuru (%) desberdinatarako.

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

7.3. E-Zerbitzuen erabileraren modelatzea

Atal honetan, zerbitzu elektronikoen (e-Zerbitzuen) erabilera modelatzeko egin-dako ekarpna deskribatuko dugu. Bertan, Europako herrialdeetan egiten den e-Zerbitzuen erabilera enpirikoki aztertu genuen, Eurostat (Eurostat 2004) era-kundeak emandako inuesta-datueta oinarrituta.

7.3.1. Sarrera

Europako gobernuak eta administrazioek azken hamarkadetan ahalegin handiak egin arren, kontinente zaharreko eten digitalak bere horretan dirau oraindik. Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizeak, *The Digital Economy and Society Index DESI* (European Commission 2018), Europako eten digitalaren ideia bat ematen du. Zehazki, Europako Batzordeak 2014tik urtero argitaratzen duen indize konposatu bat da, Europar Batasuneko (EB) 28 herrialdeek ekonomia eta gizarte digitalerantz egindako aurrerapena neurten duena. DESIk 34 adierazle biltzen ditu politikaren bost arlo nagusitan, honela haztatuta : %25 konektibitatea, %25 giza kapitala, %15 Interneteko zerbitzuen erabilera, %20 teknologia digitalaren integrazioa eta %15 zerbitzu publiko digitalak. 2014tik 2018ra, EB-ko 28 herrialdeen arteko eten-digital altuena (maximoa-minimoa) %11 murriztu zen, %58 izatetik %47ra. Hala ere, 2018ko DESI indizea aztertuta, ikusten dugu lau herrialdek soilik lortu zituztela DESIren balio altuak ($\geq 70\%$); aldiz, gutxi gorabehera herrialdeen erdiek (15) balio ertainak ($\in [50\%, 70\%]$) lortu zituzten eta gutxi gorabehera herrialdeen herenek (9) balio baxuak ($< 50\%$). Estatistika hauek hobekuntza txiki bat adierazten badute ere, argi dago ekintza sendoagoak behar direla.

Eten digitalaren ondorioek eragindako alderdietako bat, DESIk berak (European Commission 2018) azertzen duena, gobernu elektronikoaren erabilera da. E-Gobernuak hainbat alderdi ditu, sozialak, teknikoak, ekonomikoak, politikoak eta publiko administratiboak barne, baina lan gehienek gobernu elektronikoaren eginkizuna honela definitzen dute: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) erabiltzen dituzten sistemak dira, herritarrei zerbitzu hobea emateko (Shareef et al. 2011; Layne et al. 2001). E-Gobernua teknologia digitalaren erabilera gisa definitu da, batez ere web-ean oinarritutako aplikazioak, gobernuaren informazioarako eta zerbitzuetarako sarbidea hobetzeko edota hauek modu eraginkorrean emateko. Hazkunde, garapen eta hedapen nabarmena izan duen arren, baliteke herrialde garatu eta garapen bidean dauden herrialde guztietako herritarrauk zerbitzu horiek hartzeko prest ez egotea (Carter et al. 2005).

Shareef et al. 2011 lanean aditzera ematen dute e-Gobernuak hainbat alderdi dituela, besteak beste, alderdi sozialak, teknikoak, ekonomikoak, politikoak eta administratiboak. e-Gobernuaren kontzeptu nagusi gehienak ikuspegi teknikotik eta ikuspegi sozioekonomiko eta publiko administratibo baten konbinazio batetik sortzen dira. Literatura akademikoan aldiriz, orain arte eskainitako e-Gobernuaren adopcio ereduak kontzeptualak dira nagusiki. Adibidez, DESIren barruan e-Gobernua E-Government Development Index (EGDI) izeneko indizearen bidez irudikatzen da. EGDI indizea, bi urtean behin argitaratzen da Nazio

7.3. E-ZERBITZUEN ERABILERAREN MODELATZEA

Batuen E-Government Survey delako inkestan 2010az geroztik (UN 2010), eta hiru alderdi hartzen ditu kontuan: telekomunikazio-azpiegitura, giza kapitala eta online zerbitzuak. 2018an, EGDIren batez besteko balioa EBko 28 herrialdeetarako (%80) oso altua izan zen ($> 75\%$) eta DESIren bilakaeran antzeman moduan, 2010-2018 aldirako EGDIren batez besteko balioa %14 hobetu zen (UN 2010; UN 2012; UN 2014; UN 2016; UN 2018). Nazio Batuen e-Gobernuari buruzko inkestak, UN E-Government Survey (UN 2018), eten digitalarekin zerikusia duten gai batzuk aipatzen badira ere, sarbidea, eskuragarritasuna, adina, banda-zabalera, edukia, desgaitasuna, hezkuntza, generoa, migrazioa, kokapena, gailu mugikorrik, abiadura eta erabilera erabilgarria, badirudi Europaren e-Gobernuaren egoera etorkizun handikoa dela, ikuspegi teorikotik behintzat.

Munduko Ekonomia Foroak, beste analisi kontzeptual bat ematen du sa-reko prestasunaren indizearen bidez, Networked Readiness Index (NRI), pres-tasun teknologikoa izenaz ere ezagutzen dena, Technology Readiness. Indize honek, herrialdeek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) es-kaintzen dituzten aukerak baliatzeko duten joera neurten da. NRI INSEAD eskolarekin (Europaren, Asian eta Ekiarde Ertainean campusa duen graduondo-ko negozio-eskola bat) lankidetza argitaratzen da, informazioaren teknologiari buruzko urteko txosten orokorraren barruan, Global Information Technology Report (GITR) (Dutta et al. 2015). Txosten hau IKTek nazioen lehiakortasunean eta ongizatean duten eraginaren ebaluaziorik baimenduena eta integralena dela esan ohi da. Indizeak hiru osagai ditu: herrialde edo komunitate batek es-kaintzen dituen IKTetarako ingurunea (merkatu, politika, araudia eta azpiegitura ingurunea), herrialdeko interesdun nagusiak (norbanakoak, enpresak eta gober-nuak) IKTak erabiltzeko duten prestasuna eta IKTen erabilera interesdun horien artean.

Eredu kontzeptualetatik haratago, badira ikerketa empiriko gutxi batzuk. Adibidez, Estatu Batuetako udalerrietan Schwesteren egindako azterketan (Sch-wester 2009) ondorioztatzen da e-Gobernuaren erabilera finantza baliabideen, baliabide teknikoen eta giza baliabideen funtzio bat dela. Gainerako faktore guztiak konstante mantenduz, ziur aski egoera hobea duten udalerriek gobernu elektronikoko plataforma integral bat ezartzeko aukera gehiago dituzte, hau da: aurrekontu operatibo altuagoak, lanaldi osoko IT langile gehiago eta baliabide tekniko gehiago dituztenak. Hala ere, ereduak balioztatzeko eta orokortzeko beharrezkoak izanik ere, benetako erabiltzaileen inguruko azterketa empiriko za-balak ez daude (Shareef et al. 2011).

Testuinguru horretan, gure ustez, Eurostatek informazioaren gizarteari bu-ruz egindako Erkidegoko estatistikak, Eurostat Community Statistics on Infor-mation Society Surveys (CSIS) (Eurostat 2004), aukera ematen dute Europako herrialdeetan azterketa empiriko zabala egiteko. Inuesta hauen arabera, 2018an e-Gobernuaren batez besteko erabilera (e-Government use, EGU) EBko 28 herrialdeetan ozta-ozta %52 izan zela. EGU indizea agintari publikoekin elkarre-kintza Internetez egin duten pertsonen ehuneko gisa kalkulatzen da, esaterako, webgune publikoetatik informazioa lortu eta formulario ofizialak deskargatu edo bidali e.a.

Ekarpen honen helburua, Europa osoan (EBko 26 herrialde) e-Gobernuaren

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

erabilera enpirikoari buruzko ideia batzuk eskaintza da. Horretarako, batetik, autore ezberdinek deskribatutako e-Gobernuaren erabilera aukeretan (Bélanger et al. 2008; Nam 2014; Thompson et al. 2005) oinarritu ginen. Bestetik, Eurostateko CSIS inkestetan (Eurostat 2004) egiten den e-Gobernuaren erabilearen inguruko galderi (EGU) erreparatu genion. Galdera honek, inuesta egin-dakoei, agintari publikoekin edo zerbitzu publikoekin duten harremanari buruz galdetzen die. Baliabide hauek erabiliz, bi indize definitu genituen: Gobernu elektronikoaren erabilera neurten duen indizea (E-Government Use Index, EGUi) eta muturreko bertsio bat, EGUi⁺ deritzona. EGUi⁺ indizeari dago-kionez, lau erabilera maila definitu genituen, oso altua, altua, baxua eta oso baxua, 26 herrialdeak horren arabera sailkatuz. Bestalde, e-Gobernuaren era-bilera praktikoaren (EGU) muturreko mailak ezaugarritu genituen (baliogabea eta aurreratua), Eurostataen datuei ikaskuntza gainbegiratuko prozedurak apli-katuz. Azterketa hori zehazki, aipatu EGUi⁺ lau mailetako bi herrialdeentzat egin genuen. Azkenik, EGUi⁺ indizearen arabera egindako herrialde-rankinga, Nazio Batuek (UN 2010; UN 2012; UN 2014; UN 2016) eta Munduko Ekonomia Foroak (Dutta et al. 2010; Dutta et al. 2011; Dutta et al. 2012; B. Bilbao-Osorio et al. 2013; Bilbao-Osorio et al. 2014; Dutta et al. 2015) argitaratutako lau indi-ze konposatuen arabera egindako herrialde-rankingekin konparatu genuen; lau indize horiek herrialde baten prestasun elektronikoaren maila neurten dutela-rik. Konparaketa honek, gure indizea (EGUi⁺) aipatu erakundeek emandako indizeekin maila altuan korrelatuta zegoela aditzera eman zuen.

7.3.2. Eurostateko CSIS inkestak

Atal honetan, lehenik eta behin, Eurostatek 2009-2015 aldian egindako CSIS inkestetatik (informazioaren gizarteari buruz egindako Erkidegoko estatistikak) erauzitako e-Gobernuari buruzko datuak deskribatuko ditugu. Ondoren, inuesta horietatik erauzitako informazioan oinarrituz, e-Gobernuaren erabilera praktikoak ezaugarritzeko definitutako bi indizeak azalduko ditugu, EGUi eta EGUi⁺.

Eurostateko CSIS inkestaren deskribapena

2002tik aurrera, Eurostatek CSIS inkestak urtero egin ditu honako herrialdeetan: estatu kide guztia, Europako Merkataritza Askearen Elkarteko (EFTAk) bi herrialde, etorkizunean EBko kide izateko hautagai diren herrialdeak eta EBn sartzeko prozesuan daudenak. Datuen-bilketa Europako Parlamentuaren eta Europar Batasuneko Kontseiluaren (EC) 808/2004 (European Parliament and Council of the European Union 2004) araudiaren arabera egiten da, eta 2011tik mikrodatuak Eurostati helaraztea derrigorrezkoa da.

Eurostateko CSIS inkestek etxeek eta norbanakoek duten informazio eta komunikazio-teknologien (IKT) sarbide eta erabileraaren inguruko datuak bil-tzen dituzte. Inkestak, gutxienez 16 eta 74 urte bitarteko kide bat duten etxe eta adin-tarte horretako norbanakoei zuzenduta daude. IKTen sarbideari buruzko informazioa, adb. Interneterako konexioa, etxe-mailan aztertzen dira. IKTen erabilerari buruzko estatistikek, berriz, Interneten erabilerari buruzkoak

7.3. E-ZERBITZUEN ERABILERAREN MODELATZEA

nagusiki, norbanakoentzako erantzunak hartzen dituzte kontuan. Inkestek baditzute urtero errepikatzen diren gai batzuk eta IKTen inguruko momentuko gertaera edo fenomenoen inguruan puntualki egiten diren beste galdera batzuk. Badauda urteroko sei gai nagusi: IKTetara sarbidea, ordenagailuaren erabilera, Interneten erabilera, e-Gobernua, e-Merkataritza eta e-Gaitasunak. Etxeko edo banakako ezaugarriei dagokienez IKTen sarbide eta erabileraren inguruko aldagaiak aztertzeko, gizarte-testuinguruko aldagai batzuk, t.a_i, biltzen dira (ikus 7.12. Taula), esaterako: etxe-unitatearen osaketa, diru-sarrerak eta eskualde-kokapena, eta norbanakoentzako adina, generoa, hezkuntza-maila eta lan-egoera.

e-Gobernuaren erabilera praktikoari buruzko analisirako Eurostaten 2009-2015 aldirako urteko mikrodatuak erabili genituen. Mikrodatuetan galdera batzuk urtetik urtera aldatzen zirenez, analisirako soilik urte guztietañan errepikatzen ziren IKTen inguruko zazpi galderak (g_i) eta testuinguruko zortzi aldagaiak ($t.a_i$) erabili genituen, 7.12. Taulan agertzen direnak.

Hautatutako zazpi galderen artean, bat etxe mailakoa da eta Interneterako sarbidearekin lotuta dago (IACC). Gainerako sei galderak berriz, norbanako-mailakoak dira, horietatik bi ordenagailuaren erabilera-rekin lotuta (CU/CFU) eta beste lau Interneten erabilera-rekin lotuta (IU, IFU, IBUY eta EGU). 7.12. Taularen azken lerroan, letra lodiz mendeko aldagai gisa hautatutako galdera ($m.a_i$) ageri da, gobernu elektronikoaren erabilera praktikoa neurtzeko (EGU) erabili genuena. Aldagai hau lortzeko erabiltzaileek zerbitzu publikoekin edo/eta administrazioekin Internet bidez izandako elkarrekintzari buruzko galdera erabili genuen, zehaztu zitezkeen lau elkarrekintza mota posibleak modu honeitan kodetuz: 1 bat ere eragiketarik egin ez bazuen (B); 2 informazioa eskuratu bazuen (IE); 3 informazioa eskuratu eta formulario ofizialak jaitsi bazituen (IE & FJ); 4 informazioa eskuratu, formularioak jaitxi, eta bete ondoren sistemara bidali bazituen (IE & FJ & BFB).

2008. urteari zegozkion mikrodatuetan sei herrialdeen datuak falta zirela antzeman genuenez, 2009-2015 urteetako mikrodatuak aztertzea erabaki genuen. Horrekin batera, Erresuma Batua eta Kroazia azterketatik kanpo utzi genituen, bi herrialde hauetan 2009 eta 2010 urteetako datuak falta zirelako. Ondorioz, egindako azterketan osotara, EBko 26 herrialdetako 767.691 inuesta erabili genituen. 7.13. Taulan argi ikus daiteke hautatutako herrialdeetan urte desberdinatan zehar bildutako inuesta kopurua oso aldakorra izan zela. Taulak erakusten duenez, Italia da diferentziaz inuesta gehien izan zituen herrialdea (133.698) eta kopuru txikiiena duena Malta (5.327) non inuesta kopurua Italian baino 25 bider txikiagoa den. Herrialdeen tamaina kontuan hartzen badugu aldiz, 2015ean Italiak Maltak baino 138 bider populazio handiagoa zuen. Beraz, proportzioan Maltan inuesta asko jaso zirela esan genezake.

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

Kodea	Deskribapena	Mota	Balioa	Deskribapena
HH_CHILD	Ume k.	t.a _i	[1-4]	Batetik lau edo gehiagora
HH_IQ	Diru-sarrera kuartilla	t.a _i	[1-4]	Baxuena / 2. baxuena / 2. altuena / Altuena
AGECLS	Adin-tartea	t.a _i	[1-8]	≤ 15 / $\in \{[16-24], [25-34], [35-44], [45-54], [55-64], [65-74]\}$ / $\geq [75]$
SEX	Sexua	t.a _i	[1-2]	Gizona / Emakumea
ISCED	Ikasketa-maila	t.a _i	1 2 3	LMH/DBH Batxilergo-maila Unibertsitate-maila
EMPST	Lan-egoera	t.a _i	1 2 3 4	Lanean Langabezian Ikaslea Pentsioduna
OCC_ICT	IKT-langilea	t.a _i	[0-1]	Ez / Bai
OCC_MAN	Eskulangilea	t.a _i	[0-1]	Ez/ Bai
IACC	Internetera sarbidea	g _i	[0-1]	Ez / Bai
CU	Ordenagailuaren erabilera	g _i	1 2 3	>duela urte 1/sekula \in duela (3 hilabete-urte 1) < duela 3 hilabete
CFU	Ordenagailuaren erab.-maiztasuna	g _i	1 2 3	\leq hilero/urtero \leq astero (Almost) egunero
IU	Interneten erabilera	g _i	1 2 3	\geq duela urte 1/sekula \in duela (3 hilabete-urte 1) < duela 3 hilabete
IFU	Interneten erab.-maiztasuna	g _i	1 2 3	\leq hilero/urtero \leq astero (Almost) egunero
IBUY	Internet bidezko erosketak	g _i	1 2 3	\geq duela urte 1/sekula \in (duela (3 hilabete-urte 1) < duela 3 hilabete
EGU	e-Gobernuaren erabilera	g _i / m.a _i	1 2 3 4	Batere ez IE IE & FJ IE & FJ & BFB

IE = informazioa eskuratu, FJ = formularioak jaitsi, BFB = Betetako formularioak bidali

7.12. Taula: CSIS inkestetatistik aukeratutako IKTen inguruko galderak (g_i) eta testuinguru-aldaガaiak (t.a_i) EGU menpeko aldaガaia (m.a_i) ezaugarritzeko.

7.3. E-ZERBITZUEN ERABILERAREN MODELATZEA

Herriald.	Ko	Eurostatetik jasotako CSIS inkesta-kopurua urteka							
		2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	Guztira
Austria	AT	4.634	4.620	3.178	3.454	3.371	3.291	3.455	26.003
Belgika	BE	4.049	4.109	3.872	3.899	4.000	3.794	0	23.723
Bulgaria	BG	2.832	3.325	4.876	4.064	4.682	5.167	4.847	29.793
Txipre	CY	1.562	1.601	1.879	2.350	2.234	2.677	2.609	14.912
Txekia	CZ	4.233	4.682	4.119	5.514	5.606	5.265	5.439	34.858
Danimar.	DK	3.399	3.100	2.942	2.974	3.071	3.128	3.044	21.658
Estonia	EE	2.751	3.043	2.946	3.604	3.792	2.763	1.919	20.818
Grezia	EL	1.538	1.568	1.865	1.482	1.813	2.080	2.522	12.868
Espainia	ES	8.586	9.268	9.295	8.312	8.509	8.837	9.076	61.883
Finlandia	FI	1.989	2.053	2.164	2.141	2.107	1.967	2.072	14.493
Frantzia	FR	2.180	3.323	4.819	6.517	5.675	4.831	6.711	34.056
Hungaria	HU	4.092	4.373	4.793	4.811	4.656	4.844	4.593	32.162
Irlanda	IE	4.321	4.520	3.683	6.653	6.815	6.054	5.401	37.447
Italia	IT	18.133	18.461	19.143	18.611	19.229	19.539	20.582	133.698
Lituania	LT	6.551	6.484	6.150	5.931	5.947	6.450	4.262	41.775
Luxenb.	LU	1.126	1.204	1.060	1.297	1.134	1.072	1.132	8.025
Letonia	LV	0	4.252	4.742	4.043	4.264	3.533	4.306	25.140
Malta	MT	583	634	812	709	852	881	856	5.327
Herbeher.	NL	3.304	3.323	3.392	3.563	3.459	2.954	3.435	23.430
Norvegia	NO	878	803	856	778	842	854	902	5.913
Polonia	PL	5.746	6.568	6.341	6.080	5.285	10.642	4.844	45.506
Portugal	PT	2.578	2.745	2.799	3.126	3.415	3.689	3.992	22.344
Erruman.	RO	4.731	5.688	6.154	6.216	7.819	8.570	9.405	48.583
Suedia	SE	3.207	2.976	2.124	1.033	1.110	1.067	966	12.483
Eslovenia	SI	1.136	1.213	1.235	1.210	1.384	1.318	1.157	8.653
Eslovakia	SK	2.682	3.025	2.930	3.357	3.593	3.320	3.233	22.140

7.13. Taula: Herrialdeetan 2009-2015 tartean jasotako CSIS inkesta kopurua.

Literaturaren arabera, inkestetan jasotako informazioa etorkizun handikoa da ekarpen honetan proposatutako azterketa empirikorako. Carter et al. 2005 lanak aditzera ematen duenez, hautemandako erabilerraztasuna, bateragarritasuna eta fidagarritasuna, herritarrek e-Gobernuko zerbitzu bat erabiltzeko duten asmoaren iragarle esanguratuak omen dira. Shareef et al. 2011 lanean, enpresek egindako ikerketa empirikoa dena, e-Gobernuaren adopzio-portaera (erabilerak) heldutasun-mailaren arabera aldatz doala antzeman zuten, adibidez e-Gobernuaren ikuspegia desberdinaren (antolaketari, teknologiari, ekonomiari eta gizarteari dagozkionak) ezaugarri funtzionalak desberdinak direnean. Zaila da benetan, esperientziatik jasotako IKT modernoak erabiltzeko eskumena ez duen erabiltzaile batek, e-Gobernuko sistema bat erabiltzeko asmoa erakustea, balduin eta sistema horrek lehiarako abantailaren lorpenari lotutako informatikaezagutzak eskatzen baditu. Teknologiaren, jokabidearen, ekonomiaren eta an-

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

tolaketaren ikuspegitik, aurreikusten da teknologiako esperientzia praktikorik lortzen ez duten erabiltzaileek, sistema ez onartzeko jarrera erakutsiko dute-la. Beraz, antolaketaren ikuspegitik, ordenagailuaren auto-eraginkortasuna, erabiltzaile batek ohiko gobernuko zerbitzuen ordez, e-Gobernuari dagokiena erabiliko ote duen iragarle garrantzitsua da. Bélanger et al. 2008 lanean e-Gobernuaren konfiantza-eredu bat proposatzen da, honako elementuez osatutakoa: konfiantzarako prestasuna, Interneten konfiantza (TOI), gobernuaren konfiantza (TOG) eta hautemandako arriskua. Herritarren inuesta baten emaitzen arabera (214 erantzun), konfiantza izateko prestasunak eragin positiboa du TOI eta TOG elementuetan, eta horrek, aldi berean, e-Gobernuko zerbitzu bat era-biltzeko asmoei eragiten die. Nam 2014 lanaren arabera, e-Gobernuak helburu jakin baterako duen erabilera-maila bost faktore multzo erabakigarriren arabera aurreikusten da: teknologia erabiltzeko faktore psikologikoak, pentsamolde zibikoak, informazio-kanalak, gobernuarekiko konfiantza eta ezaugarri soziodemografiko eta pertsonalak. Baldintza soziodemografikoek eragina dute e-Gobernuak emandako hainbat zerbitzu transakzionalen erabilera-mailan. Hautemandako erabilerraztasunak erraztu egiten du e-Gobernuaren bidez informazio orokorra eskuratzea.

E-Gobernu erabileraren indizeak: EGÜI / EGÜI⁺

Literaturak e-Gobernuaren erabilera maila ezberdinak identifikatzen ditu. Bélanger et al. 2008 lanean mendeko "adopzioa"aldagaia bi azpitaldetan berizi zuten:

- 1. Erabilera: e-Gobernuko sistema bat onartu eta erabiltzeko erabakia, hainbat gobernu-zerbitzutan informazioa ikusi, bildu, edota formularioak deskargatzeko, erabiltzaileak eskatzen duenaren arabera, lehiarako abantaila bat jasotzea pertzepzio positiboarekin.
- 2. Erabilera: e-Gobernuko sistema bat onartu eta erabiltzeko erabakia, gobernu-zerbitzuak bilatzeko edota hainbat gobernu-zerbitzutarako kontsultak bilatzeko, erabiltzaileak eskatzen duenaren arabera, lehiarako abantaila bat jasotzea pertzepzio positiboarekin.

Bestalde, Nam 2014 eta Thompson et al. 2005 lanetan, e-Gobernuaren erabileraren hiru helburu nagusi identifikatu zituen: informazioaren erabilera, zerbitzuaren erabilera edo gobernuarekin transakzio elektronikoetan parte hartzea, eta politiken ikerketa edo gobernuaren erabakietan parte hartzea. Lehenengo biak Bélanger et al. 2008 lanean definitutako 1. eta 2. erabileren baliokideak izan daitezke.

Definizio horiek kontuan hartuta, e-Gobernuaren erabilera praktikoa kuantifikatzeko, bi indize definitu genituen, EGÜI (*e-Government Use Index*) eta EGÜI⁺. Indize hauek eGobernuaren erabilera adierazten duen galderarentzat (EGU), jasotako erantzun kopurueta (#) oinarrituz kalkulatzen dugu, hain zuzen ere eGobernuko zerbitzuak neurriren batean erabiltzen dituztenen (EGU_i), $i \in \{2,3,4\}$) eta erabiltzen ez dutenen (EGU_i, $i=1$) arteko ratio gisa. 7.2

7.3. E-ZERBITZUEN ERABILERAREN MODELATZEA

Ekuazioak zehazten du nola kalkulatzen diren proposatutako bi e-Gobernuaren erabilera-indizeak. Iku daitekeenez, EGUIk 1. Adopzioa edo informazioaren erabileraren ideia kontuan hartzen du. $EGUI^+$ indizeak aldiz, transakzio elektronikoetan parte hartzen duten erabiltzaileak soilik kontutan hartzen dituen EGUI indizearen muturreko bertsioa da, erabilera aurreratua eta baliogabea konparatzeko dituena alegia ($\#EGU_i$, $i \in \{1,4\}$).

$$EGUI = \frac{\sum_{i=2}^4 \#EGU_i}{\#EGU_1} \quad ; \quad EGUI^+ = \frac{\#EGU_4}{\#EGU_1} \quad (7.2)$$

Herrialdea	#EGU _i				Balioa		EGUI ⁺ maila
	i=1	i=2	i=3	i=4	EGUI	EGUI ⁺	
DK	2.955	3.718	1.701	13.284	6,33	4,50	Oso Altua
NO	1.263	1.003	771	2.876	3,68	2,28	
FI	3.564	2.656	1.656	6.617	3,07	1,86	Altua
NL	7.231	3.986	1.278	10.935	2,24	1,51	
SE	3.285	2.573	2.085	4.540	2,80	1,38	
FR	11.844	5.263	4.497	12.452	1,88	1,05	
IE	16.406	2.677	1.647	16.717	1,28	1,02	
EE	8.202	4.251	394	7.971	1,54	0,97	
AT	9.747	4.993	4.451	6.812	1,67	0,70	Baxua
LU	2.948	1.083	1.982	2.012	1,72	0,68	
ES	26.320	11.815	7.409	16.339	1,35	0,62	
PT	11.689	2.784	921	6.950	0,91	0,59	
SI	3.222	1.690	1.896	1.845	1,69	0,57	
HU	14.802	5.803	3.127	8.430	1,17	0,57	
LT	23.661	4.532	329	13.253	0,77	0,56	
LV	10.589	7.706	1.263	5.582	1,37	0,53	
BE	11.525	4.528	2.303	5.367	1,06	0,47	Oso Baxua
MT	2.636	723	776	1.192	1,02	0,45	
EL	6.375	2.842	949	2.702	1,02	0,42	
CY	7.678	1.799	2.247	3.188	0,94	0,42	
SK	10.210	5.250	2.769	3.911	1,17	0,38	
IT	88.551	13.377	13.555	18.215	0,51	0,21	
BG	18.996	5.231	1.809	3.757	0,57	0,20	
CZ	21.731	6.969	2.169	3.989	0,60	0,18	
PL	29.955	6.473	3.708	5.370	0,52	0,18	
RO	39.003	5.751	1.268	2.561	0,25	0,07	

7.14. Taula: EGUI eta EGUI⁺ indizeen bataz besteko balioak (2009-2015) aztertutako 26 EB herrialdeetan.

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

7.14. Taulan herrialdeen zerrenda azaltzen da EG_i⁺ indizearen balioen arabera ordenatuta (handitik txikira). Honekin batera, Taulan, EG_U galderarako jasotako erantzun desberdinen kopurua ere azaltzen da ($\#EG_{U_i}$, $i \in \{1, 2, 3, 4\}$) eta horietan oinarrituz kalkulatutako EG_i eta EG_i⁺ indizeen balioekin batera.

EG_i⁺ balioetan oinarrituta e-Gobernuaren lau erabilera-maila desberdin du genituen: oso altua ($\geq 2,0$), altua ($\in [1, 0, 2, 0)$), baxua ($\in [0, 5, 1, 0)$) eta oso baxua ($< 0,5$). Ondoren herrialdeak zehaztutako erabilera mailen arabera sailkatu genituen. Ondorioz, bi herrialde oso erabilera maila altu gisa sailkatu ziren (DK, NO), sei maila altuarekin (FI, NL, SE, FR, IE, EE), zortzi maila baxuarekin (AT, LU, ES, PT, SI, HU, LT, LV) eta 10 maila oso baxuarekin (BE, Mt, EL, CY, SK, IT, Bg, PZ, CZ).

7.3.3. E-Gobernuaren muturreko erabileraren (EG_U) ezaugarritzea

e-Gobernuaren erabilera hobeto ulertzeko, EG_i⁺ indizearen eta beste aldagaien arteko erlazioa aztertu genuen. Hasteko, Pearsonen korrelazioa kalkulatu genuen 26 herrialdeetarako, 14 aldagai independenteen eta EG_U mendeko aldagaiaren bi muturreko balioen arteko korrelazioa lortzeko: EG_{U1} eta EG_{U4}. Horrek Europaren e-Gobernuaren muturreko erabilera mailetan gehien eragiten zuten faktoreen irudi globala eman zigun. Korrelazio-emaitzen interpretazioa errazteko, analisi honetarako garrantzirik gabeko erantzunak baztertu genituen (9 = erantzunik gabe/ez daki).

Pearsonen arabera, Internet bidezko erosketak egiteko maiztasun handia (IBUY) e-Gobernuaren erabilerarekin (EG_U) korrelazio koeficiente altuena ($|r| = 0,43$) izan zuen aldagai izan zen. Cohenen arabera (Cohen 1988), balio horrek korrelazio-maila ertain bat adieraziko luke ($0,3 < |r| < 0,5$). Gainera, ikasketa-mailaren (ISCED) eta e-Gobernuaren erabileraren artean korrelazio-maila ertain bat zegoela ere antzeman genuen ($|r| = 0,34$). Azkenik, EGUREkin maila-ertainetik gertuko korrelazioa ($|r| = 0,27$) zeukaten bi aldagai antzeman genuen: eskuzko okupazioa (OCC_MAN) korrelazio positiboarekin eta Interneten erabilera-maiztasuna (IFU) alderantzikorrelatuta. Kasu guztietan, korrelazio testaren p-balioa, alfa 0,05 esangura-maila baino txikiagoa izan zen, eta, beraz, aurkitutako korrelazioak esanguratsuak dira, balio gehienak maila-txikikoak izanik ere ($0,1 < |r| < 0,3$).

e-Gobernuaren erabileraren ezaugarri zehatzagoak aurkitzeko, gainbegiratutako ikasketako Consolidated Tree Construction (CTC) (Pérez et al. 2007) algoritmoa erabili genuen. Algoritmo horrek e-Gobernuaren muturreko bi erabilera mailak bereizteko gaitasun-diskriminatzialearekin batera, maila bakoitzari gehien eragiten zizkioten aldagaien deskribapen zehatz eta egonkorra ahalbidetu zigun. Azterketa egiteko, zehaztutako EG_i⁺ maila bakoitzetik, oso altua, altua, baxua eta oso baxua, bi herrialde aukeratu genituen (zortzi osotara).

Zehazki, Wekan (M. Hall et al. 2009) esperimentu bat egin genuen hau-tatutako zortzi herrialdeetarako, CTC egikarituz eta 14 aldagai independenteak nahiz EG_U mendeko aldagaiaren muturreko bi balioak erabiliz (EG_{U1}

7.3. E-ZERBITZUEN ERABILERAREN MODELATZEA

eta EGU_4). Hamar iteraziodun balioztatze gurutzatua (10-fold CV) erabili genuen sailkatzalearen jarduna neurtzeko. 7.15. Taulak datu-baseen ezaugarriak eta lortutako emaitzak erakusten ditu, doitasunari (Doi), estaldurari (Est), F-puntuazioari (Fp) eta zehaztasun-tasari (Zt)dagokienez. $\#EGU_i$ eta $\#EGU_i$ (%) zutabeak erakusten dutenez, datu-baseak nahiko desorekatuta daude hautatutako herrialde gehienetan. Beraz, herrialde bakoitzean EGU indizearen klase minoritarioaren ezaugarriak hobeto erauzteko, CTC honako ezaugarriekin egikaritu genuen: datu-base bakoitzaren klase minoritarioaren distribuzioa %50 eta hosto bakoitzeko gutxieneko instantzia kopurua %2 (zuhaitzaren erabakierpinen gutxieneko tamaina %2ra mugatzen duena).


Her.	EGUI ⁺ maila	#EGU _i		#EGU _i (%)		CTCren		emaitzak	
		i=1	i=4	i=1	i=4	Doi	Est	Fp	Zt
DK	Oso Altua	2.955	13.284	18	82	0,85	0,83	0,84	0,83
NO	Oso Altua	1.263	2.876	31	69	0,76	0,74	0,74	0,74
IE	Altua	16.406	16.717	50	50	0,73	0,73	0,73	0,73
EE	Altua	8.202	7.971	51	49	0,73	0,73	0,73	0,73
LV	Baxua	10.589	5.582	65	35	0,77	0,74	0,74	0,73
BE	Baxua	11.525	5.367	68	32	0,77	0,71	0,72	0,71
PL	Oso Baxua	29.955	5.370	85	15	0,86	0,74	0,77	0,74
RO	Oso Baxua	39.003	2.561	94	6	0,94	0,67	0,75	0,67

7.15. Taula: EGUREn muturreko maila bakoitzeko erantzun-kopurua ($\#EGU_i$, $i \in \{1,4\}$) eta CTCren batez besteko emaitzak EGUI⁺ lau maila dituzten zortzi herrialdetan.


7.15. Taularen arabera, CTC zuhaitzek doitasunari (Doi), estaldurari (Est), F-puntuazioari (Fp) eta zehaztasun-tasari (Zt) dagokienez lortutako batez besteko emaitzak onak izan ziren. Zehazki, 0,71tik gorako balioak lortu ziren lau taldeetan, Errumanian izan ezik, non estalduraren eta zehaztasun-tasaren balioa 0,67 izan zen. Kontutan izanda Errumania datu-base oso desorekatua duela hori ez da harritzeko, izan ere, inkesten erantzunen %94 e-Gobernua erabilten ez dutenei dagozkie ($\#EGU_1$) eta horrek klase minoritarioaren estaldura eta zehaztasun-tasa murrizten du.

Sailkapenaren zuhaitzen egiturek sailkapenaren azalpena ematen dute. Adibide gisa, 7.3., 7.4. eta 7.5. Irudietan hurrenez hurren, Danimarka, Belgika eta Poloniarako lortutako CTC zuhaitzak ikusi daitezke. Erakusten diren CTC zuhaitzetan, hosto-erpinetan agertzen den lehen zenbakiak (0/1) hosto-erpinari esleitutako klasea adierazten du (EGU_1/EGU_4); parentesiaren barruan, berriz, barra zeiharraren aurreko eta ondorengo zenbakiek osotara (ongi eta gaizki) sailkatutako adibideen kopurua eta gaizki sailkatutako kopurua adierazten dute, hurrenez hurren.


7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK



7.3. Irudia: Danimarkarako lortutako CTC zuhaitza, EGUI+ maila oso altua duena.



7.4. Irudia: Belgikarako lortutako CTC zuhaitza, EGUI+ maila baxua duena.



7.5. Irudia: Poloniarako lortutako CTC zuhaitza, EGUI+ maila oso baxua dueña.

7.3. E-ZERBITZUEN ERABILERAREN MODELATZEA

Sailkapen-zuhaitzen egitura nagusiak aztertuta, hauxe ondorioztatu dugu: EG_{UI}⁺ maila oso baxua duten herrialdeak alde batera utzita, e-Gobernuaren erabilera aurreratuak (EGU₄) lotura estua zeukala zegoen berriki egindako Internet bidezko erosketekin (IBUY=3). Aspaldi egindako Internet bidezko erosketek aldiz (IBUY = 1), e-Gobernua ez erabiltzera eramatzen zutela ikusi genuen. 7.16. Taulak CTC zuhaitzek herrialde bakoitzerako emandako arau nagusiak laburbiltzen ditu, eta haien deskribapenak hurrengo paragrafoetan ematen dira. Taulan oinarrituz, zortzi herrialdeetan e-Gobernuaren muturreko erabilera mailarekin lotutako arau nagusi hauek topatu ditugu, agerpen kopuru handienetik txikienera ordenatuta (guztira 29 agerpen izanik): Internet bidezko erosketak (IBUY) = 21/29, Ikasketa-maila (ISCED) = 14/29, Interne ten erabilera-maiztasuna (IFU) = 8/29, Ordenagailuaren erabilera-maiztasuna (CFU), Eskulan-lanbidea (OCC_MAN) = 5/29, Lan-egoera (EMPST) = 2/29 eta lanbidea IKTrekin zerikusia izatea (OCC_ICT) = 1/29.

E-Gobernuaren muturreko erabilera-mailen arau nagusiak		
Her.	Baliogabea: EGU ₁	Aurreratua: EGU ₄
DK	IBUY=1 IBUY=3 & EMPST=1/3	IBUY=3 & OCC_ICT=0 IBUY=2
NO	IFU=3 & IBUY=1 IFU≠3	IFU=3 & IBUY=3 IFU=3 & IBUY=2 & ISCED≠1
IE	IBUY=1 & CFU≠3 IBUY=1 & CFU=3 & ISDEC≠3	IBUY=3 & IFU=3 & ISCED=3 IBUY=3 & IFU=3 & ISCED=2 & AGECLS≠2
EE	IBUY=1 & OCC_MAN≠0 IBUY=1 & OCC_MAN=0 & CFU≠3	IBUY=3 & ISCED≠1 IBUY=1 & OCC_MAN=0 & CFU=3
LV	ISCED=1 ISCED=2 & IBUY=1	ISCED=3 & EMPST≠4 ISCED=2 & IBUY≠1
BE	IFU≠3 IFU=3 & IBUY=1 & ISCED≠3	IFU=3 & IBUY≠1
PL	ISCED=1 ISCED=2 & CFU≠3	ISCED=3 ISCED=2 & CFU=3 & IBUY=3
RO	OCC_MAN≠0	OCC_MAN=0

7.16. Taula: CTC zuhaitzek emandako arau nagusiak e-Gobernuaren erabilera baliogabea eta aurreratuarentzat.

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

EGUI⁺ maila oso altua duten herrialdeak: Danimarka eta Norvegia

Danimarkan, Internet bidezko erosketak gutxitan egin zituzten (IBUY = 1) eta berriki online erosi zuten langileak/autonomoak edo ikasleak (IBUY=3 & EMPST = 1/3) ez zituzten e-Gobernuko tresnak erabili (EGU₁). Bestalde, e-Gobernuko tresnak erabili zituzten Danimarkako herritarrek (EGU₄) berriki erosi zuten online eta ez ziren IKTen profesionalak (IBUY=3 & OCC_ICT= 0), edo online erosketak aspaldi xamar egin zituzten (IBUY=2), hiru hilabete eta urtebete lehenago. Danimarkan e-Gobernuaren erabilerarentzat CTC zuhaitzek jasotako arau nagusi horiek, 7.3. Irudiko klase bakoitzaren erpin adierazgarrienetan ere agertzen dira (0:EGU₁/1:EGU₄).

Norvegian, Internet ia egunero erabiltzen zuten baina aspaldi Internet bidezko erosketarik egin ez zuten pertsonek (IFU=3 & IBUY=1) eta egunero Internet erabiltzen ez zutenek (IFU≠3) ez zuten e-Gobernuko zerbitzurik erabili. Internet ia egunero erabiltzen zuten norvegiarrek eta berriki Internet bidezko erosketak egin zituztenek aldiz (IFU=3 & IBUY=3) e-Gobernua erabili zuten. Horiekin batera honako ezaugarriak zituzten norvegiarrek ere e-Gobernuko tresnak erabili zituzten: ia egunero Internet erabiltzen zuten, duela gutxi Internet bidezko erosketak egin zituzten eta ez zuten ikasketa-maila txikia (IFU=3 & IBUY=2 & ISCED≠1).

EGUI⁺ maila altua duten herrialdeak: Irlanda eta Estonia

Irlandan, e-Gobernuko tresnak erabiltzen ez zituzten (EGU₁) herritarak, aldi berean ia inoiz Internet bidezko erosketarik egiten ez zutenak eta ordenagailua egunero erabiltzen ez zutenak (IBUY =1 & CFU≠3) izan ziren. Horiekin batera, ia inoiz online erosketarik egiten ez zuten eta ordenagailua ia egunero erabiltzen zuten irlandarrek, ikasketa-maila handia zutenak (IBUY≠1), e-Gobernuak eskainitako tresnak erabili zituzten. Bestalde, e-Gobernuaren erabiltzaile aurreratuak zirela adierazi zuten irlandarrek (EGU₄) honako ezaugarriak zituzten: berriki Internet bidezko erosketak egin zituzten, Internet egunero erabili zuten eta ikasketa-maila altua zuten (IBUY=3 & IFU=3 & ISCED=3). Gainera, beste ezaugarri hauek zituzten herritarrek ere e-Gobernuko tresnak erabili zituzten: berriki online erosi zuten, Internet ia egunero erabiltzen zuten, ikasketa-maila ertaina zuten, eta 16 eta 24 urte bitarteko adin tartetik kanpo zeuden (IBUY=3 & IFU=3 & ISCED=2 & AGECLS≠2).

Estonian, e-Gobernua erabili ez zuten herritarak honako ezaugarriak zituzten: luzaroan online erosi ez zuten eskulangileak ziren (IBUY=1 & OCC_MAN≠0) edo ez zuten luzaroan online erosi, ez ziren eskulangileak eta ez zuten ordenagailua egunero erabili (IBUY=1 & OCC_MAN=0 & CFU≠3). Bestalde, e-Gobernuko tresnak erabili zituzten estonianarrek ezaugarri hauek zituzten: duela gutxi Internet bidezko erosketak egin zituzten eta ez zuten ikasketa-maila baxua (IBUY=3 & ISCED≠1), edo ez zuten aspaldi online erosi, ez ziren eskulangileak eta ordenagailua ia egunero erabiltzen zuten (IBUY=1 & OCC_MAN=0 & CFU=3).

7.3. E-ZERBITZUEN ERABILERAREN MODELATZEA

EGUI⁺ maila baxua duten herrialdeak: Letonia eta Belgika

Estonian, luzaroan online erosi ez zuten eskulangileak (IBUY=1 & OCC_MAN≠0) e-Gobernuko tresnak erabiltzeko joera adierazi zuten, bai eta luzaroan online erosi ez zutenak, eskulangileak ez zirenak eta ordenagailua egunero erabili ez zutenak (IBUY =1 & OCC_MAN=0 & CFU≠3). Hala ere, honako ezaugarriak zituzten estonianrek ere e-Gobernuko tresnak erabili zituzten: duela gutxi Internet bidezko erosketak egin eta ikasketa-maila baxua ez zutenak (IBUY=3& ISCED≠1) edo aspaldi online erosi zutenek eta eskulangileak ez zirenak, baina ordenagailua ia egunero erabiltzen zutenak (IBUY=1 & OCC_MAN=0 & CFU=3).

Belgikan, e-Gobernuko erabilera baliogabea batetik, Internet egunero erabili ez zuten herritarrekin lotuta zegoen (IFU≠3). Bestetik, erabilera baliogabea honako ezaugarriak zituztenekin ere lotuta zegoela antzeman genuen: ia egunero erabili zutenenak baina denbora luzez Internet bidezko erosketak egin ez zutenak eta ikasketa-maila handia ez zutenak (IFU =3 & IBUY=1 & ISCED≠3). e-Gobernuaren erabilera aurreratua aldiz, Internet egunero erabili zuten eta azken 12 hilabeteetan online erosi zuten herritarrekin lotura zuela ikusi zen (IFU=3 & IBUY ≠1). 7.4. Irudiko klase bakoitzaren erpin adierazgarrienetan ere CTC zuhaitzak Belgikan e-Gobernuaren erabilerarentzat adierazitako arau nagusiak ikus daitezke (0:EGU₁/1:EGU₄).

EGUI⁺ maila oso baxua duten herrialdeak: Polonia eta Errumania

Polonian, ikasketa-maila baxua zuten (ISCEC=1) herritarrek eta ikasketa-maila altua izanik ordenagailua egunero erabiltzen ez zuten herritarrek (ISCED=2 & CFU≠3) e-Gobernua (EGU₁) erabiltzeko joerarik ez zuten erakutsi. Bestalde, e-Gobernuko tresnak erabiltzen zituzten polomiarrek (EGU₄) ikasketa-maila altua zuten (ISCED=3) edo maila ertaina izanik, ordenagailua ia egunero erabiltzen zuten eta duela gutxi Internet bidezko erosketak egin zituzten (ISCED=2 & CFU=3 & IBUY=3). 7.5. Irudiko klase bakoitzaren erpin adierazgarrienetan ere CTC zuhaitzak Polonian e-Gobernuaren erabilerarentzat adierazitako arau nagusiak ikus daitezke (0:EGU₁/1:EGU₄).

Errumania izan zen herrialde bakarra non, e-Gobernuaren muturreko bi erabilera-mailetarako jasotako arauetan faktore bakarra erabiltzen zen, eskulangilearena hain zuzen (OCC_MAN): eskulangileek (OCC_MAN ≠0) ez zuten e-Gobernua erabili eta esku-lanbiderik ez zutenek aldiz bai.

7.3.4. EGUI⁺ eta beste indize batzuen arteko konparaketa

Azterketa osatzeko, E-Gobernuaren erabilera praktikoa neurteko definitzen duen indizearen jarduna, herrialde baten lotutako ezaugarrien adierazle diren (adb. e-Prestasuna) beste indize kontzeptual batzuen jardunaren antzekoa aztertu nahi izan genuen. Veraz, lau indize hautatu genituen EGUI⁺ indizearekin konparatzeko: e-Gobernuaren garapen-indizea (*E-Government Development Index*, EGDI) eta haren online zerbitzuen indizea (*Online Service Index*, OSI) eta

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

sareko prestasunaren indizea (*Networked Readiness Index*, NRI) eta bere gobernu erabilera osagaia (*Government Use*, GU). Hurrengo lerroetan aipatutako indizeak eta egindako konparaketa deskribatuko ditugu.

7.3.4.1. Indizeen deskribapena

2001etik gaur arte, Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Departamentuak (*United Nations Department of Economic and Social Affairs*, UNDESA) Nazio Batuen e-Gobernuari buruzko inuesta (*UN E-Government Survey*) argitaratu du (UN 2018). 2003an, inuesta honek e-Gobernuaren erabileraren bilakaerari buruzko azterketa bat argitaratu zuen e-Gobernuaren garapen indizean oinarrituz (*E-Government Development Index*, EGDI). Indize konposatu hori hiru indize normalizaturen (norm.) batez besteko haztatuan oinarritzen da, bakoitzari haztapenaren herena esleitz (ikus 7.3 Ekuazioa): telekomunikazioen azpiegituraren indizea (*Telecommunications Infrastructure Index*, TII), giza kapitalaren indizea (*Human Capital Index*, HCI) eta online zerbitzuen indizea (*Online Service Index*, OSI). Adierazle konposatu gisa, EGDI erakunde nazionalek IKTak zerbitzu publikoak emateko duten prestasuna eta gaitasuna neurtzeko erabiltzen da (UN 2018). Hiru osagaien adierazleak normalizatu aurretik, Z-puntuazioa deritzon estandarizazio prozedura burutzen da adierazle bakotzerako, EGDI absolutuaren erabakian hiru osagaiek pisu berbera izan dutela ziurtatzeko.

$$EGDI = \frac{1}{3}(TII_{norm.} + HCI_{norm.} + OSI_{norm.}) \quad (7.3)$$

OSI indizea, 7.3 ekuazioan deskribatutako EGDI indizearen hiru osagaietako bat, UNDESAk egindako inesta-galdetegi independente batean oinarritutako puntuazio normalizatu bat da, Nazio Batuetako 193 estatu kide guztien nazionaloko online presentzia ebaluatzen duena. Inkestaren galdelegiak online zerbitzuak ematearekin lotutako hainbat ezaugarri kalkulatzen ditu, esaterako: gobernu osoaren estrategiak, gobernu irekiaren datuak, parte-hartze elektronikoa, kanal anitzeko zerbitzuak ematea, zerbitzu mugikorrik, erabileraren onarpena, eten digitala eta lankidetza berritzaleak, IKTen erabileraren bidez. (UN 2018)

Munduko Ekonomia Foroak 2001etik urtero argitaratu du Informazioaren Teknologiaren txosten orokorra (*Global Information Technology Report* (Dutta et al. 2015)), non sareko prestasun indizea (NRI) ematen den. 7.4 Ekuazioan erakusten den bezala, NRI indize konposatu bat da, lau azpiindize nagusien arteko batez besteko haztua bezala kalkulatzen dena, haztapen guztiak laurden bat direlarik: inguruneareari dagokiona (*Environment subindex*), prestasunari dagokiona (*Readiness subindex*), erabilerari dagokiona (*Usage subindex*) eta inpaktuari dagokiona (*Impact subindex*).

$$NRI = \frac{1}{4}(Environment_{subind.} + Readiness_{subind.} + Usage_{subind.} + Impact_{subind.}) \quad (7.4)$$

7.3. E-ZERBITZUEN ERABILERAREN MODELATZEA

NRI indizearen erabilera-azpiindizeak IKTen onarpen-maila ebaluatzen du sozietate batek dituen interes-talde nagusiei dagokienez: Gobernua, enpresak eta gizabanakoak (Dutta et al. 2015). Erabilera-azpiindizea zehazki, hiru pilareran batez besteko haztatu (heren bateko haztapenak erabiliz) gisa kalkulatzen da: erabilera indibiduala, erabilera komertziala eta gobernuaren erabilera (*Government Use, GU*). Kasu honetan, gobernuaren erabilera-pilarea (GU) aztertu genuen. Pilare horrek gobernuaren lidergoa eta arrakasta ebaluatzen ditu IKTak garatzeko estrategien garapenean eta implementazioan, bai eta IKTen erabilera ere, online gobernu-zerbitzuen erabilgarritasunaren eta kalitatearen bitartez neurtutakoa (Dutta et al. 2015). Gobernuaren erabilera-pilarea (GU) hiru osagaien arteko batazbesteko gisa kalkulatzen da: IKTek gobernuaren ikuspegi rako duten garrantzia, gobernuaren online zerbitzuen indiza (*Government Online Service Index*) eta Gobernuak IKTen sustapenean izandako arrakasta.

7.3.4.2. Rankingen arteko konparaketa

Azterketan, e-Gobernuaren erabilera (EGUI⁺) honako adierazleekin konparatu genuen: e-Gobernuaren prestasuna (EGDI), sareko prestasuna (NRI), nazio-mailako online presentzia (OSI) eta gobernuaren IKTen erabilera (GU). Horretarako, aztertutako 26 herrialdeetarako indizeek emandako rankingak konparatu genituen, antzeko denbora tarteak erabiliz: 2009-2015 urteak urteko indize edo adierazleetarako, EGUI⁺, NRI eta GU (Dutta et al. 2010; Dutta et al. 2011; Dutta et al. 2012; B. Bilbao-Osorio et al. 2013; Bilbao-Osorio et al. 2014; Dutta et al. 2015); 2010-2016 urteak bi urteko indize edo adierazleetarako, EGDI eta OSI (UN 2010; UN 2012; UN 2014; UN 2016).

Zehazki, herrialdeek irabazitako edo galduztako posizioen kopurua kalkulatu genuen (balio positiboa edo negatiboa), EGDI, OSI, NRI eta GU rankingetik EGUI⁺ rankingera. 7.17. Taulan erakusten den bezala, ranking posizio aldeak, oro har, txikiak dira. Taulan ikus daitekeenez, herrialdeak hiru multzo-tan taldekatu genituen hautemandako ranking diferentziatarako ± 5 posizioko atalase-maila erabiliz (ia sailkapenaren %20), honela adierazita daudenak: urdinez eta letra lodiz bost posizio baino gehiago galdu badituzte, berdez eta letra arruntaz bost posizio baino gutxiago galdu badituzte (herrialde egonkorra) eta gorriaz eta letra etzanaz bost posizio edo gehiago irabazi badituzte.

7.17. Taularen arabera, analisian parte hartzen duten herrialde gehienentzat, batez beste (berdez eta letra arruntaz) %74 e-Gobernuaren erabilera bat dator EGDI, OSI, NRI eta GU indize kontzeptualek neurtutako ezaugarriekin. Horri dagokionez, hamabi herrialde (%46) ranking-alde txikiak dituzten talde guztietan agertzen dira (herrialde egonkorra): Austria (AT), Bulgaria (BG), Txipre (CY), Danimarka (DK), Hungaria (HU), Lituania (LT), Luxenburgo (LU), Letonia (LV), Herbehereak (NL), Norvegia (NO) eta Portugal (PL). Gainera, EGUI⁺ indizearen antzekoena EGDI dela ikusi genuen, herrialdeen %88 (23/26) mota egonkorrekoak baitira.

Bestalde, herrialdeen %16k (urdinez eta letra lodiz) soilik erakutsi zuten posizio altuagoak (<-5 posizio) gainerako indizeek emandako rankingetan EGUI⁺ indizeak emandako rankingarekin alderatuz. EGUI⁺ indizearekin alde nega-

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

tibo handiak, posizio altuagoak, dituzten taldeetan (urdinez eta letra lodiz), ez genuen herrialde komunik aurkitu. Hala ere, Txekiar Errepublika (CZ) eta Belgika (BE) komun gisa har genitzake, EGDI eta GU indizeetako urdinez eta letra lodiz adierazitako taldetik oso gertu daudelako. Bestalde, ikusi daitekeenez, sailkapen differentzia negatiboak txikiagoak izan ziren EGDI indizearentzat gainerakoentzat baino, non Txekiar Errepublika (CZ) posizio galera handienak izan zituen herrialdea izan zen, OSI, NRI eta GU rankingetako 7., 4. eta 3. posizioetatik hurrenez hurren, EGDI⁺ rankingeko 26. posiziota eroriz.

Her.	Ranking ald. EGDI-EGDI ⁺	Her.	Ranking ald. OSI-EGDI ⁺	Her.	Ranking ald. NRI-EGDI ⁺	Her.	Ranking ald. GU-EGDI ⁺
IT	-10	CZ	-19	CZ	-22	CZ	-23
BE	-7	EL	-16	ES	-9	MT	-12
PL	-6	IT	-12	BE	-6	SK	-10
CZ	-4	BE	-6	MT	-5	EL	-7
ES	-4	ES	-6	PL	-5	RO	-6
FR	-4	PL	-6	SE	-4	BE	-4
NL	-3	LT	-5	IT	-3	BG	-4
LT	-2	RO	-4	LU	-3	ES	-3
MT	-2	FI	-2	RO	-3	SE	-3
RO	-2	NL	-2	CY	-2	PT	-2
AT	0	HU	-1	EL	-2	IT	-1
BG	0	AT	0	HU	-2	LT	-1
EE	0	MT	0	AT	-1	LU	-1
EL	0	BG	1	IE	-1	PL	-1
SE	0	LV	1	NL	-1	CY	0
LU	1	NO	2	BG	1	DK	0
DK	2	PT	2	LT	1	HU	1
NO	2	CY	3	PT	2	NL	1
SI	2	SE	3	SI	2	AT	2
CY	3	SI	3	SK	2	NO	2
FI	3	SK	4	LV	3	LV	3
SK	3	DK	5	NO	3	FI	4
HU	4	LU	5	FI	7	SI	4
LV	4	FR	13	DK	8	IE	9
IE	5	IE	13	FR	14	FR	12
PT	5	EE	14	EE	16	EE	16

7.17. Taula: EGDI⁺, EGDI, OSI, NRI eta GU rankingen arteko konparaketa aztertutako 26 herrialdeetan.

Azkenik, batez besteko herrialdeen %9k posizio baxuagoak (> 5 posizio lortu zituzten (gorriz eta letra etzanaz) lau indize kontzeptualen rankingetan EGDI⁺-k emandakoetan baino, nahiz eta EGDI rankingak igoera hori duen herrialderik ez duen. Gainerako indizeetan, Estonia (EE) da ranking alde positiboak dituzten talde guztientzako herrialde komun bakarra da. Bestalde, Es-

7.3. E-ZERBITZUEN ERABILERAREN MODELATZEA

tonia izan zen definitu genuen indizearen sailkapenean igoerarik handiena izan zuen herrialdea, OSI, NRI eta GU rankingetako 22., 24. eta 26. posizioetatik hurrenez hurren, EGUI⁺ rankingeko 8. posiziora igoz.

Lau indize kontzeptualen eta EGUI⁺ indizearen jardunaren arteko antzekotasuna sakonago aztertzeko, binakako lau konparaketa egin genituen, indize bakoitzak emandako rankingen emaitzetan Kendall korrelazioa (Kendall 1938) kalkulatuz. 7.18. Taulak binakako Kendall testen emaitzak erakusten ditu EGUI⁺ eta EGDI, OSI, NRI eta GU artean, korrelazio-balioei (τ) eta esangura-mailari (p-balioa) dagokienez. Taulako bigarren eta hirugarren zutabeek herrialde egonkorren jarduna erakusten dute (berdez eta letra arruntez 7.17. Taulan). Emaitzen arabera, lau indizeak korrelazio handia dute EGUI⁺ indizearekin, 0,05 esangura-mailarekin, p-balioa $< \alpha$, bataz beste 0,8ko korrelazio-balioak lortuz (τ). Horretaz gain, 7.18. Taulako laugarren eta bosgarren zutabeetan, herrialde guztiak aztertuta egindako Kendall testaren emaitzak ere erakusten ditugu. Kasu honetan, τ -ren balioak 0,5era jaitsi ziren batez beste, EGDI definitutako indizearekin korrelazio-balio handiena lortzen duen indizea izanik ($\tau = 0,72$). Konparaketa globalean, korrelazio-balio handiagoak antzematen dira herrialdeen e-Prestasuna neurten duten indizeetarako (EGDI eta NRI), e-Gobernuarekin lotutako ezaugarrien adierazleetarako baino (OSI eta GU).

Indizea	Herrialde egonkorra [*]		26 herrialde	
	p-balioa	τ	p-balioa	τ
EGDI	$3,87 \times 10^{-06}$	0,72	$8,90 \times 10^{-10}$	0,78
OSI	$2,35 \times 10^{-02}$	0,37	$5,51 \times 10^{-05}$	0,82
NRI	$4,04 \times 10^{-03}$	0,46	$2,38 \times 10^{-08}$	0,81
GU	$4,69 \times 10^{-03}$	0,43	$2,29 \times 10^{-07}$	0,79

^{*} EGUI⁺ rankingarekiko aldeak $\leq \pm 5$ posizio.

7.18. Taula: Binakako Kendall korrelazio testen emaitzak EGUI⁺ eta EGDI, OSI, NRI eta GU indizeen artean.

Aurreko guztia kontuan hartuta, esan dezakegu e-Gobernuaren erabileraren inguruuan Europa osoan EGUI⁺ indizearen bidez egindako azterketa empirikoa bat datorrela, neurri handi batean, Europako herrialdeen e-Prestasun maila hainbat indizeren bidez (EGDI, OSI, NRI eta GU) neurten duten azterketa teorikoekin.

7.3.5. Eztabaida

Alde batetik, eten digitalaren ondorioz, unibertsalki irisgarriak diren gobernuaren online zerbitzuak eskaintzea erronka bat da (Schwester 2009). Beste aldetik, agentzia batek online zerbitzuak emateko duen gaitasunean herritarrek duten konfiantza ezinbestekoa da Gobernuko ekimenak modu zabalean erabiltzeko (Bélanger et al. 2008). Shareef et al. 2011 lanaren arabera, e-Gobernuaren

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

erabilera-portaera desberdina da e-Gobernuaren ikuspegia desberdinek (antolakari, teknologiari, ekonomiari eta gizarteari dagokiona) ezaugarri funtzional desberdinak dituztenean. Eurostaten CSIS inkestetan oinarrituta egindako azterketa empirikoaren lehen zatia, herrialdeen sailkapena e-Gobernuaren erabilera maila desberdinen arabera (ikus 7.14. Taula), bat dator adierazpen horrekin. Izan ere, lehenik eta behin, herrialde guztiak ez dute e-Gobernuaren erabilera-maila bera, eta, salbuespenak salbuespen, herrialde garatuenek eta aberatsenek gobernuaren erabilera-maila altuagoa dutela dirudi.

e-Gobernuaren erabilerari eragiten dioten faktoreei dagokienez, aurreikus liteke Internet bidezko erosketak zuzenean lotuta egotea e-Gobernuaren erabilerarekin, e-Merkataritzaren eta e-Gobernuaren arteko antzekotasunak direla eta. Schwester autorearen arabera (Schwester 2009), teknologia onartzeko, berrikuntza zabaltzeko eta konfiantza-ereduak zabaltzeko faktoreek erabiltzai-leek e-Merkataritza onartzeko/erabiltzeko zereginia betetzen duten bezala, e-Gobernuaren erabileran ere eragina izatea aurreikusten da. Gure azterketa-aren emaitzak erakusten duenez, Eursotat CSIS inkestetan arabera e-Gobernua gehien erabiltzen duten herrialdeetan, e-Gobernuko zerbitzuen erabilera aurerratua edo baliogabea gehienetan baldintzatzen duen aldagaia IBUY da, e-Merkataritzarekin lotutakoa.

Baina hau ez da beti horrela, desberdintasunak daude merkataritza-enpresen eta gobernu-agentzien artean (Bélanger et al. 2008). E-Merkataritzaren eta e-Gobernuaren existitzeeko zergatiak desberdinak dira (irabazia versus zerbitzua) eta dituzten bezeroak ere desberdinak dira (xede-merkatua versus biztanleria). Enpresek beren bezeroak aukera ditzaketen bitartean, e-Gobernuan, agentziak arduratzentz dira biztanle hautagarri guztiei sarbidea emateaz, diru-sarrera gutxien dituzten eta desgaitasuna duten pertsonak barne (Schwester 2009). Nahitaezko harremanak e-Gobernuan bakarrik daude. Herritarrek enpresak eta gobernu desberdin hautematen dituzte. Gainera, enpresen egitura eta agentziek sektore publikoan duten egitura desberdinak dira. Gobernu-agentzietan era-bakiak hartzeko autoritatea ez dago enpresetan bezain zentralizatuta. Autoritate sakabanaketa horrek gobernuko zerbitzu berriak garatzea eta ezartzea eragozten du. Hirugarren aldea erantzukizuna da. Gobernu demokratiko batetan, sektore publikoko agentziak mugatuta daude, "Publikoaren interesik oneean" baliabideak esleitzeko eta zerbitzuak emateko betekizuna betetzen dute-lako. Gobernu agentzien izaera politikoa ere e-Gobernua eta e-Merkataritza ezberdinak izatea eragiten duen ezaugarria da. Faktore horiek akaso zerikusia dute, erabilera maila baxuagoa duten herrialdeetan beste faktore batzuek, hala nola ikasketa-mailak eta lanbide-motak, e-Gobernuaren erabileran duten eraginean.

Bestalde, bestelako lanetan, Afyonluoglu et al. 2017 lanean adibidez, 16 nazioarteko e-Gobernuaren konparaziozko ebaluaketa azterlan alderatu zituzten, 2001 eta 2016 artean bost erakunde aktibok egindakoak, NBE eta WEF barne. Zehazki, 22 irizpide desberdineko puntu komunak eta aldeak identifikatu zituzten, EGDI eta NRI indizeak barne. Adierazi zutenez, azterlan hauetan e-Gobernuko markoaren etorkizuneko hobekuntzarako kontuan hartu beharko liratekeen honako adierazleak ez ziren ebaluatu: "herritarrek e-Zerbitzuak

7.4. LABURPENA

erabiltzeko "neurriak, "e-Gobernuaren gobernantza-eredua", "e-Zerbitzuen onurak" eta "gogobetetza". Hobekuntzak gobernu-esparruan. Era berean, Jadi et al. 2017 lanean EPI e-Parte-hartze indizea erabiltzen dute, NBEk diseinatutako adierazle osagarria, gobernuak e-Gobernuko sistemena jarduna evaluatzeko egindako ahaleginaren emaitza gisa. Egileek diotenez, e-Gobernuaren garapeneren zenbakizko sailkapena emateko erreferentzia gisa EGDI erabiltzen bada ere, webguneak, azpiegiturak eta online zerbitzuak sortzeak soilik gobernuak erraztasunak ustiatzeko duen prestasuna erakusten du. Hala ere, adierazle horiez gain, e-Gobernuko sistemena jarduna azter daiteke herritarrek erraztasun horiek zein neurritan erabiltzen dituzten neurrtuta. Lan honen bigarren zatia aurreko ildoekin bat dator. Bertan, e-Gobernuaren erabilera eta Europar Batasuneko 26 herrialderen e-Prestasuna alderatu ditugu honako indizeak erabiliz: 2009-2015 urteetan Eurostatek egindako CSIS inkestetan oinarrituz enpirikoki kalkulatutako EGDI⁺ indiza, EGDI indiza eta haren OSI osagaia (2010-2016 urteetan Nazio Batuen e-Gobernuari buruzko inkestetan argitaratua), NRI indiza eta honen GU osagaia 2010-2015 urteetan Munduko Ekonomia Foroak argitaratutako Informazioaren Teknologiaren txosten orokorrean agertzen de-na). Gure analisiaren arabera, badirudi herrialde gehienetan e-Gobernuaren egoera ez dela funtsean ezberdina, kalkulu-metodo desberdinak erabili arren. Honi dagokionez, uste dugu herrialdeen e-Prestasunaren kalkulua (EGDI, NRI) hobetu egin daitekeela, definitzen dugun indizean kuantifikatutako e-Zerbitzuen benetako erabilera kontuan hartzen bada (EGDI⁺).

7.4. Laburpena

Kapitulu honetan, e-Zerbitzuei egindako bi ekarpenean aurkeztu ditugu. Lehenengoan, unibertsitate baten webgunean matrikulazioaren inguruko informazioa ematen duen zonaldean erabiltzaileek egindako elkarrekintza modelatu genuen. Bigarrenean aldiz, e-Gobernuko zerbitzuen erabileraaren inguruko azterketa enpirikoa egin genuen, Europan mailan.

Zehazki, lehenengo ekarpenean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) webgunean matrikulazioaren inguruko informazioa ematen duen zonaldea aztertu genuen, eta datu-meatzaritzako prozesu oso bat egin genuen. Prozesu horrek erakutsi zuen arrakasta eta porrot motako nabigazio-portaerak automatikoki modela daitezkeela, datu-meatzaritzako teknikak erabiliz. Horretarako, erabiltzaileen nabigazioak bi modutan irudikatu genituen: erregistratutako klien sekuentziatik ateratako 28 elkarrekintza-ezaugarrien bidez (nabigazio-modua) eta saio bakoitzean erabiltzaileek bisitatutako URLen sekuentzia gisara (nabigazio-sekuentzia). Alde batetik, gainbegiratutako ikasketa erabiliz, CTC zuhaitzak (Pérez et al. 2007) lehen irudikapenean (nabigazio-moduan) egikarituz, bi nabigazio motak automatikoki bereiz ditzakegu %98ko zehaztasun-tasarekin. Bestalde, gainbegiratu gabeko ikasketa-teknikak erabiliz, nabigazioen irudikapen bakoitzean eta bien arteko konbinaketa batean, arrakasta eta porrota motako nabigazio-saioak ere automatikoki detektatu ahal izan genituen, baina zehaztasun-tasa txikiagoa lortuz,

7. KAPITULUA - E-ZERBITZUAK

%78 ingurukoa. Gainera, beste azpisistema bat sortu genuen nabigazio-moduan oinarritutako porrota motako saioak detektatzeko, gainbegiratu gabeko prozedurak erabiliz. Honi esker, zehaztasun-tasa doitu ahal izan genuen balio handiagoak lortzeko, %100 zehaztasun tasa gertuen zeuden saio berrien %10 batentzat. Arrakasta eta porrota motako nabigazioak automatikoki sailkatzeko nabigazio-moduan oinarrituta sortutako bi sistema nagusiak ere gai izan ziren saio mota bakoitzaren arau nagusiak (gainbegiratutako sistema) eta ezau-garriak (gainbegiratu gabeko sistema) identifikatzeko. Esaterako, klik baten iraupena bataz beste eduki motako (testua nagusi denean) edo bideratziale motako (estekak nagusi direnean) URL batean. Beraz, gure ustez, ekarpen hau abiapuntu egokia da etorkizun hurbilean aztertutako e-Zerbitzua hobetzeko.

Bigarren ekarpenean, Europa osoko gobernuak emandako e-Zerbitzuen erabilera praktikoa aztertu genuen (e-Gobernuaren erabilera EBko 26 herrialde-rentzat), Eurostat erakundeak (Eurostat 2004) emandako datu enpirikoetan oinarrituta. Lortutako datuetan oinarrituta, lehenik eta behin faktore hori kuantifikatu genuen, bi indize definituz: e-Gobernuaren erabilera indizea (EGUI) eta haren muturreko bertsio bat (EGUI⁺). Gero, CTC zuhaitzak erabiliz, e-Gobernuko zerbitzuen erabilera aurreratua eta baliogabea ezaugarritu genuen, EGUI⁺ maila desberdinak dituzten herrialde batzutan. Procedura horiek %73ko batez besteko zehaztasun-tasa lortu zuten, eta herrialde bakoitzean e-Gobernuaren erabilera praktikoarekin lotutako faktore nagusiak zehaztu zituzten, adibidez, Internet bidezko erosketen maiztasuna edo ikasketa-maila. Gainera, proposatutako indizeetako bat (EGUI⁺) herrialde baten e-Prestakuntzaren maila neurzen duten beste indize batzuekin alderatu genuen: e-Gobernuaren garapen indizea (*E-Government Development Index*, EGDI) eta honen osagaia den online zerbitzuen indizea (*Online Service Index*, OSI), sareko prestasunaren indizea (*Networked Readiness Index*, NRI) eta honen osagaia den gobernu erabilera (*Government Use*, GU). Rankingen arteko konparaketak aditzera eman zuen, EGUI⁺ aipatutako lau indizeekin korrelatuta zegoela, 0,05 esanguramailarekin. Emaitzek Europaren e-Gobernuaren erabilera praktikoa ezaugarritzen duten faktoreak zein diren ulertzten laguntzen dute. Beraz, gure aurkikuntzek jarraibide batzuk eman ditzakete herritarrek erakundeek eskainitako web zerbitzuekin nahiz informazioarekin duten elkarrekintza hobetzeko, duten erabilera-mailaren arabera (EGUI⁺).

IV. Atala

Konklusioak

8. Kapitulua

Konklusioak

Tesi honek ekarpenak egiten ditu Pertsona-Konputagailu Elkarrekintza (PKE) hainbat testuingurutan hobetzeko, ikasketa automatikoko tekniketan oinarrituz. Beraz, ekarpenak ikaskuntza automatikoko eta PKEko testuingurueta egin dira:

Ikasketa automatikoaren testuinguruan, lanak clustering-prozeduren erabilera duen zaitasun nagusietako bat jorratzen du, hau da, era guztieta testuingurueta partizioen kalitatea ebaluatzea. Kluster baliozkotasun indizeek (*Cluster Validation Indexes*, CVI) ebaluazio hori egiteko aukera ematen dute, baina horietako bakar batek ere ez du frogatu egoera guztietan onena denik. Beraz, alternatiba eraginkor gisa, lehenengo ekarpenean, hainbat indize erabiltzen dituzten erabakiak fusionatzeko hainbat sistema (bozketak) proposatzen dira.

Pertsona-Konputagailu Elkarrekintzan, ekarpenak hiru arlotan biltzen dira. Lehenengoa, irisgarritasunaren testuinguruari dagokio, eta desgaitasuna duten edo ez duten erabiltzaileen nabigazio-arazoak automatikoki detektatzeko sistema bat aurkezten du.

Hurrengo ekarpenean informatika medikoaren arloa aztertzen da. Ekarpenean, lehenik eta behin, klinikoen erabakiak hartzeko jardueretan laguntzeko erabilitako arbela-mediko batean (SMASH) antzemandako portaera bisualak eta elkarrekintzari dagokionak konektatzen dira. Bigarrenik, bi erabiltzaile talde nagusi automatikoki detektatu eta ezaugarritzen dira, elkarrekintza-portaeraren arabera: lehen-mailakoa (farmazialariak) eta bigarren mailakoa (ez farmazialariak).

Azkenik, zerbitzu elektronikoen arloari (e-Zerbitzuak) ere ekarpena egiten diogu, haien elkarrekintza eta erabilera modelatuz. Alde batetik, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) webgunean bildutako elkarrekintza-datueta oinarritura, unibertsitatean matrikulatzeko helburua izan dezaketen ikasleak modelatu dira. Bestalde, Eurostatek emandako inkestako datuetan oinarritura, gobernu elektronikoaren (e-Gobernuaren) erabilera kuantifikatza eta ezaugarriztea lortu dugu.

Pertsona-Konputagailu Elkarrekintzaren (PKE) ingurune hain desberdinetan egiten ditugun ekarpenek erakusten dute ikasketa automatikoak duen ga-

8. KAPITULUA - KONKLUSIOAK

rrantzia, etorkizunean PKE sistema hobeak sortzeko. Hurrengo ataletan, testuinguru bakoitzean jasotako ondorio nagusiak laburtuko dira.

8.1. Ikasketa automatikoa - Clusteringa baliozko-tzea.

Egindako azterketak erakusten duenez, CVIen arteko erabakien fusio-estrategiak (bozketak), sailkatzaile anitzeko sistemetan erabiltzen direnen antzekoak direnak, clusteringa baliozkotzeko eraginkorrap dira. Baino emaitza onak lortzeko, botoak erabilitako CVIen ezaugarrien eta eskuragai dauden faktore esperimentalen arabera (adibidez, zarata-maila) haztatu behar dira. Haztatu gabeko botoak zituzten estrategietako bakar batek ere ez zuen errendimendua hobetu CVI onenarekin alderatuta (Silhouette). CVIak beren jardunaren arabera haztatzen zituzten ia bozketa-estrategia guztiekin aldi, CVI indibidualek baino portaera hobia erakutsi zuten.

Bereziki, datu-base erreal eta sintetikoentzako bozketa-estrategiarik oneak ezaugarri hauek ditu: batetik, faktore esperimental kontrolatu bakoitzeko arrakasta-tasa altuena duten bi CVIak erabiltzen ditu; bestetik, bota bakoitza haztatzen du aldez aurretik definitutako faktore bakoitzaren garrantziaren arabera. Ildo horretan, Friedmanen eta Wilcoxonen test estatistikoek adierazi zuten bozketa-estrategia onenaren emaitzak nabarmen hobeak izan zirela erreferentziazko lanaren 10 indize onenek emandakoekin alderatuz (Arbelaitz et al. 2013b).

Lortutako emaitzak ikusita, uste dugu erabakien fusio-estrategiak bide arrakastatsua direla testuinguru bakoitzerako partiziorik onena zein den zehazteko, gainbegiratu gabeko ikasketaren arloan funtsezkoa den gaia. Beraz, gure ustez, clusteringa baliozkotzea helburu duten erabakien fusio-estrategietan egindako ekarpen berrieik algoritmoek sortutako partizioen egokitasunaren inguruan dagoen ziurgabetasuna murrizten lagun dezakete.

8.2. PKE - Irisgarritasuna

RemoTest plataformak bildutako datuetan datu-meatzaritzako prozesu oso bat gauzatzu eraikitako sistemaren emaitzak ikusita, estrategia hau erabiltzai-leek, desgaitasuna dutenak eta desgaitasuna ez dutenak, izan ditzaketen web-nabigazio arazoak automatikoki detektatzeko eraginkorra izan daitekeela frogatu genuen.

Eraikitako sistemaren lehenengo urratsa gailuen detekzio automatikoa zen eta horretarako, gainbegiratuko ikasketa prozeduretan oinarritutako bi mailatoko hurbilpen hierarkiko bate proposatu genuen. Hurbilpen honetan lehenik eta behin, erabiltzaileek erabilitako lau gailuak bi talde nagusitan automatikoki bereizten ziren (teklatua eta beste batzuk) eta bigarrenik, trackball, joystick eta sagua. Bi mailetan zehaztasun-tasa (%) handiak lortu ziren, %99.26 lehen

8.3. PKE - INFORMATIKA MEDIKOA

mailan eta %89.84 bigarren mailan. Gailu mota bakoitzeko etorkizunean eztabaidatuko diren egokitzapenak nabarmen desberdinak direnez, funtsezkoa zen akats kritikoa minimizatzea, bi gailu talde nagusiak bereiztean gertatzen dena.

Eraikitako sistemaren bigarren urratsean, gainbegiratu gabeko ikaskuntza-prozedurak erabiliz, erabiltzaile bakoitzak izan ditzakeen arazoak automatikoki detektatzen dira, bi ataza mota egiten dituen bitartean. Alde batetik, MiniAtazak zuzendutako nabigazioak dira eta horietan, erabiltzaileei nabarmendutako helburuetan klik egiteko eskatzen zaie. BilaketaAtazak aldiz, bilaketa motako nabigazioak eta zuzendutakoak egiten ari dira, erabiltzaileek web orri jakin bat bilatu behar dutelarik. Zehazki, ataza eta gailu bakoitzeko, ezaugarri desbideratuak zituzten klusterrak automatikoki antzeman genituen eta kluster horietan bildutako nabigazioak bisualki aztertu ziren, patroi problematikoak aurkitze-ko. MiniAtazetan zazpi patroi problematiko aurkitu ziren guztira: distantzia handiegia, denbora gehiegi, norabide-zuzenketak, alferrikako klikak, helburuaren inguruko zailtasunak, klik luzeak eta geldialdi gehiegi. BilaketaAtazetan berriz, helburuaren inguruko zailtasunak izan ezik, gainerako patroi guztiak antzeman ziren. Hau ulergarria da, izan ere, MiniAtazetan erabiltzaileek pantailan agertzen diren helburuak lortu behar dituzte eta BilaketaAtazetan aldiz, nahi dituzten helburuak lortzen dituzte.

Horretaz gain, detektatutako patroien atzean dauden arrazoi hipotetikoak eztabaidatu genituen eta egokitzapen aproposak iradoki genituen erabilitako patroien eta gailuen arabera.

8.3. PKE - Informatika medikoa

Ekarpene honetan, bi analisi egin genituen, arbela mediko bat (SMASH) erabilten duten medikuekin egindako bi azterlanetan (laborategikoak eta behaketa-koak) elkarrekintza eta begiradaren inguruau bildutako datuak erabiliz. Ondorioak bi alderditan atera genituen, portaera-bisualen eta interaktiboen arteko sinergiak eta erabiltzaileen elkarrekintzaren modelatzea.

8.3.1. Portaera-bisualen eta interaktiboen arteko sinergiak

SMASH arbela medikoak zazpi pantaila ditu, laborategiko azterketako erabiltzaileek, ataza zehatzak osatu behar izan zutenak, pantailan bakoitzean egindako elkarrekintza nahiz elkarrekintza globala aztertu genuen. Elkarrekintzadatuekin egindako clustering analisiak erakutsi zuen erabiltzaileen portaera interaktiboa antzekoa izan zela SMASHen pantaila guztieta. Portaera hori desberdina izan zen kasuetan, pantaila espezifiko batek portaera ezberdina ekarri zuenean, hau ere modu berdinean aldatu zen kluster barruko parte-hartzaleen artean. Aurkikuntza horrek iradokitzen du pantaila espezifikoa erabiltzaile-ereduan sartzeak agian ez duela inolako eraginik izango, saguarekin egindako bi kliken arteko denbora tartea eta sagu-pausatze (esplorazioa) metrikak erabiltze-ko moduan.

8. KAPITULUA - KONKLUSIOAK

Bestalde, SMASH Interfazea bederatzi intereseko-eremutan (IE) banatzen da, begiradaren jarduerarako garrantzitsutzat jotzen direnak, eta laborategiko azterketako parte-hartzaileen begirada jarduera eremu hauetan banatuta aztertu genuen, finkapenen iraupenari dagokionez. Begiradaren jardueraren analisiak erabiltzailearen elkarrekintza analisiak sortutako talde berberak sortu zituen. Horrek esan nahi du denbora tarte eta esplorazioari dagokionez portaera interaktibo berezia erakutsi zuten parte-hartzaleek antzeko portaera bisuala izan zutela IEtan izandako finkapen-iraupenari dagokionez. Begirada arretaren proxy bat denez eta, aldi berean, arreta ekintzaren aurretik dagoenez (Huang et al. 2012), esan dezakegu taldekatze horiek ez direla ausazkoak izan. Beraz, portaera interaktibo zehatzak, neurri batean, intereseko eremu espezifikoetako finkapenen iraupenaren araberakoa izan daitekeela esan genezake.

SMASH eguneroko jarduera gisa erabili zuten behaketa-azterketako parte-hartzaleen elkarrekintza-datuak analisian sartzeak erakutsi zuen jasotako portaerak egonkorrik izan zirela bi inguruneetan, nahiz eta ataza desberdinak egin ziren.

Horrek etorkizun handiko ondorioak ditu, portaera bisuala elkarrekintza-datuak soilik erabiliz ondoriozta baitaiteke. Elkarrekintza-datuuen analisi batzuk denbora errealean egin daitezke nabigatzalean. Elkarrekintza-datuak prozesatzea eta aztertzea erraza da, betiere metrika zuzenak monitorizatzen ari badira, baina epe ertainean ez da espero begi-arakatzalea laborategiko ingurunetik kanpo erabiltzea. Elkarrekintza eta begiradaren jarduera neurtzeko kalkulutako metrikak honako helburuekin erabil daitezke: 1) denbora errealeko erabilgarritasun-arazoak ondorioztatzeko eta 2) erabiltzailearen Interfazean egokitzapenak jakinarazteko. Behaketa-azterketako parte-hartzaleen begiradari buruzko daturik izan gabe, pentsa dezakegu haien portaera bisuala laborategiko parte-hartzaleek izan zutenaren antzekoa izan daitekeela, euren taldeetan taldekatu baitziren. Etorkizuneko lanak helburu hori bilatuko du.

8.3.2. Erabiltzailearen modelatzea, portaera interaktiboan oinarrituz

Ekarpen honek arrakastaz modelatu zuen behaketa-azterketaren arbela mediakoaren bi erabiltzaile talde nagusien portaera interaktiboa. Analisi deskriptiboak jasotako desberdintasun esplizituez gain, bi taldeak ezaugarritzen zituen hiru desberdintasun nagusi antzeman genituen, portaera interaktiboa dagoionez. Desberdintasun horiek garrantzitsuak dira SMASH arbelaren eguneroko erabilera ulertzeko; izan ere, farmazialari ziren erabiltzaile lehen mailako erabiltzaileek gaitasun handiagoa dute informazio laburtua eta joerei buruzko informazioa ematen duten pantailetan. Bigarren mailako erabiltzaileek aldiz (familiako medikuak eta bestelako profilak), gaitasun txikiagoa dute datuen banakatze zehatza duten pantailetan. Lan-fluxuak proposatzen ditugu, jarduera horiek sekuentzia koherente batean eta hezkuntza-estimulu pertsonalizatuetan bilduko dituztenak, konpromisoa sustatzeko.

Lanaren ekarpenak bikoitzak dira. Alde batetik, ekarpen metodologiko batek iradokitzen du posible dela erabiltzaileen portaera interaktiboa botiken segurta-

sun arbela batean ezaugarritza erabiltzailearen elkarrekintza-gertaerak erabiliz, hala nola sagu-pausatzea eta elkarren segidako bi kliken artean igarotako denbora. Bestalde, ekarpen empiriko osasunaren zaintzan interesa dutenek arbela medikoa nola erabiltzen dituzten ulertzeko ezagutza ahalbidetzen du. Arlo hori, hein handi batean, aztertu gabe dago, eta funtsezkoa da erabiltzaileek datuak hautemateko, prozesatzeko eta aurreprozesatzeko duten gaitasunari erantzuteko egokitzapenak egiteko (Dowding et al. 2015).

8.4. PKE - E-Zerbitzuak

Azken bi ekarpenetik ondorioztatzen dugu posible dela zerbitzu elektronikoen (e-Zeritzuen) elkarrekintza eta erabilera modelatzea.

8.4.1. E-Zerbitzuen elkarrekintzaren modelatzea

Ekarpen honetan UPV/EHUko webgunean matrikulazioari buruzko informazioa ematen duen zonaldea modelatu dugu, web-meatzaritzako teknikak erabiliz. Nabigazio-saioak bi kategorietan sailkatu genituen, bisitatutako azken URLaren arabera: arrakasta (matrikulazioari buruzko informazioa jaso duten erabiltzaileak) eta porrota (matrikulazioari buruzko informazioa iritsi ez diren erabiltzaileak).

Lehen hurbilpenean, gainbegiratutako bi algoritmo erabiliz, C4.5 eta CTC zuhaitzak, nabigazio-saioak arrakasta eta porrota motako nabigazio-saioak ezaugarritzeko gai izan ginен, erauzitako elkarrekintza-ezaugarrrien multzoan oinarrituz. Egindako binakako T testaren arabera, CTC zuhaitzek AUC balio nabarmen hobea lortu zuten ($0.9828 > 0.9665$), azalpen simpleagoa eta egonkorragoa ahalbidetuz. CTC zuhaitzek adierazi zuten porrota motako saioek, bataz beste, denbora gutxiago egoten zirela testua nagusi zen URLetan, eta estekak nagusi ziren URLetan aldiz, denbora gehiago. Arrakasta-motako saioetan ordea, testua nagusi zen URLetan egondako denbora handiagoa zen. Beste arau alternatibo batzuek adierazi zuten URL mota horren proportzio baxuak porrotarekin lotuta zeudela, eta altuak arrakastarekin. Gainbegiratu gabeko sailkapenak ezaugarritze hau onetsi zuen, saioaren sailkapenerako antzeko ezaugarri erabakigarriak iradokiz.

Bestalde, erabilitako bi saio-irudikapenetan, elkarrekintza-ezaugarrrien multzoan eta bisitatutako URL sekuentzian, gainbegiratutako ikasketa-algoritmoak egikaritu genituen. Sortutako bi partizioetako klusterren erdientan, zehaztutako nabigazio motetako baten nagusitasun altua izan zen ($> 74\%$). Beraz, bi irudikapenek arrakasta eta porrota motako saioak automatikoki hautemateko aukera ematen zutela baieztago genuen. Hala ere, bi partizioak Jaccard indizearekin konparatzean, ondorioztatu genuen bi perspektibak ez zeude-la konektatuta eta akaso, osagarriak izan zitezkeela. Ondoren, arrakasta edo porrota motako saioen nagusitasuna handia zuten klusterrekin, hiru bozketasistema eraiki genituen. Emaitzen arabera, elkarrekintza-ezaugarrrien multzoarekin eraikitako sistema, bisitatutako URLen sekuentziarekin eraikitakoa baino

8. KAPITULUA - KONKLUSIOAK

eraginkorragoa zela ikusi genuen, saio berrien sailkapenari dagokionez (%78,2ko zehaztasun-tasa). Bi irudikapen horien konbinazioak ere arrakasta izan zuen, aurreko estrategiak baino zertxobait hobeto jardunez. Azkenik, porrotak detektatzeko azpisistema bat sortu genuen elkarrekintza-ezaugarrien multzoan oinarrituta. Sistema honek distantzia-atalase bat definitza ahalbidetzen zuena, saio berriak probabilitate handiko porrota mota gisa sailkatzeo.

Bi irudikapenei esker, UPV/EHUren webgunean matrikulazioari buruzko informazioa ematen duen zonaldea modelatzeko lehen pausoa eman dugu. Emaitzak kontuan hartuta, esan dezakegu gainbegiratutako eta gainbegiratu gabeko ikasketa teknikak prozesu horretan baliagarriak direla, lehenak zehaztasun-tasa handiagoa lortzen badu ere.

8.4.2. E-Zerbitzuen erabileraaren modelatzea

Ekarpenean, gobernuak Europa osoan (Europar Batasuneko 26 herrialdean) emandako e-Zerbitzuen erabilera praktikoa aztertu dugu, Eurostatek emandako datu empirikoan oinarrituta (Eurostat 2004). Emaitzek Europaren e-Gobernuko zerbitzuen erabilera eragina duten faktoreetako batzuk ezagutzeko aukera ematen dute. Faktore hauek jarraibide batzuk eman ditzakete herriarrek erakundeek eskainitako web-zerbitzuekin eta informazioarekin egindako elkarrekintza hobetzeko, duten e-Gobernuaren erabilera-mailaren arabera.

Jasotako datuek aukera eman ziguten erabilera maila kuantifikatzeko eta herrialdeen e-Gobernuaren erabilera lau mailatan sailkatzeo: oso alta, altua, baxua eta oso baxua. Gainbegiratutako ikasketa prozedurak erabiliz (CTC zuhaitzak) maila bakoitzeko bi herrialde ezaugarritu genituen: Danimarka eta Norvegia, Irlanda eta Estonia, Letonia eta Belgika, eta Polonia eta Errumania (e-Gobernuaren erabilera-maila beheranzko ordenan). Horri esker, hautatutako zortzi herrialdeetan, e-Gobernuaren erabilera aurreratua eta baliogabea egiten duten pertsonak bereiztu ahal izan genituen %73 zehaztasun-tasarekin bataz beste.

Horrekin batera, Pearsonen korrelazio analisiak agerian utzi zuen e-Gobernuaren tresnen erabilera aurreratua egin zuten Europar herritarren ezaugarri nagusiak hauek zirela: berriki Internet bidezko erosketak egin zituzten eta ikasketa-maila handia zuten. Aurkikuntza horiek bat datoaz aztertutako herrialde gehienetako CTC egituretak eratorritako arau nagusiekin.

Azkenik, Europako 26 herrialdeetarako, e-Gobernuaren erabilera neurtzeko definitu genuen indizea, herrialde baten e-Prestakuntzaren maila neurtzen duten beste indize kontzeptual batzuekin konparatu genuen. Zehazki, indizeetatik eraorrak rankingak konparatu ostean, indize guztiak korrelatuta zeudela ikusi genuen, 0,05eko esangura-mailarekin. Beraz, esan dezakegu analisi empirikotik ateratako erabilera-mailak, oro har, balio kontzeptual eta teorikoagoekin lerrokatuta daudela.

Laburbilduz, gure ustez, datu empirikoan oinarritutako emaitza hauek, etorkizunean Europako hainbat herrialdetan e-Gobernuaren erabilera hobetzea helburu duten erabaki estrategikoetarako baliagarriak daitezke. Izan ere, batez, e-Gobernuaren erabilera aurreratuari eta baliogabeari gehien eragiten dioten

8.5. ETORKIZUNEKO LANA

faktoreak ezagutzeko aukera eman digute eta bestetik, indize osagarriak proposatzeko aukera.

8.5. Etorkizuneko lana

Doktorego tesi honetan aurkeztutako lau ekarpenek etorkizuneko lan-ildo desberdinan lan egiteko aukera ematen dute.

Clusteringa baliozkotzeko testuinguruan, etorkizuneko lan-ildo desberdinak zehaztu daitezke. Batetik, proposatutako erabakien fusio-sistemak datu-base sintetiko eta errereal desberdinan probatu litzke. Bestetik, bozketa-estrategia berriak diseinatu litzke beste CVI batzuk erabiliz. Azkenik, kluster baliozkotasun indizeei esleitutako haztapenak definitzeko erabilitako faktore experimentalen eragina zehaztasun handiagoz kalkulatu liteke honako helburuekin: emaitzak hobetzea edo ingurune jakinetan espezializatutako bozketa-sistemak diseinatzea (zaratatsuak, gainjarriak, dimentsio handikoak).

Irisgarritasun testuinguruari dagokionez, proposatutako sisteman egokitza-pen aproposak ezartzea izango litzateke etorkizuneko lan-ildo nagusia. Beraz, erabilitako gailua eta patroi problematikoak automatikoki detektatzen direnez, dagozkien egokitzapen-teknikak horren arabera aktibatu beharko lirateke. Zentzu honetan, sistema hobetzeko honako nabigazioen elkarrekintza-ezaugarriak konparatu litzke: egokitzapenak aktibatu dituzten nabigazio berrienak eta egokitzapenak aktibatu ez dituzten ekarpen honetan aztertutako nabigazioenak.

Informatika medikoaren testuinguruan egindako lehen azterketan, laborategian ez daude erabiltzaileekin esperimentu berriak egin litzke, lan gehigarri gisa. Zehazki, esperimentu horietako parte-hartzaileen begiradaren eta elkarrekintzaren informazioa bildu beharko lirateke, portaera bisualaren eta portae-ra interaktiboaren artean aurkitutako erlazioak baliozkotzeko. Gainera, bideo-formatu batean bildutako informazio bisualaren analisia aberasteko erabil litzke. Esaterako, erabiltzaileek arbelarekin elkarrekintza egitean izan ditzaketen arazoak hauteman litzke. Bigarren analisiari dagokionez, parte-hartzaile guztiei gaitasun bera emango dieten esperimentu berriak diseinatu litzke, beste erabiltzaile-profil batzuk automatikoki antzeman eta ezaugarritzeko. Gainera, etorkizunean arbela medikuaren diseinatzaleekin elkarlanean aritzeak, aukera eman lezake arbelaren diseinua antzemandako profiletara automatikoki egokitzeko. Beste era batera esanda, erabiltzailearen esperientzia hobetzeko. Azkenik, ekarpentik ateratakoko ondorioak orokortzeko, bi analisiak parte-hartzaile gehiagorekin errepikatu litzke.

E-Zerbitzuen testuinguruan, Euskal Herriko Unibertsitatearen azterketarekin lotuta, sistema osagarriaren azterketa sakona egin liteke. Zehazki, bozkatze-ko irizpide komplexuagoak kontuan har litzke, adibidez, bozka hazi-tatuak erabiliz. Bestalde, saioak irudikatzeko hautatutako ezaugarriak berrikusi litzke, eta ezaugarri horietako azpimultzo bat erabiltzeak emaitzen hobekuntza ekarriko lukeen aztertu. Horrekin batera, etorkizuneko erabiltzaileei aurrea hartzeko sortutako ereduen azterketa sakona egin liteke, eta erabilgarritasunean eragin negatiboa duten elementuak identifikatu eta hobetu. Europen e-Gobernuaren

8. KAPITULUA - KONKLUSIOAK

erabilerari dagokionez, gure azterlana zabal daiteke batetik, Eurostaten eta Nazio Batuen Erakundearen datu berriak sartuz (2016-2020 eta 2018-2020 urteak hurrenez hurren). Bestetik, zenbait egilek iradokitako e-Gobernuaren beste adierazle batzuk erabil litezke (Seri et al. 2014; Kabbar et al. 2013; Jadi et al. 2017). Azkenik, ikerketa aberastu liteke intereseko eremu geografikoa zabalduz edo eremu txikiagoa aztertuz.

8.6. Lotutako argitalpenak

Doktorego tesi honetan zehar, lau testuinguru ezberdinetan argitalpen mota desberdinak egin dira: nazioarteko aldizkarietako artikuluak, nazioarteko kongresuen eta kongresu nazionalen artikuluak, liburu-kapitulua eta barne ikerketa-txostenak. Jarraian, kategoria eta testuinguru bakoitzerako egindako argitalpenak laburbiltzen dira.

- Nazioarteko aldizkariak:
 - Clusteringa baliozkotzea (Yera et al. 2017a): Ainhoa Yera, Olatz Arbelaitz, Jose Luis Jodra, Ibai Gurrutxaga, Jose María Pérez, eta Javier Muguerza. Analysis of several decision fusion strategies for clustering validation. Strategy definition, experiments and validation. *Pattern Recognition Letters*, 85, 42-48, 2017.
 - Irisgarritasuna (Yera et al. 2019b), 2019ko azaroan bidalita: Ainhoa Yera, Iñigo Perona, Olatz Arbelaitz, Javier Muguerza, Juan Eduardo Pérez, eta Xabier Valencia. Automatic web navigation problem detection based on client-side interaction data. *Data Mining and Knowledge Discovery*.
 - Informatika medikoa (Yera et al. 2019c): Yera, Ainhoa, Javier Muguerza, Olatz Arbelaitz, Iñigo Perona, Richard N. Keers, Darren M. Ashcroft, Richard Williams, Niels Peek, Caroline Jay, eta Markel Vigo. Modelling the interactive behaviour of users with a medication safety dashboard in a primary care setting. *International journal of medical informatics*, 129, 395-403, 2019.
 - E-Services (Yera et al. 2019a), 2019ko urrian bidalita: Ainhoa Yera, Olatz Arbelaitz, Oier Jauregi, eta Javier Muguerza. Characterisation of e-Government adoption in Europe. *PLOS ONE*.
- Nazioarteko Kongresuak:
 - Irisgarritasuna (Perona et al. 2019): Iñigo Perona, Ainhoa Yera, Olatz Arbelaitz, Javier Muguerza, Juan Eduardo Pérez, eta Xabier Valencia. Towards automatic problem detection in Web navigation based on client-side interaction data. *In Proceedings of the XX International Conference on Human Computer Interaction*, 41:1-41:4, ACM, 2019.

8.6. LOTUTAKO ARGITALPENAK

- Medical informatics (Yera et al. 2018a): Ainhoa Yera, Javier Muguerza, Olatz Arbelaitz, Iñigo Perona, Richard N. Keers, Darren M. Ashcroft, Richard Williams, Niels Peek, Caroline Jay, eta Markel Vigo. Modelling the interactive behaviour of users with a medication safety dashboard in a primary care setting. *In Proceedings of the 2018 International Conference on Digital Health*, 55-59, 2019.
- E-Services (Yera et al. 2018c): Ainhoa Yera, Iñigo Perona, Olatz Arbelaitz, eta Javier Muguerza. Modelling the enrolment eService of a university using machine learning techniques. *In Proceedings of the XVI International Conference e-Society*, 83-91, 2018.
- Kongresu nazionalak:
 - Irisgarritasuna (Perona et al. 2016): Iñigo Perona, Ainhoa Yera, Olatz Arbelaitz, Javier Muguerza, Nikolaos Ragkousis, Myriam Arrue, Juan Eduardo Pérez, eta Xabier Valencia. Automatic device detection in web interaction. *In Proceedings of the XVII Conference of the Spanish Association for Artificial Intelligence (CAEPIA 2016)*, 835-844, 2016.
 - Irisgarritasuna (Perona et al. 2017): Iñigo Perona, Ainhoa Yera, Olatz Arbelaitz, Javier Muguerza, Juan Eduardo Pérez, eta Xabier Valencia. Web elkarrekintzan erabilitako gailuen detekzio automatikoa. *II. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ. Kongresuko artikulu-bilduma Ingeniaritza eta Arkitektura*, 22-29, 2017
 - E-Zerbitzuak (Yera et al. 2017b): Ainhoa Yera, Iñigo Perona, Olatz Arbelaitz, eta Javier Muguerza. UPV/EHUko eZerbitzu baten modelatzea ikasketa automatikoaren bidez. *II. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ. Kongresuko artikulu-bilduma Ingeniaritza eta Arkitektura*, 111-118, 2017.
 - E-Zerbitzuak (Yera et al. 2018b): Ainhoa Yera, Iñigo Perona, Olatz Arbelaitz, eta Javier Muguerza. Modeling the navigation on enrolment web information area of a university using machine learning techniques. *Advances in Artificial Intelligence. 18th Conference of the Spanish Association for Artificial Intelligence, CAEPIA 2018. Lecture Notes in Artificial Intelligence 11160 (LNAI 11160)*, 307-316, 2018.
- Liburu-kapitulua:
